

æk
23.korrika



ELGETA
08:34

MARTXOA

23

GATZAGA
02:24



"SAIATZEN GARA
AHALIK ETA HERRI
GEHIENETATIK
PASATZEN; 210
HERRI IGAROKO
DITU KORRIKAK"

ANE ELORDI
KORRIKAKO
KOORDINATZAILE
NAGUSIA

BERGARA
07:36

ESKORIATZA
03:03

ELOSUA
06:37

ARETXABALETA
03:22

Korrika bitan pasatuko da Debagoienetik

Atzo aurkeztu zuten martxoaren 14an Irunen hasi eta 24an Baionan amaituko den Korrikaren 23. aldiaren ibilbidea; martxoaren 20an, eguaztena, eta 23an, zapatua, igaroko da eskualdetik / 2

SINADURAK



Eskualdeko ehunka lagunek bat egingo dute Sarek zapatarako Bilbon deitutako manifestazioarekin / 3



MARTXOA

20

ARRASATE
03:35

Merkealdia

2mó
189€

lehen 229€
erreflexuen aurkako
betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan kempainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

943 79 29 95
Otalora Lizentziaduna, 18
ARRASATE



eskato hitzordua



943 76 15 75
Ibargarai, 16
BERGARA

www.multioplicas.com



ONATI
04:34



Korrikako koordinatzailea Ane Elordi, martitzenean, Goiena telebistako platoon. XABIER URTZELAI

"Presente eduki behar da Korrika aldarrikapenerako ekimena dela"

ANE ELORDI KORRIKAKO KOORDINATZAILEA

2022an hartu zuen Korrikaren lekukoa zornotzarrak eta lehen aldiz izango du euskararen aldeko ekimenaren gidaritza; atzo aurkeztu zuten aurtengo ibilbidea

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE Martxoaren 14an abiatuko da Korrika, Irundik, eta martxoaren 24an iritsiko da Baionara. Aurtengo edizioari buruz gehiago jakiteko, Korrikaren koordinatzailea Ane Elordi (Zornotza, 1991) elkarrizketatu du GOIENAK. **2022ko azarotik zara Korrikaren koordinatzailea, baina 2015a ezkerro zabilta AEKn eta Korrika bera ere ezagutzen duzu.**

Hasieran, AEK-ko kide guztion moduan, Korrika antolaketetan parte hartzen dugu; lehenengo, eskualde mailan, bakoitzari dagokionetan. Gero, eduki dut

aukera 21. Korrikan furgoneta-taldeetako kide izateko eta Euskal Herri osoa zeharkatzeko. 22. edizioan prentsa-taldeko kide izan nintzen. Badira Korrika bera bizi izateko hainbat modu. **Korrika... nola definituko zenuke?** Korrika zerbait bada, emozio-jai bat da, baina ezin dugu ahaztu, sarri, jai horretan gelditzen garela eta oso presente eduki behar dugula aldarrikapenerako ekimena dela. Euskararen inguruan antolatzen den Euskal Herriko ekimenik erraldoiena da. Gizarte osoa mugiarazten du eta muga bakarra hizkuntza bera da.

Koordinatzaile modura lehen Korrika duzu; zertan nabaritu du gidaritza aldaketa?

Bakoitzak bere aletxo jartzen dio. Azkenengo ikasturtean askotariko hausnarketak eraman ditugu aurrera. Euskara da guretzat erdigunea, baina badakigu *Harro herri* eta euskararen

"KORRIKAK GIZARTE OSOA MUGIARAZTEN DU ETA MUGA BAKARRA HIZKUNTZA BERA DA"

Harro herri hori sortzeko beste arlo batzuetan ere eragina eduki behar dugula. Ezin dugu ahaztu Korrikak bi helburu dituela: bata, euskararen kontzientziazioan suspertzea; eta bestea, AEKrentzat baliabide ekonomikoak batzea. Orduan, oreka hori mantenduta pauso txikiak egiten aurrera goaz. Euskarriari dagokionez, Korrika hurbildu ahala Euskal Herri osoa apaintzeko ardura hartzen dugu AEK-ko kideok, baina apainketa hori, sarri, plastikoz janztea dela iruditu izan zaigu. Horri aurre egiteko, materialak eta beste modu bateko apainketa batzuk sustatzen gabiltza.

Harro herri lelopean egingo da; zer esan nahi du ideia horrek?

Batetik, azpimarratu nahi izan dugu badela momentua euskaraz harro bizi nahi dugula eta bizi garela adierazteko. Harro, baina ez konforme. Ezin dugu ahaztu azaroaren 4an Kontseiluak deitutako manifestaldi hartan bildutako jende guztia. Hori da, gure ustez, badagoela gogo bat euskaraz *Harro herri* sortzeko. Gutako bakoitza ezberdina izan arren, norbere iritzi, pentsaera eta jokaerak izango ditu, baina hizkuntza berak batuko gaitu. **Omendua Azterketak Euskaraz da; Baxoa eta Brebeta azterketak euskaraz egiteko borrokan dabilzan ikasleei egingo diezue aitortza.**

Sarri, iruditzen zaigu hegoaldean Azterketak Euskaraz kolektiboaren borroka ez dela askorik ikusten edo ez dela ezagutzen. 23. edizioan iruditu zaigu momentu ona dela eurei aitortza egiteko, badelako borroka luze bat. 25 urte edo gehiago izango dira hasierako ikasle haiek planto egiten hasi zirenetik, hizkuntza eskubideen aldeko aldarrikapenen borrokan hasi zirenetik. **Zergatik Irun eta Baiona Korrika abiatu eta amaitzeko?**

Azkenengoa Donostian amaitu zenez, herrialde horretako herri batetik abiatzea da irizpideetako bat. Gipuzkoak Irun proposatu zuen. Irun bada Gipuzkoako bigarren herririk populatuen. Gipuzkoaren ezaugarria bada arnagune izatea Euskal Herrian,

"SAIATZEN GARA HERRI GEHIENETATIK PASATZEN; GUTXI GORABEHERA, 210 HERRI IGAROKO DITU"

baina arnagune horren barruan dena ez da urre. Horren adierazle izan daiteke Irun. Bada modu bat Korrika hasiera hango euskalgintza indartzeko. Helmuga-hiriburuak tartekatzen dira eta Baionari tokatu zaio.

Atzo ezagutu genuen ibilbidea; zein irizpiderekin osatzen duzue Korrikaren mapa?

Saiatzen gara ahalik eta herri gehienetatik pasatzen; gutxi gorabehera, 210 herri igaroko ditu. Badira irizpide batzuk bai ala bai bete beharrekoak edizio oro, hala nola, herrialde guztiak zapaltzea eta AEKren euskalgintza dagoen herrietatik pasatzea. Horrez gain, saiitzen gara, gutxienez, herrialde bakoitzeko eskualde guztiei keinutxo egiten. Batzuetan, zeharkatu; beste batzuetan, ukitutxo bat. Beti kontuan izaten da aurrekoan nondik ez ginen pasa edo noiz pasa ginen azkenengoz.

Debagoiengan, esaterako, Elgetatik Zaldibarrera heltzeko Aixelako urtegi ondotik joango da.

Ez da ohiko bidea, baina bertakoek proposatu dute. Guk beti esaten dugu: "Bertakoek esaten badute, eurek dakite ondoen".

Korrika Debagoiengan barrena

Martxoaren 14an abiatuko da Korrika, Irundik, eta birritan zeharkatuko du euskararen aldeko aldarriak bailara. Lehen aldiz martxoaren 20an sartuko da, eguaztena, Elosutik (06:37), eta Bergarara 07:36an heltzea aurreikusten da. Handik Elgetara (08:34) joango da eta Zaldibarrerako noranzkoa hartuko du.

Martxoaren 23an, zapatua, gauez pasako da bailaratik. Legutio aldetik helduko da Gatzagara (02:24) eta, ondoren, igaroko ditu Eskoriatza (02:37), Aretxabaleta (03:16), Arrasate (03:35) eta Oñati (04:34). Oñatitik Legazpirako bidea hartuko du, martxoaren 24an lekukoa Baionara heldu dadin.

Zenbait kasutan –Debagoienean, adibidez–, birritan pasako da.

Hemen bi egunez gozatzeko aukera egongo da. Aurrekoan, Oñati ez genuen ukitu, eta oraingoan pasako gara handik.

Zer da lekukoaren mezuaren bitartez bilatu nahi izaten dena?

Bilatzen dugu Korrika edizio osoa biribiltzea. Jendartean esaten dugu martxoaren 14tik 24ra dela Korrika, baina gu azaroaren 16an Korrika aurkeztetik gatzoz, bitartean eskaintza kulturala itzela izanda, Korrika beka, kantua ateratzen da, dokumentala aurkeztuko da... Sei hilabeteko ziklo moduan bizi dugu, eta guztia biribiltzeko pastelaren goiko txokolatetxo dela esan daiteke.

Baionan egingo da azken festa handia; zer aurreratu dezakezu?

Prestaketa lanetan gabiltza. Hango kideak ari dira buru-belarri. Espero dugu Donostia bete bezala Baiona ere betetzea.

Nola hartu daiteke parte Korrikan?

Kilometroak eskuratu eta korrika egitea izan daiteke modu bat, espaloitik txalo egin eta animatzea... Gure webgunean guztiak bilduta daude. Arropak ere atera dira, ekarpen ekonomikoak egiteko moduak asko dira: Korrika laguntzaile bihurtu, herriz herri antolatzen diren batzordeetan antolaketa lanetan aritzea... Sarri AEK-ko kideon esku geratzen den lana da, baina Korrika batzordeak ia herri guztietan sortzen dira.

Eta ekonomikoki, zertara bideratzen da batutako dirua?

1980an Korrika sortu zenetik, helburuek berberak izaten jarraitzen dute. Euskara-eskolak emateaz gain, praktika egitasmoak ditugu, aholkularitzak eta beste hainbat zerbitzu. Horiek guztiak patxadaz emateko eta zerbitzu egokia bermatzeko erabiltzen da baliabide hori.

Hamaika egun korrika; gero zer?

Kezka hori ere izaten dugu. Horretan badugu lana eta erronka. Azaroaren 4an herriak erantzun zuen. Orain, Korrika dator; gero, Euskaraldia. Guztion artean asmatu beharko dugu zikloka aritzeko eta indarra metatu eta erabiltzeko modua.

"GUZTION ARTEAN ASMATU BEHARKO DUGU ZIKLOKA ARITU ETA INDARRA METATZEKO MODUA"

Presoen "etxerako bidea" aldarrikatuko dute Bilbon

Urtarrilean Bilbon egin ohi duen euskal presoen eskubideen aldeko manifestazioan parte hartzeko deialdia egin du Sarek, 'Konponbiderako giltzak' lelopean; egun osoko egitaraua antolatu dute eta autobusak antolatu dituzte Debagoienetik Bilbora joateko

I.A.A. ARRASATE

Konponbiderako giltzak lelopean egingo da bihar Sarek deitutako manifestazioa. Arratsaldeko lauretan irtengo da, Casillatik, eta Sarek adierazi du helburua dela "milaka pertsonak giltzak hartzea euren eskuetan; presoen etxerako bidea, konponbidea eta bizikidetzara irekiko dituzten giltzak".

"Sakabanaketa politikaren amaieraren ostean", beste fase bati ekin zion Sarek, baina bailarako Sareko kide Txarli Garciak adierazi du fase berria ireki arren behin eta berriro ikusten dituztela oztopoak Espainiako Auzitegi Nazionaletik "euskal presoek etxerako bidea" garatzeko orduan: "Guk salatzen duguna da ez dugula ulertzen nola den posible espetxeko tratamendu-batzarrak [espetxeko organoa da; hango profesional guztiak elkartzen dira] presoen eboluzioa egin, presoak "berriro ere gizartera itzultzeko prest" dagoela dioen txostena egin eta Auzitegi Nazionalen 500 kilometrorra dagoen pertsona batek erabakitzea presoak berriro ere *de facto* kartzelara itzuli behar duela". Era berean, azaldu du Espainia dela Europako estatu bakarra ez duena kontuan hartzen beste herrialde batean betetako zigorra ondoren zigorra Espainiako Estatuan betetzerakoan.

Horrekin batera, "salbuespen legediak" bertan behera uzteko eskatzen dutela azaldu du Sareko kideak: "Orduko testuinguruak ez du zerikusirik egungoarekin, eta ikusten dugu aurrera egiteko ezinbestekoa dela lege berezi horiek ere bertan behera uztea. Argi utzi nahi duguna da gu ez garela ari pribilegioak eskatzen. Baizik eta nahi duguna da gainontzeko presoei aplikatzen zaien legea euskal presoei aplikatzea. Salbuespen legediak bertan behe-



Sarek iazko urtarrilerako antolatutako Bilboko manifestazioaren irudi bat. SARE

Autobusak Debagoienetik Bilbora

Debagoieneko zazpi herritatik irtengo dira Bilborako autobusak; aurrez, ordea, izena eman behar izan da. Manifestazioa arratsaldeko lauretan bada ere, Sareko kide Txarli Garciak debagoiendar guztiak animatu ditu goizean goizetik Bilbora bertaratzera, egun osoko egitaraua antolatu baitute. Honako hau da autobusen ordutegia, herririk herri: Arrasaten, ospitale ondoko autobus estazioa, 11:00etan eta 14:30ean; Bergaran, Torrequako geltokia, 11:00etan eta 14:30ean; Oñatin, Mondragon Unibertsitatearen egoitza, 10:00etan eta 14:30ean; Aretxabaletan, Azbeko geltokia, 11:00etan; Eskoriatzan, autobus geltokia, 10:45ean; Antzuolan, autobus geltokia, 10:45ean eta 14:15ean; eta Elgetan, herriko plaza, 14:45ean.

ra uztea eta presoei ere lege arruntaren aplikazioaren bidez etxeratze ibilbide horretan ere oztoporik ez egotea. Horrez gainera, aldarrikatzen dugu biktima guztiendako ere beharrezkoa den aitortza eta erreparazioa ematea".

Aurtengo leloa

"Guk ikusten dugu konponbidea aipatzen dugunean ere, gure ustetan, ezinbestekoa dela etorkizuna eraikitzeko eta aurrera egiteko gatazkak utzitako ondorioei ere erreparatzea eta nolabaiteko afera hori ere konpontzea. Ezinbestekoa ikusten dugu presoen aferari konponbidea ematea", dio Garciak *Konponbiderako giltzak* leloaz galdetuta.

Hori guztia lortzeko "ezinbesteko" ikusten ditu, baita ere, euskal gizartearen protagonismoa eta, horren baitan, herri aktibazioa: "Kasu honetan ere, sakabanaketarekin amaitu genuen bezala, ezinbestekoa da euskal instituzioak zein gizartea eskutik joatea aurrera egiteko".

2021eko urria ezkerro, Eusko Jaurilaritzak du EAEko espetxeen kudeaketaren eskumena. Baikor agertu da Sareko kidea, kudeaketa "profesionala" egiten ari direla iritzita, baina azpimarratu du faltan igartzen dutela euskal instituzioek ere Auzitegi Nazionalaren erabakien aurrean "ausardia pixka bat" erakustea.

Debagoieneko egoera

150 euskal presoetatik debagoiendarak lau direla esan du Garciak: Joseba Arregi oñatiarra –32 urte preso, kondena hiru laurdenak beteta, bi aldiz jasan du gradu erregresioa–, Marixol Iparragirre eskoriatzarra –19 urte preso, horietatik 15 Frantziara–, Garikoitz Garcia aretxabaletarra –13 urte preso, zigorraren erdia beteta– eta Unai Parot arrasatearra –34 urte beteko ditu espetxean, 7/2003 Salbuespen legea, hil arteko kartzela zigorra–. Jose Manuel Pagoagaren eta Eugenio Barrutiabengoren kasua ere aipatu du: "Arrasateko iheslariak hamarkadak daramatzate EHTik kanpo, eta aterabide bat eman behar zaie. Linbo batean daude, ez dakite zein den euren egoera juridikoa; Auzitegi Nazionalak ez du ezer argitzen".

"Urteotan egindakoaren emaitza da Kontseilua"

MIREN TXURRUKA MUGIMENDU SOZIALISTAKO KIDEA

Balorazio "positiboa" egiten du Miren Txurrukak, Astelena pilotalekuan eta Arrasaten abenduan egin ziren Euskal Herriko Kontseilu Sozialistaren aurkezpenen gainean

Julen Murua Mesonero BERGARA

Abenduaren 16an aurkeztu zuten eratu berri den Euskal Herriko Kontseilu Sozialista, Eibarko Astelena pilotalekuan, eta 30ean egin zuten eskualde mailako aurkezpena, Arrasaten. Horren harira, Miren Txurruka Mugimendu Sozialistako kidearekin egin du hitzordua GOIENAK, kontseiluaren eraketaren inguruan hitz egiteko eta Debagoiengan Mugimendu Sozialistaren egoera zein den ezagutzeko.

Zer balorazio egiten duzue aurkezpen egunaz?

Oso balorazio positiboa egiten dugu. Jende aldetik zein eduki aldetik oso-oso indartsua izan zen aurkezpena. Era berean, balorazio positiboa egiten dugu ikusten delako orain arte egindako lanak zer-nolako emaitza eman duen. Ez da hutsetik eginiko aurkezpen bat. Mugimendu Sozialistak badauzka urte batzuk, eta orain arte zeuden kontseiluen aurrerapauso bat da.



Miren Txurruka, Mugimendu Sozialistako kidea. LARRAITZ ZEBERIO

Mugimendu Sozialistak egin duen beste urrats baten inguruan ari gara, beraz.

Bai, hori da. Erreferentziazko antolakunde baten sorrera da. **Zerk bultzatu zaituzte Kontseilu Sozialista eratzera?**

Gaur egungo testuinguruak. Krisi egoera bat da, langileria- antolakuntzaren forma independenterik gabea, langileen interesak defendatzen dituen alderdi politikorik gabea. Horrez gain, aurrerapauso hau ema-

tearen zergatia ere bada orain arte Mugimendu Sozialistan egon diren lerro ezberdinetatik harago joan nahi izatea, eta, horretarako, antolakunde integral bat sortzeko beharra ikusi genuen.

Zeintzuk dira egin nahi dituzuen lehenengo urratsak?

Estatu Sozialistaren eraikuntzaren bidean, baliabide ideologikoak eta politikoak jartzen ditugu, eta, horretarako, norabide estrategiko bat diseinatu dugu. Hain zuzen ere, zazpi puntuz osatutako proposamen politiko bat egin dugu, gai hauek lantzeko: gerra imperialistaren aurka egitea, faxismoaren aurka agertzea, kalitatezko bizi baldintza unibertsalak aldarrikatzea, ekosistemen suntsiketaren aurrean txikizioa gelditzea, estatu zapaltzaileen aurrean autodeterminazioa eskatzea euskal langileriarantz, emakume langileak lehen lerroan izatea eta langileria-aren militante politikoztat amnistia eta aitortza eskatzea.

Zein da Mugimendu Sozialistaren egoera bailaran?

Handitzen doa sortu zen unetik. Gaur egun, bailarako herri guztietan dago militantzia. Nik urte batzuk daramatzat eta ikusi dut nola joan den jendea batzen. Mugimendu Sozialista gehienbat gazte osatutako mugimendu bat da, baina Kontseilu Sozialista ezberdina da; izan ere, belaunaldien arteko oztopoa gainditzen du eta belaunaldi

askotariko jendeak militatzeko toki bat da, ez bakarrik gazteek. **Besteak beste, Guda Zelaia izeneko jardunaldiak antolatu dituzue bailaran; zein helbururekin?**

Guda Zelaia antolatzen dugun hirugarren urtea da. Orain dela urte batzuk sortu zen *Ekida* – Mugimendu Sozialistaren baitan sortutako kultur taldea –, eta kultura zein arte sorkuntza izan dira, alde batetik, hausnarketarako puntu eta, beste alde batetik, klase borroka islatzeko elementuak. Horri erantzuten, eskaintzen dugu aukera bat kulturaren inguruko hausnarketak emateko.

Aurrerantzean, zer?

Kontseilu Sozialista sortu da eta Euskal Herri mailan eragiteko asmoa dauka. Urte amaieran egin genituen herrietako aurkezpenetan azaldu genuen, alde batetik, zazpi puntuen proposamen politikoa, beste alde batetik, hitz egin zuten bailaran dauden lan-lerroetako kideek: etxebizitza sindikatuko, laneko autodefentsa sareko eta kontseiluko kide banak. Etorkizunera begira, kontseilura batzeko gonbita luzatu nahi diegu antolatzeko interesa duten pertsoneri.

"BELAUNALDIEN ARTEKO OZTOPOA GAINDITZEN DU KONTSEILU SOZIALISTAK"

Aste Santura arteko egitaraua iragarri du Goienagusi elkarteak

Urtariletik martxo erdialdera arteko kultur eskaintzak antolatu ditu elkarteak bailarako hainbat herritan

J.M.M. DEBAGOIENA

Debagoiengan jarduten duen irabazi asmorik gabeko kultur elkarteak da Goienagusi, eta 55 urtetik gorako pertsoneri zuzendutako zerbitzua eskaintzen du. Elkartearen helburu nagusia da pertsona nagusiei topagune bat eskaintzea "zahartze prozesu hobea goa eta luzeagoa, aktiboa, osasungarriagoa, kulturagoa eta parte hartzaileagoa" edukitzeko.

Hori lortzeko, dagoeneko iragarri dituzte 2024ko urte hasierako lehenengo kultur ekitaldiak.

Ekintza horien artean hitzaldiak dira nagusi, baina, horrez gain, bisitak eta mendi ibilaldiak ere egingo dituzte.

Hitzaldiak eta bestelakoak

Arrasaten, Bergaran eta Oñatin egingo dira Goienagusiko hitzaldiak, Kulturaten, Seminari- xoan eta Santa Ana antzokian, hurrenez hurren. Hitzaldi guztiak astelehenetan eta eguaztenetan izango dira, goizeko hamarretan hasita. Urtarilean lau hitzaldi egingo dituzte: *Emakume abertzaleak XX. mende hasieran* eta

Salud global: El desafío frente a la amenaza medioambiental Arrasaten, *La toxicidad de las plantas* Bergaran eta *Comer bien: Salud, bienestar y calidad de vida* Oñatin. Otsailerako iragarri dituzten hitzaldiak dira *Francisco Javier Landaburu: euskal abertzale baten ibilbidea* Bergaran eta *Lurrikarak eta erupzioak: Geologiarekiko jakin-mina pizten denean* Arrasaten; eta martxoan egingo dituztenak dira *Emakumeak zientzian, izar iheskorak baino gehiago* Arrasaten eta *¿Nos gustaría ser enjuiciados por una máquina? No está claro que sea una buena solución* eta *La prevención del suicidio en los adultos mayores: Un tiempo para la acción* Bergaran.

Gainera, Arantzazun ibilaldia egingo dute eta EITB eta Itsas- museum bisitatuko dituzte.



MIREN ARREGI

Nikolas Seguroleari azken agurra

Abenduaren 30ean hil zen Nikolas Segurola, 84 urte zituela, eta hilaren 3an elkartu ziren erakundeetako ordezkariak, fraideak, Segurolearen senitartekoak eta lagunak hari azken agurra emateko, horren estimatua zuten Arantzazuko Santutegian. Elizkizunaren amaieran, Sebastian Lizasok, Andoni Egañak eta Xabier Euzkitzek bertso bana abestu zuten.



Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatearen fatxada. J.M.M.

Unibertsitatea birgaitzeko lanen berri eman dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak iragarri du Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatea birgaitzeko lanean hasi direla, haren egoera "kezkarria" konpontzeko; eraikinean egingo diren lanek hiru milioi euroko kostua izango dutela aurreikusten dute

Julen Murua Mesonero OÑATI

Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatea birgaitzeko lanak hasiko dituela jakinarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako diputatu Azahara Dominguezek jakinarazi duenez, aurten "proiektuaren erredakzioaren lizitazioa martxan" jarriko dute, hori baita "erakinak birgaitzeko behar dituen lanei ekin ahal izateko egin beharreko lehen urratsa".

1993an izan zuen unibertsitateak azken birgaitze integrala, Pablo Borde arkitektoaren eskutik. Orduetik gaur egun arte, hogeitau urte igaro dira, eta denbora honetan guztian zehar 60 esku-hartze baino gehiago egin dira mantentze-lanetarako. Lan horiek aurrera eramanez, eraikinaren fatxadak etengabeko hondatzea izan du, eta horren erakusle da 2022ko udan fatxadatik harrizko hainbat elementu apaingarri erori zirela.

Dominguezek arabera, orduetik aurrera hasi zen birgaitze prozesuan lanean Aldundia: "Arriskuak gutxitzeko fatxada sareekin segurtatu ondoren, narriadura horren arrazoiak azterketa zehatza hasi, eta orain, jarduketaren proposamen bat dago mahai gainean". Diputatuak adierazi duenez, prozesu horrek guztiak hiru milioi euroko aurrekontua izatea espero du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Erabilera herrira zabaltzea

2022ko udan unibertsitateko fatxadako elementu bat erori izanak "kezka" sortu zuen Oñatiko Udalean, Izaro Elorza alkateak azaldu duenez, eta hasieratik "Aldundiarekin harreman-

netan" jarri ziren, ahalik eta erantzun azkarrena eta egokiena eman ahal izateko eta aurrerantzean egin beharrekoak adosteko. Nahiz eta ofizialki Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikina den, Elorzak adierazi du "herritarren eraikin bezala" kontsideratzen dutela.

Alkateak aitortu du Udalak baduela nahi bat, eta hori dela unibertsitatearen erabilera herrira zabaltzea: "Herritarrei eraikina urtean zehar aprobetxatzeko aukera eman nahi diegu". Erabilera hori bermatzeko, proiektu pare bat ditu buruan Udalak: alde batetik, "Turismo Bulegoaren egoitza hara eramatea", eta, bestetik, "unibertsitateak duen berezko izaera ematea eta ikasketa-gelak sortzea". Oraingoan, baina, bi proiektu horiek geldirik daude; izan ere, dirulaguntza baten ebazpenaren zain daude bai Udala eta baita Aldundia ere, egin beharreko hurrengo urratsak zeintzuk diren jakiteko.

BIRGAITZE LANEK HIRU MILIOI EURO INGURUKO KOSTUA IZANGO DUTELA AURREIKUSI DUTE

Hamalau edukiontzi erre dituzte Arrasaten eta Aretxabaletan

Hilabeteko epean egin dituzte erreketak, eta Mankomunitatean 12.547,55 euroko kostua izan dute

J.M.M. ARRASATE

Abenduaren 3a eta urtarrilaren 3a bitartean hamalau edukiontzi erre dituzte Arrasaten eta Aretxabaletan; hamar eta lau, hurrenez hurren: ontzi arinen bost edukiontzi, paperaren eta kartoiaren bost edukiontzi, organikoaren bi edukiontzi eta errefusaren beste bi edukiontzi.

Debagoieneko Mankomunitateak adierazi duenez, "nahita eta modu errepikakorrean" eginko ekintzak izan dira, eta Mankomunitateari sortutako kostu ekonomikoa "oso handia" izan dela adierazi du: zehazki, 12.547,55 eurokoa –BEZ barik–.

Kalteak, ekonomikotik harago

Arlo ekonomikoan eta logistikokoan ekarri duen kalteaz harago, Mankomunitateak adierazi du "inguruko ibilgailu, etxebizitza eta bizilagunengan arrisku han-



Edukiontzia erreta iaz, Arrasaten.

dia" sor ditzaketela ekintza horiek, nahita piztutako suak "kalte handiak" sor ditzakeelako edukiontzi inguruetan.

Egoera horrekin lotuta, Mankomunitateko ordezkari politikoei herriarrei "arduraz jokatze" eskatu diete.

Baserri inguruetako plastiko bilketako egutegia finkatu dute

Baserri inguruetako plastikoa biltzeko egutegia zehaztu du Debagoieneko Landa Garapenak, aurrez finkatutako guneetan. Guztira, bederatzi bilketa egun izango dira aurten: urtarrilak 23; otsailak 27; martxoak 26; maiatzak 28; uztailak 23; irailak 24; urriak 22; azaroak 26; eta abenduak 17. Arratsaldeetan atera behar da, baina, finkatu

gabeko guneetan jaso nahi izanez gero, 943-76 25 47 telefono-zenbakira deitu behar da.

Bilketa-guneak lau herritan izango dira: Aretxabaletan, Lausittan, Baintxen eta Oroko bidegurutzean; Antzuolan, ekarpen-gunearen ondoan; Oñatin, Musika Eskolaren gainaldean, Zañartun, Murgialdain eta Olabarrietan; eta Bergaran, San Juan auzoan, Ugarrixan eta Muinondon. Belar boletako eta berotegiak edo ortuak tapatzeko plastikoa batuko dute.

Langabeziak behera egin du Debagoiengan urtebeteko epean

2023ko abenduko langabeziaren datuen berri eman du Gipuzkoako Lan Behategiak, eta, datuek adierazten dutenaren arabera, langabeziak behera egin du urtebeteko epean Debagoiengan. 2.348 pertsona daude lanik gabe bailaran; duela urtebete baino 75 gutxiago, hain zuzen ere. Hori dela eta, langabezia-tasa ere baxuagoa da: %7,65ekoa da, eta 0,23

puntuak jaitsiera izan du urtebetean. Hala ere, ez da joera argia izan, gorabeherak egon baitira 2023an: martxoan, apirila, maiatza, ekaina, uztaila, iraila eta azaroa, esaterako, langabe gutxiagoko hilabeteak izan dira.

Idoia Mendia Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu sailburuak azaldu du "langabeziak behera" egin duela Euskadin sektore eta adin guztietan, emakumeen eta gizonen artean, eta horiek "enplegu portaera bikaina islatzen duten zifrak" direla.



ZABALIK

ANAJE NARBAIZA

Bakea egiteko gosea

Ez dago ulertzerik munduko agintarien eskutik egun gertatzen ari den zurikeria. Duela 75 urte, juduek nazien eskutik sufritu zuten sekulako genozidioa. Gerra galdu ostean, mundu guztiak Hitler egin du gertatutakoaren errudun eta 2000. urtean Alemaniak jakin zuen barkamena eskatzen juduen aurrean.

Baina 2023ra iritsi gara, eta nork esango Netanyahu judu sionistak hartu duela haren txanda genozida askoren artean lehen ilara eskuratzeko. Izan ere, herri juduari egin ziotena orain hura burutzen ari da, are bortitzago, palestinar herriaren aurka. Baina ulertezina da Alemaniak –eta Austria– ikusita zer gertatzen ari den babestu egiten duela genozidio berri hau, eta, zalantza barik, Israelgo Gobernuak daraman erailketa indiskriminatuaren aurrean ez duela babesa erretiratzen. Badirudi Alemaniak kontzientzia

GANADUARI PENTSUA BEZALA, EGUNERO INTERESATZEN ZAIEN KONFLIKTOA AZALTZEN DIGUTE

arazoak daukela bere egunean gertatutakoagatik, baina, akaso, pentsatzen du hemendik 50 urtera barkamena eskatuta egungo palestinarren sufrimendua gutxituko duela? Zoritxarrez, ez da munduan dugun konflikto bakarra:

Sahara, Hego Sudan, Irak, Libano, Nigeria, Siria, Kongoko Errepublikak Demokratikoa, Kamerun, Yemen, Ukraina, Somalia, Burkina Faso, Myanmar, Etiopia... Batek daki zenbat. Baina zergatik horrenbeste konflikto? Ez da, horraitio, kontzientzia arazoa, ez horixe, interes ekonomikoena baino. Azkenean, armen industriak agintzen du eta Ameriketako Estatu Batuak eta Europa mendebaldea –tartean, Estatuak– eskutik doaz konfliktoak sustatzen industria armamentistaren kontura aberastu eta *progresoa*-ren izenean, beraien intereseko teknologietan berrinbertitzea.

Ganaduari pentsua bezala, egunero interesatzen zaien konfliktoa azaltzen digute: duela urtebete, Ukrainakoa; orain, Gazakoa; bihar... Aukeratzeko daukate, baina ez dute konponbideez hitz egiten, lotsagarri geratzen direlako. Gerra egiteko goseaz asko dakigu, baina orain, bakea egiteko gosea daukagu.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



GUTUNAK

Lortutakoa ospatzen dugu; falta dena lortuko dugu

ITZIAR USANDIZAGA

DEBAGOIENEN PENTSIODUNEN
MUGIMENDUAREN IZENEAN
DEBAGOIENA

Urteetan pentsiodunak modu txarrean tratatuak izan ondoren, Fatima Bañezek pentsioetan %0,25eko igoera aginduz eskutitza bidali zigun.

Horrek bazterrak harrotu zituen eta milaka pentsiodun kalera irten ginen borrokatzera.

Sei urte geroago, hala jarraitzen dugu.

Aldarrikapen asko lortu ditugu. Izan ere, aurtan

izango dugun %3,8ko igoera gure borroka lortu du.

EHPMkoek, eguraldi txarra zein ona izan, astelehenero plazetan gaude, pentsio publikoak, duinak, bidezkoak eta guretzako eta hurrengo belaunaldientzako nahikoa izan daitezen eskubidearen alde borrokan.

Harro gaude bidezkoa den aberastasunaren banaketaren aldeko borroka egiteaz eta erakunde sozialekin eta sindikatuekin partekatzeaz.

Baita soldatak, pentsioak eta zerbitzu publikoak hondatzen dituzten politika publikoak aldatzeko erreferente garrantzitsua izateaz ere.

Osasun publikoari eta mendekotasuna artatzeko zerbitzu soziosanitario publiko komunitarioei laguntzeko mobilizazioetan parte hartzen jarraitzen dugu; langileen soldatak eta lan-baldintzak hobetzeko borrokei elkartasuna adierazi diegu.

Euskal Herrian gizarte mobilizaziorako erreferente izatea lortu lortu izana eta Estatuko beste herri eta erkidego batzuetako pentsiodunen elkarteekin mobilizazioak partekatzea ospatzen dugu.

Mila arrazoi ditugu ospatzeko.

Beste mila arrazoi borrokan jarraitzeko.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura),
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Eskerrik asko!

ARANTZA URIARTE

ARRASATEKO ERREGE KABALGATAKO
BATZORDEAREN IZENEAN
ARRASATE

Arrasateko Errege Kabalgatako Batzordeak eskerrak eman gura dizkie Udalari, Udaltzaingoari, Obretako Brigadari, Gurutze Gorriari, Eroskiri, Laboral Kutxari eta Kutxari, bai eta eguraldi txarra egin arren kabalgatan parte hartu duten herritar guztiei. Haien ekarpenak beste urtebetez haur eta adineko guztien ilusioa mantentzen lagundu du. Eskerrik asko denoi!

Zaindu mendia

JON UGARTE

ARAMAIO

Norvegiako Statkraft enpresak begiak jarri ditu Aramaioko herrian, eta Durakogain-Asensio mendien inguruan zortzi haize-errota erraldoi jaso nahi ditu. Horretarako, erakundeen eta bailarako enpresa batzuen laguntza du, baina Aramaioko Udala eta herritarren oposizioa ere bai. Ez da gure bailaran agertu zaigun munstro bakarra: AHTaren lanek Bolinburuko arroa erdibitu eta Asensio mendia lur azpitik zeharkatzen dute. Orain, berriz, Asensio mendi gainean beste megaproiektu bat garatu nahi dute. Bizilagun xelebreak: batetik, energia eta CO2 isuri handiak behar dituen tren

azkarra; eta, bestetik, nonbait, CO2 isuriak murrizteko zentral eolikoa.

Denok ditugu gure kontraesanak; nik ere bai. Gure bizimoduari eusteko energia handia behar dugu; CO2 kantitate handia isurtzen dugu eta kliman aldaketa bortitzak eragiten ditugu. Arazo honi ganoraz heldu eta aldaketa sakonak behar ditugu. Aitzitik, egoera hau enpresa batzuentzat negozio aukera paregabea da; energia sortu eta saltzen dutenentzako, bereziki. Noski, erakunde publikoen laguntza estimagarriarekin. Hau da, arazoa konpondu beharrean, etekin ekonomikoa atera egoerari.

Dagoeneko 20 urte joan dira Eolicas de Euskadi enpresa publiko-privatuak Artia mendian (Debagoiena eta Arabako Lautadaren arteko mugan) EAeko lehen zentral eolikoa eraiki zuela. Ondoren, Oiz (Bizkaia) eta Badaia (Araba) etorri ziren. Orduan zabaldu genien energia-enpresei gure mendietako ateak, eta orain ezin itxi. Euskal mendietan eraiki ziren hiru zentral eoliko horiek ez dute konpondu gure energia/isuriaren arazoa, ezta arindu ere, eta ingurumen arazo berriak sortu dituzte.

Orduko eta oraingo zentral eolikoek helburua ez da ingurumen arazoei aurre egitea –hori aitzakia hutsa da–, baizik eta energia-enpresa batzuen gosea asetzea, eta, bide batez, erakunde eta enpresa batzuen

estrategia *jasangarria* saltzea. Berdez eta sozialez makillatzen dute euren aurpegia.

Aramaioko Udalak, prozesu baten ondoren, ezetz erantzun dio Durakogain-Asensio zentralari, eta orain, aramaiorrok ere, gure sinadurekin, ezetza esateko aukera dugu. Bila ditzagun, denon artean, gure ingurumen arazoak konpontzeko beste bide batzuk. Zaindu ditzagun gure mendiak.

Eskerrik asko! Goazen haratago!

EÑAUT MUXIKA OLASAGASTI

AED ELKARTEAREN LEHENDAKARIA
ARRASATE

Neke puntu gozo batekin bukatu genuen 2023a, eta ez zen gutxiagorako. Elkartearen 40. urteurrenaren ezohiko ahalegina eskatu zigun AEDko kideoi, baina merezi izan zuela ezin uka.

Eskerrik beroenak eman gura dizkizuegu urteurrenaren harira antolatu ditugun ekintzetan parte hartu duzuen euskaltzaleoi, eta, zer esanik ez, horiek aurrera eramateko lanean eta laguntzen aritu zareten bazkide, eragile zein erakundeoi.

Urteurrenaren ospakizunari helburu bikoitza jarri genion: izan zedila parada lau hamarkada hauetan egindakoa balioan jartzeko eta bultzada etorkizunerako. Harreman sareak zabaldu, lankidetzak sakondu, bazkideekin hartu-emanak sendotu... Guztietan ez

genuen asmatuko nahi beste; bidea urratu dugu, halere, eta horretan jarraitzeko gogo, ilusio eta arrazoirik ez daukagu faltan.

Arrasate herri euskaldun, parekide eta kohesionatua izateko amesten eta lanean jarraituko dugu, eskua luzatuz amets horrekin bat egiten duen orori.

Konponbiderako giltza

TXARLI GARCIA

DEBAGOIENeko SAREREN IZENEAN
DEBAGOIENA

Bi hilabete igaro dira Gernikan *Konponbiderako giltza* manifestua aurkeztu genuenetik. Ez dira gutxi izan ordutik hona jasotako atxikimenduak eta ekarpenak. Kulturgileen, sindikalgintzaren eta legelarien atxikipenaz gain, 2.000 norbanakok baino gehiagok egin dute oraingoz bat manifestuarekin, eta, oraindik ere, giltza gehiago izatea da gure helburua, giltza gu geuk izan behar baitugu. Konponbiderako giltza.

Ateak zabaltzen gabiltza, beste ate batzuk betiko zarratu ahal izateko. Urteetan itxita izan diren ate ugari zabaltzeko bidea izan gara. Gutako bakoitza, bere txikitasunetik, eginiko urrats txiki bakoitza bide egiteko bide izan delako.

Urruntze politika amaitzearekin batera espetxe politikaren baitan aldaketak gertatzen ari bagara ere, behin

eta berriz euskal presoek etxerako bidea itxita dutela salatzea dagokigu oraindik. Izan ere, Fiskaltzak, Auzitegi Nazionalaren laguntzarekin, legedi arruntaren ezarpenaren aurrean oztopoak jartzen jarraitzen du.

Salbuespenezko legediek eta albuespenezko epaitegiak giltzarrapo izaten jarraitzen dute, baina bidean aurrera egiteko prest gaude. Urratsak egiten jarraitzeko unea da, konponbidearen eta benetako bake baten aldeko konpromisoa erakutsiz. Salbuespena lege den bitartean, oraindik giltza ugari astindu behar ditugulako, hasitako pausooi jarraiki, atariraino bide egiteko unea da. Salbuespenaren giltzarrapoa irekitzeko unea da.

Esperantza hitza gure elkarrizketara itzuli da, urte luzeetan giltzapean bahiturik egon ostean. Elkarlanean jarraituz gero, etxera bidea gertu egon litekeen itzaropena.

Jarrai dezagun ateak zabaltzen, albuespenari ere zirrikitu oro zarratzeko.

Datozen egunetan ere milaka giltza izanen gara. Giltzak astinduko ditugu kaleetan, fabriketan, erakundetan... eta giltzen olatu bihurtuko dugu Bilbo urtarrilaren 13an, 16:00etan Casillatik irtenda.

Bidean aurrera goaz. Etorkizunaren atea zabaldu eta iragana zarratzeko giltzarria gara. Lortuko dugu! Gari Atxabaltara!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





lazgo zuhaitz landaketa, Etxezarretan. GOIENA

Urtarrilaren 20an egingo dute Zuhaitz Eguna

Ohi moduan, zuhaitz azokaz gain, landaketa ere egingo dute Etxezarretan. "Edizioz edizio egonkortzen eta indartzen joan den feria izan da Arrasateko Zuhaitz Egunkoa, urtez urte erreferentzialtasuna irabazten joan dena", azaldu du Udal Gobernuak

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Zuhaitz Egunaren baitan, azken urteetan ehunka zuhaitz landatu dituzte Arrasaten, "herritarren parte-hartzea eta naturarekiko konpromisoa bilatuz", Garazi Etxeberria Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasun zinegotziak nabarmendu duenez. "Gizakiak eragindako klima-aldaketari hainbat esparrutatik eragitea ezinbestekoa da, baita biodibertsitatearen eta basogintzaren eredutik ere. Horregatik, etorkizunera begirako herrigintza ariketa arduratsua da Zuhaitz Egunean egiten den landaketa herrikoia, eta herrigintzatik egin daitekeenaren erakusle da".

Aurten, 1.621 zuhaitz enkargatu dituzte Etxezarretako herri lurretan landatzeko, eta, urtarrilaren 20an guztiak landatzea lortzen ez badute, hurrengo astean landatuko dituzte, Gipuzkoako Aldundiaren programa bati esker. 1,5 hektareako azalera prestatu dute aurtengo landaketarako, eta, proba bezala,

mintegitik ekarritako tamaina txikiko landareak -30-40 zentimetro- landaketa-marko estuan landatuko dituzte.

Parte-hartzaileak Musakolako San Isidro elizatik abiatuko dira, 10:00etan, eta, parte hartzeko, 943 25 20 05 zenbakian eman beharko da izena. Gomazko katiuskak eramatea gomendatu dute antolatzaileek, eta landaketa amaitzean luntx txiki bat egingo dela aurreratu dute.

Laugarren urtez, Etxezarretan

Etxezarretak garrantzi handia dauka biodibertsitatearen ikuspegitik, eta egindako biodibertsitate azterketak ondorioztatu zuten birsortze naturala oso ona dela. Aurten, honako espezie

ZUHAITZ LANDAKETAN PARTE HARTZEKO, 943 25 20 05 ZENBAKIRA DEITU BEHARKO DA, ETA IZENA EMAN

hauek landatzea aurreikusten dute: 406 haritz (*Quercus robur*), 243 gaztainondo (*Castanea sativa*), 324 otsalizar (*Sorbus aucuparia*), 243 gorosti (*Ilex aquifolium*), 243 elorri (*Crataegus monogyna*) eta 162 zuhandor (*Cornus sanguinea*).

Azokan, sei mintegi

Zuhaitz azoka Seber Altube plazan egingo dute, 08:00etatik 14:00etara, hileko hirugarren zapatuetan egiten den bertako produktuen azokarekin batera. Honako hauek dira aurten parte hartuko duten sei mintegiak: Areitio (Zaldibar), Belar (Zaldibar), Etxeberria (Gatika), Lurberri (Zarautz), Ekoudalatz (Arrasate) eta Euskal Herriko Hazien Sarea (Gasteiz).

Hala, fruta-arbolak, koniferoak, basoko landare autoktonoak, lorategiko landareak eta basoko fruitu txikiak egingo dira salgai, eta, gainera, bi zuhaitz-sorta zozketatuko dituzte erosleen artean.

Biztanleen Arreta Zerbitzuak ordutegi berria izango du aurten

Aurrerantzean, 07:30etik 15:00etara egongo da zabalik astelehenetik egubakoitzera; eguenetan, 18:30era arte

E.A.B. ARRASATE

Udal Gobernuak 2023ko bigarren seihilekoan azterketa bat egin zuen BAZen inguruan. Azterketa hark zioen erabiltzaile gehienek goizean erabiltzen dutela zerbitzua, eta, neurri handi batean, laguntza eskatzen dutela zalantzak argitzeko. "Gainera, ikerketak erakusten du zerbitzua egun osoan zabalik izateak eragina duela zerbitzuaren efizientzia faltan, eta Arrasateko ordutegia salbuespena dela Gipuzkoa osoan", dio Gobernuak.

Horri erantzunez, aurrerantzean, 07:30etik 15:00etara egongo da irekita BAZ, astelehenetik egubakoitzera. Salbuespen gisa, eguenetan 07:30etik 18:30era emango du zerbitzua eta zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara.

Bestalde, bulegoko eredu horizontala ezarriko dute, langileen eta herritarren artean maila

fisikoa ezabatuz. "Erregistroak egin ahal izateaz gain, gura duguna da herritarren lagunduko dion zerbitzu eredura gerturaztea", dio Gobernuak.

EAJ ez dago ados

EAJk "desadostasuna eta kezka" azaldu ditu ordutegi berriaren aurrean. "Ordutegi berriak 524 orduko murrizketa dakar; hau da, %22,5eko murrizketa zerbitzuaren erabilgarritasunean. Zehazki, 2023an zerbitzu hori 227 arratsaldetan zegoen eskuragarri eta 2024an, berriz, 45 arratsaldetan soilik egongo da irekita", diote. Jeltzaleen ustez, "ulertezina" da 2022an udalbatzak aho batez finantza-erakundeei leihatilak mantentzeko eskatu ostean Udal Gobernuak "zerbitzu publikoa murriztea" erabaki izana. Hala, eskatu dio erabaki hori berriz aztertzeko.

Beste zebra-bide bat egingo dute Iluntz tabernako terraza ondoan

Otalora Lizentziaduna eta Ignacio Zuloaga kaleen arteko irisgarritasuna hobetuko du oinezkoentzako pasabideak

E.A.B. ARRASATE

Zebra-bide argizatua jarriko dute bi kaleen artean, "gidariari oinezko bat hurbiltzen dela ohartarazteko", Udal Gobernuaren esanetan. Era berean, lorategiko berdegunearen zati bat kenduko dute, oinezkoentzako espaloi bat sortzeko eta edukiontzietarako irisgarritasuna hobetzeko. "Inpaktua leuntze aldera, zabalguneko horri zuhaitz bi gehituko zaizkio".

Udal Gobernuak dioenez, ikusi dute herritar batzuek errepide "puntu desegokietatik" gurutzatzen dutela eta "segurtasun arazoak" sortzen dituztela. "Gainera, bizilagunak behartuta daude itzulunguru bat egitera zaborra botatzeko, erdiko irlatxotik baino ezin baita zaborrontzia erabili. Horri dagokionez, irlatxoan dauden edukiontzietarako sarbidea hobetu nahi da,

inguratu beharrik edo gurutzatze desegokirik ez izateko".

Horregatik, inguruan bizi diren herritarrek eskatua zuten gune hartan zebra-bidea egitea. "2022an azterketa egitea ontzat eman bazen ere, 2023ko aurrekontuek ez zuten aurreikusten zebra-bidearen exekuzio obrarik. Udal Gobernu berriak, kreditu aldaketaren bitartez, zebra-bide berria egitea bideratu du", adierazi du Kepa Urteagak, Auzoen eta Obra, Zerbitzu eta Mantentze Saileko zinegotziak.

Udarako prest egongo da

Proiektuak 98.048,57 euroko aurrekontua du. Jada lehiaketa fasean dago, eta eskaintzak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 16a da. Gero, enpresak zortzi asteko exekuzio epea izango du. Obrak 2024ko lehen seihilekoan egitea aurreikusten dute.

Etxe Txikietako argazki eta dokumentuen bila

Aurtengo ekainean 100 urte beteko dituzte Etxe Txikiak, eta, aitzakia baliatuta, horien historia jasotzen ari da Arrasate Zientzia Elkarte. Era horretan, argazki zaharrak edo dokumentuak dituzten herritarrei eskatu diete haien lokaletik pasatzeko (Ferrerias, 28)

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasateko Udalak 1924ko ekainaren 2an eman zion Union Cerrajerari Etxe Txikiak eraikitze baimena, eta aurtun, beraz, 100 urte beteko dira orduko hartatik. Aitzakia baliatuta, Arrasate Zientzia Elkarte Etxe Txikien historia jasotzen ari da, artxiboan arakatuz eta bizilagunak elkarrizketatuz. Horrekin batera, herritarren laguntza ere behar dute. "Etxe Txikien inguruko argazkirik edo dokumenturik daukatenei eskatzen diegu gurekin harremanetan jar daitezela. Gero, itzuli egingo dizkiegu", azaldu du Jabier Bengoak, elkarteko kideak. Batez ere, hasierako urteetan etxe horietan bizi izandakoen dokumentuak eta argazkiak gura dituzte, elkarteko kide Juan Ramon Garaik gaineratu duenez.

Garai bera etxe horietako batean jaioa da, eta azaldu du Union Cerrajerako langileentzako eraiki zituztela etxeak, garai hartan Betasolo izeneko zelai bat zegoen lekuan. "Udalak pozez hartu zuen Union Cerrajeraren eskaria, garai hartan errepide nagusia eta errearen beste aldea, tren geltokia zegoena, ez baitzeuden lotuta. Modu horretan, Union Cerrajerak egin zituen errepidea eta zubia".



Juan Ramon Garai eta Jabier Bengoa, Etxe Txikietan. E.A.B.

Ez txikiak, ez merkeak

Etxe Txikiak izena hartu zuten arren, garai hartarako ez ziren batere etxebizitza txikiak, 72 metro karratukoak baitziren, 36 metro karratuko bi solairukoak, hain zuzen. Merkeak ere ez ziren. "Hilabeteko kuota 30 pezetakoa zen eta langile batek egunero 5 pezeta irabazten zituen. Beraz, astebeteko soldata errenta ordaintzeko", nabarmendu du Garaik.

Bengoak, era berean, zehaztu du Union Cerrajerak utzitako ondare asko mantentzen ditue-

la Arrasatek. "Gaur egun, Gipuzkoan herri gutxi egongo dira guk daukagun ondarearekin: bulegoak, lantegiak, eskolak, Musakolako San Isidro eliza eta Etxe Txikiak".

Jasotakoaren arabera

Horiek guztiak dira garrantzitsuak elkartearentzat, baina oraingoan Etxe Txikietan zentratu dira. Hala, jasotzen duten materialaren arabera, liburuxka bat edota erakusketa bat egiteko asmoa dute, mendeurrenarekin bat eginez.



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Txikizio jasangarria

Politikari bat jasangarritasunaz, garraio berdez, naturguneen birgaitzeaz... berbetan entzuten dudanean, susmoa izaten dut saldu nahi diguna kontrakoa dela, AHT berri bat edo. Hura ere "ekotrena" zen, 2010erako eraikiko zena, kamioiak errepidetik kenduko zituena, paisaia ia eragingo ez zuena, trantsizio berderako azpiegitura, CO2rik sortuko ez zuena, Europaren mailan jarriko gintuena... eta beste mila gezur lotsagabe, boteretik hurbil dauden hainbat enpresari aberasteko balio izan dutenak, eta herritarroi tonto musua utzi digutenak -ikusiko dugu Urdaibaiko erreserban egin nahi duten handikeria ere zertan geratuko den-.

Gurean, Aramaion, AHTaren zauria itxi barik, parke eoliko bat eraiki nahi dute. Kontuan izan dezagun haize energiaren jasangarritasuna ez dela aztertu behar ekoizten den energiagatik soilik, baizik eta parkeak eraiki eta mantentzeak sortzen duen aztarna ekologikoagatik ere. Guk, azken mendia porlanez estaltzen eta zulatzen dugun bitartean, brasildarrei eskatuko diegu mesedez Amazonia zaintzeko.

Domekan abiatuko dute Familian Jolasean ekimena

Udalak Txatxilipurdirekin elkarlanean antolatutako ekimena da, neguko domeketan familiei espazioa, denbora eta hitzordua eskaintzea helburu duena. Hala, Txatxilipurdiko bi hezitzaileen laguntza egongo da, saioak dinamizatzeko eta familiek behar duten informazioa emateko.

Urtarrilaren 14an hasi eta martxoaren 31ra arte, hamabi saio izango dira, 17:30etik 19:30era -urtarrilak 14, 21 eta 28; otsailak 4, 11, 18 eta 25; martxoak 3, 10, 17, 24 eta 31-. Oken-doko ludotekan izango dira hitzordu gehienak, bi izan ezik: otsailaren 25eko Santa Mari-nan egingo dute eta martxoaren 31koa, Usaetxen.

Uarkapeko gimnasioak ordutegi jarraitua izango du

2024an ordutegi jarraitua izango du Uarkapeko gimnasioak, eguerdian itxi barik, astelehenetik egubakoitzera, 06:30etik 20:30era.

Bestalde, kirol abonua ordaintzeko dirulaguntzak izango dira ikasleentzat -%25ekoak- eta diru-sarrera baxuko herritarrentzat -%25etik %75era artekoak-. Berritasun gisa, prezio murriztua ere egongo da 65 urtetik gorakoentzat, %25eko deskontuarekin, instalazioak 16:00ak baino lehen erabiltzen badituzte. Eskararak urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira, BAZen edo udal webgunean.

Azkenik, urteko hamar abonua zozkatuko dituzte urteko abonua berritzen dutenen artean.

Txotx denboraldia
Erreserbak
685 72 15 93

**Ingurune zoragarrian,
bailaratik irten gabe**

**Aramaioko sagarrarekin
egindako sagardo ekologikoa**

**Bus zerbitzua erabiltzeko
aukerarekin**

ITURRIETA

BUS
ZERBITZUA

ARETXABAETA

●

GASTEIZ

●

ESKORIATZA

●

ARRASATE

●

ARAMAIO

●

"Epe luzera begirako plangintza behar dugu"

SALBA DALMAU ARRESE EUSKAL KULTURAREN DIBULGATZAILEA

Euskal gizartearen atzera begirakoa egin du kaleratu berri duen liburuan, herri honen nortasunaren "altxorrak" geroa eraikitzeke baliagarriak izango direla konbentzituratu

Hasier Larrea ARRASATE

Lanbidez bailarako hainbat kooperatibatan ingeniari izandakoa, erromeria eta kantu-bira giroan pertsona ezaguna da Salba Dalmau (Galdakao, 1946). Historiaz, eta bereziki Euskal Herrikoaz, asko irakurri du, eta jakintza hori guztia gaztelarazko *Eziña Ekiñez Egiña. Lo imposible se logra insistiendo* liburuan argitaratu du. Eskuz dendan, Ttukunen, Aterpe kafetegian eta Hiper Eroskiko Prentsa Txokoa dago salgai.

Zeintzuk dira, zure ustez, euskal gizarteak daukan arazo nagusiak?

Mundu hau indibidualizazioz daramate agintariek, eta horrek Euskal Herriaren amaiera besterik ezin du ekarri. Egia da gurean joera hori ez dela hain muturrekoa. Balio garrantzitsu ugari transmititu ditugu belaunaldiz belaunaldi, baina esango nuke arriskuan daudela.

Hain zuzen, balio horiek zerrendatzen dituzu liburuan.

Euskara da bat, batasuna eman digulako. Komunitatea da beste bat, kooperatiben, ikastolen, kuadrillen... egituretan islatzen dena. Langile arduratsuak ere izan gara betidanik. Mespretxuak mespretxu, emakumeek paper garrantzitsua jokatu izan dute; bereziki, transmisioan. Arteak, hau da, kirola, folklorea edota jaia oso gureak ditugu; nik jaia mundura zabaltzeko bide bezala ulertzen dut, modu sanoan, drogekin nahastu barik. Gobernantza demokratikoa ere aipatzen dut, iraganean izan ditugun Foruei eta Nafar Erresumari erreferentzia egiteko; lurralde hau etorkinentzat erakargarria izan bada, familien arteko ezberdintasun ekonomikoak murriztu izan direlako da, besteak beste.

"Ezinezkoa" zirudien arren, Euskal Herriak bizirik iraun du. Zergatik?

Louis Charpentier idazle frantziarrak *El misterio vasco* libu-



Salba Dalmau Biteri plazan, autoekoiztu duen liburua eskuetan duela. H.L.

"MUGITU EGIN BEHAR DUGU BELAUNALDIEN ARTEKO TRANSMISIOA GAUZATU NAHI BADUGU"

ruan azaltzen du euskaldunak gai izan direla duela 5.000 urte-tik hona hainbat inbasio saikerari aurre egiteko. Ekialdeko estepetako tribuak, erromatarak, bisigodoak, frankoak, arabiarrak, gaztelarrak, frantziarrak, Francoren diktadura... Denetarik pasa da hemen, eta ez dugu nortasuna galdu, bizirauteko eta modernizatzeko gai izan garelako. Argi baldin badugu ze ezaugarri izan diren horretarako funtsezko, jar gaitezke ezaugarri horiek mende honetan lantzen. Hori eginez gero iraungo dugu hurrengo mendean ere.

Baikorra zara?

Epe laburreko begirada nagusitzen da gaur egun, eta horrela ez goaz inora. Enpresek zein alderdi politikoez lau urterako plangintzak egiten dituzte, gehienez. Baina epe luzera begira pentsatzen hasten bagara, ziur

aski, ados jarriko gara bata eta bestea ze herrialde nahi dugun erabakitzeke orduan. Eta, modu horretan, aukerak egongo dira hartu beharreko bideetan ere bat egiteko. Proposatzen dudana da parte-hartze inklusiboan oinarritutako plangintza.

Euskararen eta demografiaren bilakaera kezka bizi duzu?

Komunikabideek eta erakunde publikoek gure hizkuntzarekiko kontzientzia falta sustatzen dutenez, euskararen normalizazioa ez dago batere ziurtatuta. Modu bat etorkinekin poliki-poliki euskaraz egitea dela uste dut. Izan ere, gurean etorkinak dira jaiotze-tasa altuena dutenak. Badago joera bat "ez izan seme-alabarik, bizitza gozatzeko da" dioena. Nire ustez, diruz lagundu behar zaie bikoteei seme-alabak izan ditzaten. Bestela, gerta daiteke mende amaieran euskaldunak ez egotea.

Tira, has gaitezke ekintza xumeren batekin.

Belaunaldien arteko transmisioa gauzatzeko, mugitzea komeni da. Ipuinak, kantuak... ahoz aho kontatu! Portaloi kantu taldekook abestera irtengo gara gaur, 19:00etan, Portaloitik. Animatu!

Euskaldunon Ahalduntze Eskola sortu du AEDk Topagunearekin

Euskararen erabileran "jauzi kualitatibo bat" eman gura dutenentzako sei saio izango dira; lehena, hilaren 24an

H.L. ARRASATE

"Euskarari eutsi ahal izateko, ahaldundu, prestatu eta esperientziak partekatzeko espazio bat" izango da Euskaldunon Ahalduntze Eskola. Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak abiatuko du, Euskaltzaleen Topagunearekin elkarlanean. Saiok eguaztenetan egingo dituzte: urtarrilaren 24an eta 31n, otsailaren 14an eta 28an eta martxoaren 13an eta 20an, 19:30ean hasita, AEDren egoitzan -Pablo Uranga 4-. Hiru modu daude izena emateko: hara joanda, 943-77 12 28 zenbakira deituta edo aed@aedelkartea.eus-era idatzita, urtarrilaren 19a baino lehen.

Zailtasunak gainditzeko

Antolatzaileek jakinarazi dute saioak doakoak izango direla, eta, era berean, hitzorduetara joateko konpromisoa eskatu

dute, "taldearen dinamika bermatzeko". Euskararen erabileran "jauzi kualitatibo bat" eman gura duten herritarrak espero dituzte saioetan. "Euskara sozialki gehiago erabiltzeko gogoia dutenei, euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz aritzeko apustu pertsonala eginda helburu horretan egoera kontrolatu, hobeto sentitu eta estresik gabe aritzeko baliabideak eskuratu nahi dutenei dago eskainita", adierazi dute AEDko kideek.

Hein batean, Euskaraldiarekin lotu dute eskola: "Euskaraldia ariketa egokia da hizkuntza portaeretan eragiteko eta hizkuntza ohiturak aldatzeko, baina ohitura zaharren inertzien, lotsek, aurreiritzien, beldurrek... galarazi egiten digute euskaraz nahi beste egitea. Bada, horiek gainditzeko helburua izango dute saioek".

Nagusientzako beharrak aztertu dituzte Uribarrin

Arrasateko Nagusien Kontseilua lagunkoiagoa eta mugikortasun hobea duen herria eraikitzeke bidea urratzen dabil, Arrasateko Udalarekin elkarlanean. Duela pare bat aste, Uribarri auzoan batu ziren elkarteko hogeiki kide, Ion Petreñas auzo-alkatea eta Udaleko zenbait ordezkari. Auzoan egin daitezkeen hobekuntzen gainean berba egiteko baliatu

zuten topaketa: "Besteak beste, desfibriladoreen beharra dagoela uste dugu. Euri egunetan autobusa hartu behar duten auzotarrantzat markesina bat egokitzzea ere aproposa iruditzen zaigu, baita nortasun agiria izapidetzeko bulego bat jartzea eta publikoa eta 24 ordukoa izango den taxi zerbitzu bat eskaintzea ere", aipatu zuen Pili Iriarrek, ANK-ko presidentea.

Ion Petreñasek, berriz, esker-tu egin zuen bisita, eta laguntzeko prestatasuna erakutsi.

Aratusteetako kartel lehiaketa, datorren astera arte zabalik

Hilabete geratzen da mozorro festarako, eta hori iragartzeko kartelak urtarrilaren 20ra arte aurkeztu ahal izango dira BAZen, 13:00ak arte. Lanek bertikalak izan beharko dute, eta, Inauterian ezaugarri edo adierazle bat jasotzeaz gain, testu hau ere jaso beharko dute: *2024 Inauteririk Arrasate*. Irabazleak 400 euroko saria jasoko du.

Santa Agedari abesteko entsegu irekiak egingo dituzte

Otsailaren 4an, Santa Agedaren omenezko koplak doinuekin esnatuko dira kale eta auzoak, beste urte batez. Iaz, gazte batzuk animatu ziren ohiko kuadrillarekin kantuan irtetera, eta aurtentzen ere errepikatuko dute. Gainera, parte hartu nahi duen orok entseguak egiteko aukera izango du eguaztenetan, 20:00etan, Juan Arzamendi Musika Etxean.

"Munduko Txapelketa irabaztea da nire ametsa"

DANEL IZURRATEGI SAIOA KARATE KLUBEKO BORROKALARIA

Munduko Txapelketa baten brontzezko domina irabaztea izan da gazte arrasatearraren orain arteko lorpen handiena eta urrezkoa lortzeko eguneroko lanean jarraitu gura du

Jokin Bereziartua Lizarazu

ARRASATE

Umetan karatea probatu, eta, ordutik, bizitzako zaletasun nagusizat dauka Danel Izurrategik (Arrasate, 2006) karatea. 2023a urte oso ona izan zen gazte arrasatearraren eta etorkizuneko ametsa zein duen galdetuta, dio Munduko Txapelketa bat irabaztea edo finalerako sailkatuta zilarrezko domina lortzea dela. Oraingoz, brontzezko domina lortu zuen duela hilabete eta erdi Herbehereetan jokatu-tako Munduko Txapelketan. Saioa karate klubean hartu du GOIENA entrenamenduari ekin aurretik, jator eta eskertuta.

Hasteko eta behin, nola zaude saioi aldetik? Momentu ona bizi duzu?

Motibatuta banago eta uste dut hori dela garrantzitsua. Hilabete barru, txapelketa garrantzitsu bat daukat, Europa mailakoa izango dena, eta hori prestatzen ari naiz buru-belarri. Hori da nire hurrengo erronka aipagarriena, Bartzelonan jokatu den Europako Txapelketa hori.

Zein izan da karateko zure lorpen nagusia orain arte?

Herbehereetan jokatu zen Munduko Txapelketan lortutako brontzezko domina izan da nire orain arteko lorpen handiena. 16-17 urteko 60 kilotik beherako

kategorian lortu nuen hirugarren izatea, gerora txapelduna izango zenaren aurka lehia estua izan ostean. Horrez gain, 2023ko martxoan Espainian urrezko domina lortu izana ere itzela izan zen. Denbora luzea egin nuen urrezko domina horren atzetik, eta, azkenean, lortu nuen. Bi domina horiek dira, oraingoz, nire ibilbideko esanguratsuenak.

Munduko Txapelketa. Hilabete eta erdi pasatu da ordutik... Nola gogoratzen duzu, egungo ikuspegitik?

Munduko Txapelketara joan aurretik, prestaketa, sakrifizio eta ilusio handia gogoratzen ditut. Arrasatetik beste hiru kiderekin joan nintzen, eta gogoan daukat sekulako gogoarekin joan ginela, ilusio handiarekin. Nire kasuan, hiru borrokaldi izan nituen: lehenean oso ondo aritu nintzen, bikain; merezimendu osoz irabazi nuen. Bigarren borrokaldia izan zen gogorrena; irabaztea lortu nuen, baina izugarri kostatu zitzaidan.

"SAKRIFIZIOA ESAN NAHI DU KARATEAK NIRETZAT, IKUSPEGI ONENETIK IRAKURRITA; OSO GUSTURA NABIL"

Borrokalaria Kazakhstangoa zela gogoan daukat, eta azkene-ra arte lehia estua izan nuela. Gero, finalerdietako borrokaldia, hirugarrena zena, galdu egin nuen. Uste dut bigarren borrokalditik ez nintzela behar moduan errekuperatu, eta ahal nuena egin nuen. Hala ere, txapelketa modu orokorrean hartuta, pozik nago egindako lanarekin; igaro da denbora bat, eta orain, domina ikusterakoan, gehiago baloratzen dut. Oso harro nago. **Oso gaztea zara, baduzu zer hobetu oraindik... Zein da zure ametsa?** Nire ametsa zein den? Munduko Txapelketako urrezko domina edo, behintzat, finalera sailkatzea. Brontzezko domina badaukat; urrezkoa etxera ekartzea litzateke lorpen gorena. Badakit, hala ere, asko eskatzea dela, oso zaila. Eguneroko lana da gakoa. **Bestalde, iaz, Arrasate Kirol Sarietan publikoaren saria jaso zuen Saioa karate klubak; poztuko zineten herritarren babesagatik...**

Harro egoteko moduko aitortza bat da. Herritarren partetik botoa jaso izanak asko poztu gintuen. Aurrera jarraitzeko indarra ematen du.

Etorkizuna ikusten diozu karateari Arrasaten?

Argi dago kirol minoritarioa dela, eta oso zaila izango da



Danel Izurrategi, Saioa karate klubean, eguazten arratsaldean. JOKIN BEREZIARTUA

hori aldatzea. Hala ere, gure klubean umeak badabiltza eta espero dugu adinean aurrera egin ahala karatean jarraituko dutela. Horrez gain, sentsazioa daukat herrian gero eta ospe hobea duela karateak... Etorkizuna ikusten diot, bai. **Entrenamenduei dagokionez, zein da zure egunerokoa?**

Asteleheneetik eguenera eguenero izaten ditugu entrenamenduak, 19:30etik 20:45era. Gero, txapelketa baten atarian, egubakoitzean edo zapatu goizean ere entrenatu ohi gara. Ez ditugu ordu gehiago sartzen bakarrik, txapelketaren modalitatearen arabera entrenamenduak ezberdinak izaten dira. Izan ere, txapelketa bakoitzak bere berezitasunak ditu.

Giro ona duzue klubean?

Adin askotariko borrokalaria gaude, eta hori aukera ona da ikasi eta esperientziak trukatzeko. Horrez gain, gure arteko harremana eta giroa oso onak dira; oso gustura etortzen naiz entrenatzera.

Nork kutsatu zizun karatearen harria? Noiz jantzi zenuen kimonoa lehen aldiz?

Osaba izan zen *errudun* nagusia, beti aritu izan da eta karatean, kenpoan eta beste borroka arte batzuetan sartuta. Osabak nire aitari proposatu zion nik karatea probatzeko, eta halaxe eraman ninduten. Uste dut 5 urterekin jantzi nuela kimonoa lehen aldiz, eta ordutik karateari lotuta jarraitzen dut.

Zer da karatea zuretzat? Zer da egunerokoa ematen dizuna?

Karateak sakrifizioa esan nahi du niretzat, ikuspegi onenetik irakurrita. Eta, kirolaz harago, Arrasaten karatean ari garenen artean harremana estua da; gustura ibiltzen gara eta hori ezinbestekoa da burua motibatuta izateko.

Gomendatuko zenuke?

Inongo zalantza barik. Kirol moduan oso polita da eta niri, behintzat, lagun asko egiteko aukera eman dit. Ez da ezer galtzen probatzearen; pasatu Saioa karate klubetik, ez zaizue damutuko.

Eskubaloiaz gozatu dute

Arrasate Eskubaloi Taldeak LHko 5. eta 6. mailetakoko neska-mutikoendako txapelketa antolatu zuen urtarilaren 5erako Iturripen, lauko formatuan. 40 jokalaritako ziren, zazpi taldetan, eta "giro aparta" nagusitu zen kantxan eta harmailtan; Kamioiak taldea izan zen irabazlea. Zuzendaritza esker oneko agertu da parte hartzaileekin eta laguntzaileekin.



ARRASATE ESKUBALOI TALDEA

Mondratek irabazi beharreko partidua dauka bihar (17:45)

Areto futboleko Euskal Ligako Hirugarren Mailako Mondratek hamargarren dagoen Jarrilleros Peñota Dental taldea hartuko du bihar, zapatua, Musakolako kiroldegian (17:45). Denboraldi ederra egiten ari dira arrasatearrak; jokatu dituzten hamahiru lehietatik hamar irabazi dituzte, bat berdindu eta bi galdu. Bigarrenak dira sailkapenean.



Iskanbila taldearen disko berriak duela 25 urte idatzitako kantuak batzen ditu. IBAN GONZALEZ

Lan berria etxekoekin estreinatzeko gogoz

Irailean estudioan sartu ostean, 'Bizimodu baten historia' lana kaleratu du Iskanbila taldeak. Bihar gauean (22:00), diskoaren aurkezpen-kontzertua egingo dute gaztetxean, Hankaz Gora eta Sindy Berbenas taldeak oholztan alboan izango dituztela

Iñigo Barrena Kortabarria ARRASATE Sorpresaz itzuli ziren Eskoriatzan, Inkernun, eta, ondoren, herrikoen gozamenerako, Musakolako jaietan jo zuten. Batzuek uste zuten Iskanbila taldea kontzertu batzuetarako soilik itzuli zela, baina inondik inora ere. Irailean estudioan sartu ostean, bihar, gaztetxean, *Bizimodu baten historia* lan berria aurkeztuko dute. Arrasate Irratiko *Zaku bete kontu* irratsaioan azaldu dutenez, "urduri" baina aldi berean "gogotsu" daudela aitortu zuten taldekideek.

Bederatzi abestik osatzen dute lan berria; duela 25 urte grabatu gabe utzi zituztenak erreku-peratu nahi izan dituzte. Hain zuzen, hori izan da Iskanbila taldea berriz elkartzearren arrazoi nagusia. Disko berriko kantuak "azkarrak" eta "kañeroak" direla azpimarratu dute. Kontzertura begira, ordea, abesti berriez gain, errepertorioa "kantu zaharrekin" osatuko dutela adierazi dute.

Estreinaldia, etxean

Momentuz diskoak "harrera ona" izan duela diote taldeko kideek, baina eurak "zuzeneko" taldea direla ere aitortzen dute. "Orain arte, kanpoan jo dugu; entrenamendua izan da hori biharko kontzertura begira. Etxean jotzeko ordua zen", dio Iskanbilakoek.

Gogo eta ilusio horretan laguntzeko, Hankaz Gora eta Sindy Berbenas taldeek ere joko dute. Lehenak gazteak eta hasiberriak dira; horregatik, Iskanbilakoek eskaera egiten dute jende guztia kontzertu hasierarako bertan egon dadin: "Gurekin egin zuten moduan, guk ere gogo hori sentitzen dugu hurrengo belaunaldiari hauspoa eman eta elkarre-

DUELA 25 URTE GRABATU GABE GELDITU ZIREN KANTUAK BATU DITUZTE LAN BERRIAN

kin aurrera egiteko". Sindy Berbenas, aldiz, aski ezaguna da jada, eta haiek ere punk-oi! doinuez gozaraziko dituzte bertaratutakoak; halaber, Jonyrentzat kontzertu berezia izango da, Iskanbilako zein Sindy Berbenaseko kide baita.

Biharko kontzertua berezia izango dela zalantzarik ez dago, baina etorkizunerako planak ere martxan jarrita dituzte. Udara arte, behintzat, lanpetuta ibiliko dira; izan ere, *Zaku bete kontu* irratsaioan esan dutenez, kontzertuak lotuta dituzte hainbat lekutan; besteak beste, Igorren, Gernikan, Zaldibarren eta Elgetan. Hori gutxi balitz, Portugalen ere jaialdi batean izango direla aurreratu zuten, eta, era berean, aitortu zuten esku artean badutela proiekturen bat edo beste: "Oraindik ezin dugu ezer aurreratu, baina bereziak dira". Horrenbestez, horri guztiari lekukoa emango dio biharko disko aurkezpenak.

Txotxongilo-ikuskizuna izango da bihar Amaia antzokian

'Andereño' du izena ikuskizunak eta hurrei eta familiei zuzendutakoa da; arratsaldeko bostetan hasiko da

I.B.K. ARRASATE

Haurrentzako eta familientzako txotxongilo-ikuskizunarekin gozatzeko aukera egongo da bihar arratsaldean Amaia antzokian. Anita Maravillasen zazpigarren lana da *Andereño* ikuskizuna, eta irakasle baten eta bere eskola txikiaren istorioa kontatzen du. Lanaren sinopsiak dioenez, andereñoa ausarta, trebea eta atsegina da eta haurren gaitasunetan sinesten du. Haren klasea askatasunez hezi nahi du, baina nagusiek gerra hasiko dute eta amestutako eskola hori atzean utzi beharko dute, zoritxarrez. Istorio horren bidez, maistra ausart haien hitzek bidaiatu egiten dute, eta belarrira xuxurlatzen dute aske izateko lehen baldintza saiatzea dela.

Lanaren zuzendaria Ivan Alonso da eta zuzendari artistiko eta

teknikoa, berriz, Ion Chavez. Txotxongiloen eraikuntza eta diseinua Valentina Raposok egin ditu. Obraren antzezleak, berriz, Miren Larrea, Maren Basterretxea eta aurretik aipaturiko Valentina Raposo dira. Anita Maravillasen txotxongiloek estetika zaindua dute ezaugarri. Hori ezinbestekoa da konpainiarentzat; izan ere, edertasunaren gaia funtsezko adierazpide gisa ulertzen du, mugimendua zainduz, haren bizitza-ilusio delikatua lortzeko.

Sarrerak salgai

Haurrentzako eta familientzako plan paregabea da bihar arratsaldekoa, eta ikustera joan nahi duenak sarrerak salgai ditu *Arrasate.eus* atarian, 5 euroren truke. Bihar bertan ere leihatilan sarrerak eskuratzeko aukera egongo da.

Zarzuelarako emanaldirako sarrerak salgai daude

2019an egin zuen Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak azken zarzuela emanaldia; etenaldi luzearen ostean, urtarrilaren 19an 20:00etan eta 20an eta 21ean 19:30ean eskainiko dute *Antología de la zarzuela*, Amaia antzokian. Hiru emanaldietarako sarrerak dagoeneko salgai daude Arrasateko Udalaren webgunean, 21,45 euroren truke.

Ikastaroak Arrasateko Tailaginen Elkartearen eskutik

Beste urte batez, ikastaroak antolatu ditu Arrasateko Tailaginen Elkarteak. Ikasteko zein hobetzeko ikastaroak egingo dituzte, urtarrilaren 23an hasita, martitzenetan eta eguenetan, 17:30etik 19:30era, haien lokalean. Izena emateko, 628 05 50 84 eta 600 45 79 45 zenbakietara deituta edo arte1982arrasate@gmail.com helbidera idatzita.

Oraingo honetan, 50 lagun inguru izango dira taula gainean, eta aurrez egindako zarzueletako pasarteak izango dira gehienak, baina berritasunak ere izango ditu emanaldiak. Deneratiko kantuak izango dira entzungai, eta publikoak gustura hartzen dituen umorezko uneak ere bai, eta, nola ez, amodiozko drama uneak ere bai; gainera, bakarlariek ez dute hutsik egingo. Dekoratu berriak izango dituzte, eta arropak ikuskizun berrira moldatu dituzte.

Ezpalak taldea hilaren 18an 22:00etan gaztetxean

Kooltur Ostegunen barruan, Ezpalak taldea izango da hurrengo gaztetxeko oholztara igotzen. Eskarmentua duten musikariek osatu zuten taldea, 2019an, Zestoan. Euren rock eta fuzz soinuekin, riff indartsuekin eta ahots melodikoekin taularatuko dira, musikazaleak gozarazteko asmotan. Sarrera 7 euro izango da.

Sagardotegi denboraldia hastear da Iturrietan

Urtarrilaren 19an emango zaio sagardo denboraldiari hasiera Iturrieta sagardotegian; Juanjo Peciña ugazabaren hitzetan, herriko lagunendako "festa txiki" batekin. Aurten, 38.000 kilo sagar batu dituzte, eta 20.000 litro ekoiztu

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO
Urtarrilaren 16an emango diote hasiera ofiziala sagardotegi denboraldiari Gipuzkoan, Astigarragan, baina Aramaio Iturrieta sagardotegian hilaren 19an hasiko dute denboraldia, hango Juanjo Peciña adierazi duenez, aurten ere ekitaldi berezi batekin: "Aurten, Arabako txotx denboraldiaren hasiera Kuartangon tokatzen da eta urtarrilaren 18an izango da. Guk datorren egunean egingo dugu hemen festa txiki bat herriko lagunendako, egunean, 19:00etan hasita".

Sagar ekologikoarekin egiten dute lan Iturrietan, eta, bildutako sagar-uztaz galdetuta, uzta "potentea" dela nabarmendu du. Alabaina, gogorarazi du uda lehorra izan dela eta jaso dituzten sagar-ale gehienak txikiak izan direla, iraileko eurekin handitu zirenak salbu. "Sobratu egin zaizkigu sagarrak eta sotoa bete egin dugu gure sagar-zukuarekin". Peciñaren hitzetan,

38.000 kilo sagar batu dituzte, eta 20.000 litro ekoiztu.

"Enologoek ustez, oso sagar ona sartu da, eta, haien iritziz, oso sagardo ona aterako da", dio Peciña. Alkohol graduari dagokienez, %6,5 eta %7 bitartean ibiliko da sagardoa, aurreko urteetan baino gradu batzuk gehiago.

Bazkalordua nagusi

Maiatz ingura arte irauten du sagardo denboraldiak, eta Iturrietan maiatzera bitarteko zapatu eguerdietako agenda beteta daukate dagoeneko: "Urriari hasi ginen deiak jasotzen. Bazkalorduan izaten ditugu eskari gehien. Apurka-apurka betetzen da afa-lordua, baina eguerdia da nagusi

GIPUZKOAN URTARRILAREN 16AN HASIKO DUTE TXOTX DENBORALDIA; ARABAN, 18AN

si. Leku guztietan nabaritu dute gauean ez dela jendea animatzen sagardotegira joaten". Era berean, Peciña dio sagardotegiek sumatu dutela gazteek sagardotegira joateko ohitura gutxiago dutela. Bi arrazo horiengatik egin dute saiakera menu merkeago eskaintzeko, gazteak sagardotegietara eta sagardoaren kulturara erakartzeko.

Autobus zerbitzua

Autobusak ere jartzen dituzte sagardotegirako joan-etorriak egiteko, eta horrela jarraitzeko asmoa azaldu du. Autobusak Gasteiztik etortzen dira, eta, bidean, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasaten ere egiten dituzte geldidunak, jendea hartzeko: "Jende asko etortzen da Gasteiztik ere. Agian, gertu gaudelako eta Astigarraga eta Hernani urrun geratzen direlako. Urte pila daramagu autobusekin, eta horrela jarraituko dugu. Jendeak jakin dezala aukera hori ere badaukagula".



Aramaio Iturrieta sagardotegiko Juanjo Peciña, sagardotegiko kupelen aurrean. OIHANA ELORTZA

Bertso-saioa eta Bertxoko sariketa egingo dituzte gaur

Bertxoko Sariketako lehen kanporaketa 18:30ean izango da; urte berriko bertso-saioa, 22:00etan

I.A.A. ARAMAIO

Aramaio Bertso Eskolak eta Udalak antolatuta, urte berriko bertso-saioa egingo dute gaur, kultur etxean, 22:00etan hasita. Taula gainean izango dira Sabin Abarrategi aramaioarrarekin batera Jone Uria, Joanes Illarregi eta Unai Iturriaga; gai jartzaile lanetan, berriz, bertso eskolako kideak. Sarrerak bost euro balio du.

Orain arte, Gabonen bueltan egin izan dute "Aramaio bertso saio bakarra", baina aurten urte berriarekin batera egitea erabaki dute.

Arratsaldean, kanporaketa

Gaueko saioaren aurretik, Bertxoko sariketaren lehen kanporaketa jokatu dute, 18:30ean, Zabola elkartearen. Hiru bikote arituko dira bertsoetan: Iraide Onandia eta Xabi Antia, Ane



Sabin Abarrategi. GOIENA

Arexolaleiba eta Paula Amilburu eta Gari Arexolaleiba eta Martin Abarrategi. Beste bi kanporaketak Baranbion eta Agurainen izango dira, hilaren 14an eta 19an. Finala hilaren 26an jokatu dute Gasteizen kanporaketetako hiru bikote irabazleek.

Hilaren 18a arte hartu daiteke parte Kulturgura lehiaketan

Gorbeialdeko Kuadrillak 24. Kulturgura lehiaketa jarri du martxan, eta 8 urtetik gorako herritarrek har dezakete. Zazpi galderaz osatutako galdetegia da eta partaide bakoitzak galdetegi bakarra aurkeztu dezake. Parte hartzeko azken eguna hilaren 18a da eta erantzunen orria udaletxean edo Kuadrillan entregatu beharko da.

Erantzun guztiak asmatzen dituzten parte-hartzaileak sartuko dira urtarrilaren 22ko zozketan, eta Gorbeialdeko Kuadrillakoek adierazi dute erantzun zuzenak *gorbeialdekoquadrilla.eus* atarian argitaratuko dituztela. Denera, lau sari zozkatuko dituzte asmatzaileen artean. Alde batetik, 100 euroko bi bonu emango dituzte, kirol-materialean gastatzeko; eta, beste alde batekin, 100 euroko beste bi bonu zozkatuko dituzte, liburu-denda batean gastatzeko.

'Aramaio dantzan' dokumentala ikusgai dago 'Goiena.eus'-en

Abenduaren 30ean estreinatu zuten Aramaio dantza taldearen historia jasotzen duen *Aramaio dantzan* dokumentala www.goiena.eus atarian egongo da ikusgai gaurtik aurrera. Taldearen hastapenetatik gaur egun arteko ibilbidea azaltzen dute protagonistek. Aurkezpen ekitaldiko argazkiak Aramaio Udalaren webgunean daude.

Korrika Kulturaleko egitaraua osatzeko bilera irekia egingo da

Martxoan zehar hainbat ekintza antolatuko dituzte Korrika Kulturaleko testuinguruan, eta egitaraua osatzeko duten ekintzak zeintzuk izango diren erabakitzeko batzar irekia egingo da herriko eragileekin eta parte hartu nahi duten herritarrekin batera hilaren 16an, arratsaldeko zazpitan hasita, kultur etxeko KZgunean.

Sei ekarpen egingo dizkio EAJk aurrekontuari

Udal Gobernuak 2024rako egindako aurrekontu proposamena aztertu du EAJren udal taldeak, eta aurreko agintalditik datozen proiektuek jarraipena izatea positibotzat jo du, baina kezka ere adierazi du, "proiektu estrategikoen plangintzarik ezagatik"

Mirari Altube ARETXABALETA

Abenduan aurkeztu zuen Udal Gobernuak 2024rako aurrekontu proposamena, hamasei milioi eurokoa, hain zuzen ere, horietatik lau milioi inbertsiontara bideratuz. EAJren udal taldeak proposamen hori aztertu du, eta hainbat ekarpen egin dizkio.

Inbertsioei dagokienez, balorazio positiboa egin du, "aurreko agintalditik datozen proiektuei jarraipena" emango dietela irizita: "Horien artean daude mojen gunea, Andramari auzuneko urbanizazioa eta kiroldegiko berdegunearen ekipamendua. Alde horretatik, positiboki baloratu dugu. Zaintza ekosistemaren inguruko proiektuari ematen zaion jarraipena ere zentzu berean baloratzen dugu".

"Plangintza falta"

Beste bi partidarekin ere ados agertu dira, hasiera batean: "Instituto berria eta Iturrigorri frontoiaren eraberritzea ere hauteskunde programan proposatu genituen ekimenak dira, eta, koherentziaz, bat egiten dugu instituturako beharrezko lurak erosi eta frontoiaren aurreproiektua idazteko ekimenekin". Baina kezka ere agertu dute: "Aldiz, kezka sortu digu bi proiektu horien eta agintaldiko gainontzeko proiektu estrategikoen plangintzarik ezak. Aurrekontua osotasunean baloratzeko orduan, beharrezkoa da agintaldi osoko argazkia izatea, eta ez da nahikoa balizko parte hartze prozesu baten menpe uztea".

Lausitarako partida eskaera

Baloraziotik harago, ekarpenak egin dizkiote aurrekontuari; sei, hain zuzen ere. Batetik, komentuko gunea eta Iturriar Txarapeako igogailua lotuko dituen proiektua; Ur Agentziaren baldintzetara egokitzeko "partida espezifiko" bat zabaltzea eskatu



EAJko udal ordezkariak osoko bilkuran. MIRARI ALTUBE

GUNE ESTALI BATENDAKO PARTIDA 2025ERA ATZERATZEKO PROPOSATU DIOTE GOBERNUARI

dute: "Lehentasuneko ikusten dugu oinezko ibilbide horri jarraipena ematea". Bestetik, Lausitta kaleko Hornidura eta Saneamenduko Plan Bereziaren lanei (PEAS) ez dietela inolako aipamenik egin esan dute, eta eraikitze-proiektua idazteko partida bat eskatu dute.

Autokarabanen ur zikinak uzteko gunea eraikitzeke partidarekin ez dira ados agertu: "Ez dugu uste, inondik inora, Udalak eman beharreko azpiegitura bat denik, eta partida hori ezabatzea planteatzen dugu. Ibilgailu horien jabeek dagokie behar horiek asetzea". Beste partida bat, ostera, zabaltzeko eskatu dute; herri sarreretan dauden oinezko pasabideak argiztatzeko, hain zuzen ere: "Oinezkoen bide segurtasuna handitzeko".

Era berean, herriaren garbitasunerako dagoen partida igot-

tzea gurako lukete: "Autobus geltokien mantentzerako eta, orokorrean, herriko paretak txukun eta garbi izateko". Eta bide publikoen mantentze-lanetarako poltsa 40.000 euro igotzea ere proposatu dute: "Urtero 100.000 euroko partida mantentzeko beharra ikusten dugu".

Bestetik, Udal Gobernuak 2024ko aurrekontuan 200.000 euro aurrekusi ditu gune estali batendako; inbertsio hori ez dute begi txarrez ikusi, baina beste proposamen bat egin diote: "Gune horrendako kokagune zehatzik ez dago definituta gaur egun, eta ez dago aurreproiekturik. Partida hori 2025era atzeratzea proposatzen dugu, eta 2024a baliatu planteamendu hori garatzeko".

Bukatzeko, adierazi dute ekarpenak "jarrera eraikitzaileekin" egin dituztela, eta hauteskunde garaian esandakoarekin "koherentziaz jokatu"; horiek dagoeneko jakinarazi dizkiote Udal Gobernuari.

Orain, udalbatzak onartu beharko du 2024ko aurrekontua osoko bilkuran. Horretarako datoren berri, baina, oraindik ez dute eman.



Ion Albizu zinegotzia eta Gari Iturbe alkatea, zebra-bide baten alboan. TXOMIN MADINA

Herriko irisgarritasuna hobetzeko bi ekimen iragarri dituzte

Udal Gobernuak 19.000 euro bideratuko ditu plana eguneratzeko, eta igeltserotza zerbitzua jarri du martxan

M.A. ARETXABALETA

Herriko irisgarritasuna hobetzeko eta oinezkoen segurtasuna bermatzea ditu helburuen artean Udal Gobernuak, eta horretarako, eskuartearen dituen bi ekimen berri eman dute.

Batetik, 2018ko irisgarritasun plana eguneratzea gura da, eta, 19.000 euroko partida bat aurrekusi dute 2024ko udal aurrekontuan. "Badira plan horretan sartu barik dauden eta etorkizunean garatzeko sartu behar direnak. Gainera, dirulaguntzak jaso ahal izateko eguneratuta egon behar du, eta gure asmoa da ahalik eta laguntza gehien eskatzea", azaldu du Hirigintza zinegotzi den Ion Albizuk. Aurtengo egingo da plan hori eta markatuko ditu hurrengo urteetako lanak –Durana kalean eta beste hainbatetan egitekoak– zein eraikin publikoetan egingo diren esku-hartzeak.

Igeltseroa konponketa lanentzat

Halaber, behin-behineko igeltserotza zerbitzu propioa jarri du martxan; Albizuren esanetan, "espaloiak seguruak izateak berebiziko garrantzia" duelako mugitzeko gaitasun mugatua duten pertsonen begira: "Aurtutako baldosarik ez egotea herrian da helburua. Zerbitzua azpikontratatu beharrean, orain arte moduan, salto kualitatibo bat eman eta udal-brigadan sartu den igeltsero bat hartu dugu. Oraingoan, sei hilabeterako izango da; epe hori bukatzean aztertuko dugu behin betikoa izan beharko lukeen".

Ildo horretatik, herritarren laguntza eskatu du konpondu beharra duten espaloiak eta zebra-bideak identifikatzeko; eta animatu ditu horien berri ematera udaletxera joanda edo Udalaren webgunera zein aplikazioa erabilita.

'Sexu-hezkuntza feminismitik' hitzaldia hilaren 17an

Kuku Miku elkarteak antolatuta, *Sexu-hezkuntza feminismitik. 0-6 urteko haurrak abiapuntu* izeneko hitzaldia egingo du Larraitz Arando psikologo eta sexologo –haur eta nerabeen terapian aditua– eta Erdu talde feministako kideak datorren eguaztenean, urtarrilaren 17an, elkartearen egoitzan, 18:00etan; debalde izango da.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Pintura eskolako lanak, herritarren aurrera

Idoia Elexpuru irakaslearen gidaritzapean dihardute lanean hamabi aretxabaletarrek azken urte eta erdian, Basotxo erretiratuen elkarteak antolatuta, eta egindako hogeiren bat lan Arkupeko erakusketa aretoan izango dira hilabetea bukatu artean

Mirari Altube ARETXABAETA

Pinturarekiko zaletasunak batu ditu hamabi herritar, eta azken urte eta erdian astean birritan elkartzen dira Arkupen, astelehenetan eta eguaztenez, zaletasun horri haizea emateko. Idoia Elexpuru irakasleak emandako aholkuei kasu eginda jarduten dute lanean, eta orain, ikusgai jarri dituzte azken hilabeteetan egindako hogeiren bat lan.

Askotariko lanak

Pinturaren bueltan ibilbide luzea dute taldeko kide askok, baina oraintsuago hasitakoak ere badaude. "Batzuek hogeitau urte daramatzate margotzen eta beste batzuek bi, baina horrek ez du eragiten taldearen jardunean, norberaren erritmoa errespetatzen delako. Gustuko argazki bat ekarri ohi du bakoitzak eta hori lantzen hasten da", azaldu du Elexpuruk. Estilo figuratiboa duela gustuko gehien-goak gaineratu du: "Abstraktu bakarren bat badago, baina, orokorrean, bodegoiak eta paisaiak dira nagusi, akuarelekin, olioarekin zein akrilikoarekin".

Herritarrei erakusteko gogotsu

Denbora batean utzita izan ostean, pintura eskoletara itzuli

da Arantxa Irizar taldekidea: "Oso gustura nabil. Paisaiak eta bodegoiak margotzen ditut, baina orain, estilo modernoagoarekin ere hasi naiz". Pepi Rosadok, ostera, marraztea du gustuko: "Zuri-beltzean, arkatzarekin marraztea atsegin dut, eta, noski, figurak; bizitza ematen dit horrek".

Taldean giro benetan polita dutela adierazi dute guztiak. "Elkarri animoak ematen dizkiogu. Lagundu egiten digu, gainera, ohikoa ez den jendearekin gaudelako, beste kontu

batzuen gainean berba egiten dugulako", dio Rosadok.

Egindako lanak herritarren aurrean erakusteko gogotsu agertu dira, gainera: "Aretxabaletarrek jakin dezatela herrian badaudela artista batzuk. Hortaz, etor daitezela Arkupera gure lanak ikustera eta goza dezatela, guk gozaten dugun moduan". Lanak urtarrila bukatu artean izango dira ikusgai erakusketen aretoan; astelehenetik egubakoitzera goizez 11:00-13:00 eta arratsaldez 18:00-20:00 eta zapatuetan goizez bakarrik.



Pintura lanen hainbat egile, Elexpuru irakaslearekin. MIRARI ALTUBE



NIRE USTEZ

MARTIN ANTIXIA ABASOLO

Esperimentua

Seguru asko irakurleari inporta ez zaizkion arrazoi batzuegatik, 2023an nire buruarekin esperimentu bat egitea erabaki nuen.

Smartphonea etxean utzi nuen –etxean bakarrik pizten nuen whatsapp-ak erantzuteko–, SIM txartela telefono klasiko batera pasa eta 9 hilabete eman ditut horrela. Ez da zubi batetik salto egin behar lehen astean sentitu nuen antsietatea pairatzeko; hutsik dauden poltsikoetan bibrazioak imajinatze edo gorputza eskuakin kolpatuz telefonoa automatikoki bilatzeko. Baina gerora, ez da munduaren beste puntara oporretara joan behar, batere espero ez nituen sorpresa ezberdinez gozatzeko.

Badakit ideia zoro hau aplikatzea ezinezkoa dela zure kasuan, egunero lanerako behar duzula, seme-alabak dituzula, dena telefonotik kudeatuz askoz efizienteagoa zarela, eta, gainera, ez duela zentzurik holako esperimentu bat egitea zure kasuan; ez zaudelako mugikorrari engantxatua, nahi duzunean bakarrik erabiltzen duzulako. Funtsean, ni bezala.

Aratusteak prestatzen hasi dira Udala eta Karnabalen Lagunak

Gaur, bazkari 'golfo'-rako txartelak jarriko dituzte salgai, eta bihar, kiroldegian egingo den herri bazkarirako

M.A. ARETXABAETA

Udaleko Kultura Saila eta Karnabalen Lagunak hasi dira Aratusteak gertatzen. Hala, moztorra gertatzeko lokaleko giltza dagoeneko eskura daiteke, Arkupen, 50 euroko fidantza jarrita eta arauak betetzeko konpromisoa hartuta; azken urteetan legez, Basabe industrialdean dago lokal hori.

Era berean, asteburuan jarriko dituzte salgai Aratuste-domekako bazkarietarako txartelak. Gaur, egubakoitza, pilotalekuan egingo den bazkari

golfo-koak –21 euro– eskuratu ahal izango dira, moztorra gertatzeko lokalean, 18:00etan; eta bihar, zapatua, kiroldegiko bazkarirako izen-ematea zabalduko da, 09:00etan, Arkupen –helduena, 22 euro; eta umeena, 12 euro–.

Abian da kartel lehiaketa

Kartel lehiaketa ere abian da, urtarrilaren 21a arte. Lanak bidali behar dira udaletxera edo kultura@aretxabaleta.eus helbidera. Hain zuzen, irabazleak 300 euro jasoko ditu.

RPS: 83/19

Durana
Hertz Klinika

**INPLANTOLOGIAKO
ESPEZIALISTAK 3D
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABAETA • TEL.: 943 79 93 55



Abenduan egindako ezohiko osoko bilkuran, 2024ko aurrekontuen gainekoak izan zituzten hizpide, besteak beste. IMANOL BELOKI

Lizitazioen berritzeak baldintzatutako aurrekontua, onartua

Eskoriatzako Udalaren 2024rako aurrekontua 6.101.465,43 eurokoa izango da, iazkoa baino %23 txikiagoa. EH Bilduren baiezko zazpi botoekin eta EAJren ezezko hiru botoekin onartu zuten udalbatzako kideek abenduan egindako bilkuran

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** 2023a amaitu aurretik onartu zuten 2024ko aurrekontua Eskoriatzako udalbatzako kideek. Udal Gobernuaren proposameneri ezetza eman zioten oposizio kideek, baina onartua geratu zen 6.101.456,43 euroko aurrekontua. Udal Gobernutik adierazi dutenez, "tentuz" jokatu nahi dute, inbertsioetarako mailegurik eskatu gabe eta lan baldintza hobekien eskainiz.

"Aurten, lizitazioak berritu egin behar izan ditugu, eta ahalgin handia egin dugu langileen baldintzak hobetzeko. Gainera, etxez etxeko zerbitzuak eta halakoek zaintzan eragin zuzena dute, eta horietan baldintza duinak izan behar dira; ezinbestekoa iruditzen zaigu hori zaintzea. Foru funtsa, berriz, 200.000 euro inguru gehiagokoa aurreikusten dugu 2024rako. 3,6 milioi

eurokoa. Beraz, laguntza ederra izango da", adierazi zuen osoko bilkuran Xabi Uriartek, EH Bilduko bozeramaileak. Gastuen eta sarreraren artean ez da margina handirik geratu, eta, hala, laster aktibatuko den soberakinetik bideratuko dituztela inbertsio berriak adierazi zuen Uriartek: "Soberakinetik bideratu nahi ditugu inbertsio gehienak eta etorriko direnak. Aurrekontuetan sartuz gero, mailegu bat eskatu behar genuke egin nahi dugun hori finantzarioki estaltzeko; gastuek eta sarrerak berdinak izan behar

LIZITAZIOAK BERRITZEKO AHALEGIN HANDIA EGIN DUTELA AZALDU DU UDAL GOBERNUAK

dutelako. Beraz, nahiago dugu mailegurik ez eskatu eta soberakinetik eragin".

Geotermia planarekin aurrera

Onartu dituzten aurrekontuetan, azpimarratzeko moduko inbertsioak dira Manuel Muñoz kiroldegiko ekipamenduetan egingo diren hobekuntzak (100.000 euro) eta Elizateetako landa bideak konpontzea eta bestelako beharrak asetzea (65.000 euro); iaz baino 40.000 euro gehiago, dirulaguntzak kontuan hartu gabe. "Inbertsioei dagokienez, argitu nahi dugu geotermia sistemaren proiektua ez dugula aurrekontuetan sartu. Aurreko agintalditik datorren gaia da, eta egitea da gure asmoa, baina aurrez egindako planteamenduari aldaketa batzuk egingo dizkiogu. Horren berri emango dugu aurrerago...", adierazi du

Lizitazioak berritzearen kostua

Lizitazioak berritu behar izan dituztenez, Udal Gobernuak adierazi du "ahalegin handia" egin dutela langileen baldintzak hobetzeko.

Lizitazioa	2023	2024
Lorategien eta berdeguneen mantentzea	123.000	159.163
Kale garbiketa zerbitzua	168.000	219.000
Etxez etxeko zerbitzua	200.000	319.500

ITURRIA: ESKORIATZAKO UDALA



Martitzenean jarri zituzten aldamiok, obra egiteko materialak igotzeko. I.B

Kiroldegiko lanak hasi dituzte

Manuel Muñoz kiroldegiko ekipamenduetan egingo den hobekuntza da inbertsio nagusietako bat -100.000 euro-. Aldamiok jarrita, hiru hilabeteko epean, eraikinaren sabaiaren eta bigarren solairuaren artean kirola egiteko eremu berri bat eraikiko dute.

Xabi Uriartek, Eskoriatzako EH Bilduko bozeramaileak.

Oposizioaren ezetza

Josu Ezkurdiak EAJko bozeramaileak adierazi zuenez, 2024ko aurrekontuak "eskasak" dira. "Inbertsio mailan, oso diru kopuru gutxi sartu dute. Esaterako, guk Hirigintza batzorde batean planteatu genuen San Pedro auzoko espaloi bat amaitzea, eta ez da agertzen aurrekontuetan. Musika eskola kultura etxera eramatea ere eskatzen genuen gure programan... eta aurrekontuetan ez

OPOSIZIOAK ADIERAZI DUENEZ, ONARTU DITUZTEN AURREKONTUAK "ESKASAK" DIRA

da agertzen. Ea datorren urtean sartzen dituzten aurrekontuetan; baietz esan dute. Zorionez, partida bat dago kiroldegian gimnasio berri bat egiteko. Proiektua guk kontratatu genuen, martxan dago, eta egingo da. Gobernuan sei hilabete egon eta gero, gasolina gabe geratu direla ematen du".

Dirulaguntzen plan estrategikoa

Aurrekontuez gain, 2024-2027ko ekitaldirako Eskoriatzako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoari hasierako onarpena eman zitzaion. Lau urterako plan estrategiko hori eta baita 2024ko ekitaldirako onartu den plana ere GAOn argitaratutako iragarki bitartez jendaurrean jarri dira, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzaten -udal webgunean informazio gehiago-.

TipiTapa guraso elkarteak hasi da urratsak egiten

Abenduaren 4an egin zuten haurren garapenerako elkarteko kideek elkartearen gaineko aurkezpena. Orduetik hona "bazkidetza-datu apartak" lortu dituztela adierazi dute TipiTapa kideek; 28 haur eta 23 familia daude, gaur-gaurkoz

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA 6 urtetik beherako haurren zenbait gurasok TipiTapa elkarteak sortu zuten abenduan, eta, proiektuaren nondik norako guztiak azaltzeko lehenengo aurkezpena egin ostean, lehenengo hitzaldia antolatu dute hilaren 18rako. Solido bidezko elikadura osagarria izango dute aztergai, kultura etxean, arratsaldeko bostetan. Hizlaria Ainitze Ondarra izango da.

Aurreikusitako bako harrera

Euskara ardatz du egitasmoak, eta dagoeneko espazio seguru bat dute Tortolis ludotekan, Eskoriatzako zenbait familiak Gabonetan erabili dutena. Hala, egoteko espazio seguru itxi bat izateaz batera, gurasoen eta haurren arteko harremanak sendotzeko helburua ere badu egitasmoak, eta horretan ari dira. TipiTapa guraso elkartearen bultzatzailea da Maite Santamaria eskoriatzarra, eta ha-



Santamaria, aurkezpenean. A. EZKIBEL

sierako urratsekin pozik agertu da: "Batetik, izan dugun harre-ra sekulakoa izan da; 23 familia batzea ez genuen aurreikusten. Bestetik, ludotekaren erabilera-ekin oso-oso pozik gaude erabiltzaile guztiok. Gainera, orain,

Gabonetan ludotekak ez duenez zerbitzurik eskaini, goizetan eta arratsaldeetan erabiltzeko aukera izan dugu. Zenbait helburu ditu TipiTapa guraso elkarteak, eta horietako bat da informazioa eskaintzea, elkarbanatzea, ikastea eta irakastea. Horretarako, hitzaldiak antolatzea nahia genuen. Kontuan izanda bazkide gehienok 0-1 urteko haurrak ditugula, solido bidezko elikadura osagarriaren gaineko hitzaldiaren aldeko hautua egin dugu oraingo honetan".

BLW metodoa aztergai

Solido bidezko elikadura osagarriaren gainekoa da elkarteak antolatu duen lehenengo hitzaldia -BLW delakoa-. Ainitze Ondarra dietetikan eta giza nutrizioan graduatua izango da hizlaria, eta sarrera doakoa izango da. Bestalde, hurrengo antolatu gabe izan arren, lehen sorospenekoa izango dela aurreratu dute.

Kaparrak taldearen emanaldia izango da Urrestilla tabernan

Kaparrak musika taldeak kontzertua eskainiko du zapatu honetan, 22:00etan, Urrestilla tabernan. Bederatzi musikariek osatutako Aretxabaletako taldeak 2023ko San Migel jaietan eskaini zuen estreinako kontzertua, eta, orainoan, Eskoriatzan izango da, runba estiloko musika aldarrikatzen. Ekain Eriz eskoriatzarrak hartu berri du Urrestilla taberna kudeatzeko ardura, eta, urte berriarekin batera, kontzertu bat antolatzeko gogoia zuen. "Lagun minak dira Kaparrak taldeko musikariak; beraz, emanaldia eskaintzera animatu dira. Tabernako komunaren sarreran jarriko dugu oholta...", adierazi du Erizek.

'Sahara, Herri bat erresistentzian' liburuaren aurkezpena

Eskoriatzan Feminismoa Bizirik Taldeak antolatuta, *Sahara, Herri bat erresistentzian* liburuaren aurkezpena egingo du Kristina Berazain *Berria*-ko kazetariak eta liburuaren idazleak gaur, egubakoitza, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Berzainek kazetaritza kronika egin du lan horretan; izan ere, Mendebaldeko Saharako gatazka aztertu du bertatik bertara, eta modu erraz bezain sakonean kontatzen ditu lanean sahararren kontakizunak eta lekukotzak, historiaren pasarteekin tartekatuz. Liburuaren aurkezpenaren ondoren, Bubishi elkartearen bitartez Hayuh Ramsi saharar musikariaren kontzertua izango da.

Sagardotegira irteera antolatu dute apirilaren 20rako

Telmo sagardotegixa izenpean, azken urteetan antolatu duten moduan, Iparragirre sagardotegira irteera antolatu dute Eskoriatzako gazteek. 11:30ean, Eskoriatzatik irtengo dira, autobusean; poteoa Astigarragan, bazkaldu Hernaniko Iparragirre sagardotegian, eta gero, parranda egingo dute Hernanin. 04:30ean izango da bueltarako autobusa. Hain zuzen, 45 euro ordaindu beharko dute joan nahi dutenek, eta autobuserako eta sagardotegiko fidantzarako 30 euro jarri behar dute. Aukera beganoa ere egongo dela jakinarazi dute antolatuzaileek. Izena emateko, 688 64 51 61 telefono-zenbakira *whatsapp*-a idatzi beharko da.



Martzelina Plazaolaren 100. urtebetetze ekitaldian. IMANOL BELOKI

100 urteak gertukoekin ospatu ditu Martzelina Plazaolak

Aurrekua, opariak, lore-sorta, argazki zaharrekin osatutako bideoa eta luntxa izan ziren ekitaldian

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Martzelina Plazaolaren familia-koak, udal ordezkariak eta lagunak batu ziren astelehenean, urtarrilaren 8an, ludotekan, Gatzagako nagusienaren urtebetetzea ospatzeko. 100 urte bete berri, osasuntsu, pozik eta eskertuta agertu zen eguneko protagonista antolatu zioten ekitaldiarekin. "Egun bikaina izan da gaurkoa; argazkiekin osatutako bideoa aparta jarri didate, ahazten ez diren oroitzapenekin... Azken finean, guztiok batzea beti da ederra...", adierazi zuen.

Maitasun osoz

Aurrekua egin zioten lehenbizi, eta musika jartzeaz herriko txistulariak arduratu ziren. Gero, ludoteka barruan jarraitu zuen ospakizunak. Dorleta Elkorobarutiak, Gatzagako alkateak, lore-sorta eman zion. Udalaren izenean; Toki Eder jubilatutako elkarteok oparia egin zioten, eta batutako guztien artean *Zorionak* abesteko tartea hartu zuten. Horrekin batera, argazki zaharrekin osatutako bideoa ikusi zuten, Martzelina gaztea zenetik gaur egunera arteko irudiekin.



AINHOA BARANDIARAN

Negulekuetan, ekintza bereziak

Azken urteetan moduan, Negulekuak ospatu dituzte hiru eguneko Gabonetan Leintz Gatzagako haurrek. Urte berriarekin batera, Gasteizko izotz pista joan ziren patinatzerara; Gatzagan bertan zenbait ekintza, jolas eta bestelako ere antolatu zituzten, ludotekan, eta zinemara joateko ere aprobeztatu zuten.

Bertako basoa argia ikusten ari da pixkanaka

2023a "oparoa" izan ostean, 2024ra begira jarrita dago Kukubaso elkarteak, "proiektu garrantzitsu" batzuekin. Udala lurak erosten hasi izana oso positibo ikusten dute: "Herri-lurak izatea da modu bakarra etorkizunean bertako basoa ziurtatzeko"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2021eko maiatzean sortu zen Kukubaso elkarteak, bertako basoa berreskuratzeko epe luzerako helburuarekin. Bi ikasturtean "ekintza garrantzitsu batzuk" garatu dituzte. Kukubasoko presidente Ainhoa Agirrebeñaren arabera, "oparoa" izan da 2023a: "Azpimarratzeko artean dago Agirretxeberriko proiektua amaitu dugula; garrantzitsua izan da guretzat, lehena izan delako eta jendaurrean geure burua aurkezteko balio izan digulako. Oso pozik gaude emaitzarekin, eta harro gaude gure deialdiek erantzun ona izan dutelako".

Agirretxeberri eta Erreziñategi

Agirretxeberri, zuhaitzak landatzeaz gain, ezkur biltzeko ere egin dituzte: "Bertako haritzen eta arteen ezkurak bildu izan ditugu, eta Agirretxeberri bertan dugun mintegietan sartu; espero dugu urtebete edo bi urte barru bertako landareak landatu ahal izatea. Hori da gure asmoa eta itzaropena".

Agirrebeñak azaldu duenez, beste urrats esanguratsu bat izan zen Gorla gaineko Erreziñategi eremuan 2023ko otsailaren 25ean landatu zituzten 1.090 zuhaitzak; orain arteko

landaketa handiena izan dena: "Lehen aldiz herri-lur baten egin genuen landaketa izan zen, oso garrantzitsua guretzat. Herriar boluntarioekin batera Udaleko brigadako langileen laguntza jaso genuen; esperientzia oso aberasgarria izan zen".

Udalarekin hitzarmena, mugarri

Horrez gain, Udalarekin sinatu zuten elkarlanerako hitzarmena

beste mugarri bat izan da Kukubasorentzat: "Baso Mahaia sortu dugu Udalarekin batera, basoen kudeaketara begira eragile bat izan nahi duena. Pixkanaka bada ere, bertako basoa garatu nahi dugu Bergarako inguruetan, Bergara bera herri bizigarriagoa izan dadin. Baso Mahaia lanean hasi berri da, eta espero dugu fruitu emankorrrak ematea".



Duela hilabete eta erdi inguru jarri zuten panela Agirretxeberri. KUKUBASO

Agirretxeberriko lanak, borobilduta

Agirretxeberriko lursaila lagapenean jaso ostean, hiru landaketa nagusi egin dituzte, eta mintegi bat egokitu. Proiektuari amaiera emateko, panel bat jarri dute, proiektuaren helburuak eta egin diren lanak zehaztuz: "Eskerrak eman nahi dizkiegu lagundu gaituzten guztioi".



Familia bat Agirretxeberriko eremura sartzen, 2023ko landaketa batean. KUKUBASO

Aurrera begirako ekintzei dagokien, urtarril amaierarako hitzaldi bat antolatuko dute, eta martxorako beste bat; horrez gain, beste pare bat landaketa ere badituzte aurreikusita: "Lehen landaketa ez da Baso Mahaia sustatua izango, Kukubasok baizik. Herriko enpresa batekin lur lagapen bat sinatzekotan gaude, oraindik gauzatu ez dena. San Martzial inguruan izango litzateke landaketa berri hori".

Bestalde, 2023 urte amaieran Udalak lurak erosteko abiatu zuen lehiaketa begi oso onez ikusten dute: "Herri-lurak izatea da modu bakarra etorkizunean bertako basoa ziurtatzeko".

Gorlako Itsasmendi eremua

Hurrengo Gorlara bidean dagoen Itsasmendi izango da, Udalak Aldundiarekin batera sei hektarea eta erdi erosteko asmoa du eta. "Errez kooperatibak egin du plangintza bat eta gu laguntzeko prest gaude. Asmoa da otsailaren 24an hasia Itsasmen-

di landaketak egiten; lursail oso handia da, eta lehena mugatutako eremu batean egingo litzateke", dio Agirrebeñak. Itsasmendiko eremuan, gainera, bertako basoa hasita dago bere bidea egiten: "Batzuetan, naturari lagundu egin behar zaio; eta beste batzuetan, haren bidea egin dezan utzi; Errez kooperatibak urte luzerako plangintza bat dauka esku artean, eta horretan laguntzea tokatuko zaigu".

Kukubaso txokoa liburutegian

Amaitzeko, Udala Liburutegian Kukubaso txokoa dagoela gogoratu dute: "Liburutegiko arduradun Milak hasieratik babestu gaitu, besteak beste, txokoa egokitzen eta liburuak katalogatzen. Oso eskertuta gaude".

HURRENGO LANDAKETA OTSAILAREN 24AN EGITEA AURREIKUSTEN DUTE, ITSASMENDIKO LUR EREMUAN

Emakumeek zientzian egindakoari balioa emateko lehiaketa

Laboratorium museoak aurten ere antolatu du emakume zientzialariek historian zehar egindako lanari balioa emateko lehiaketa, herriko ikastetxeekin elkarlanean. Lehiaketak interes handia piztu duela diote antolatzaileek, eta, horregatik, izen-emate epea urtarrilaren 19ra luzatu dute. Argibide gehiago: www.laboratorium.eus.

'Harixa' aurkeztuko dute 'Languages lanean' kongresuan

Udalak Bilboko Euskalduna jauregian -hilaren 18an- eta Guggenheim museoan -hilaren 19an- egingo den *Languages Lanean*. *Hizkuntza kudeaketaren erronkak jarduera ekonomikoan* izeneko kongresuan parte hartuko du *Harixa* ekimena aurkezteko. Kongresua doakoa da, baina aldeaz aurretik eman behar da izena: languagelanean.euskadi.eus.

Hilaren 15ean, sei urte plazan

Euskal Herriko pentsiodunek deialdi berezia egin dute urtarrilaren 15erako, "pentsio duinak" lortzeko borroka sei urte beteko dituela eta. *Lortutakoa ospatzea nahi dugu, falta dena lortuko dugu!* lelopean, elkarretaratzea deitu dute herriko plazetan, 12:00etan. Bergarako pentsiodunek talde argazkia atera dute asteon, deialdia iragartzeko.



BERGARAKO PENTSIODUNAK

Elementala, San Joxepe eta Agorrosin lehentasun

EAJk 2024ko aurrekontuetarako hamabi proposamen helarazi dizkio EH Bilduri, eta hiru proiektu idazteari eman diote garrantzi berezia: Elementala zena "kultura espazio" bihurtzea, San Joxeperen egoitza handitzea eta Agorrosin zelaiaren bigarren fasea

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2024ko udal aurrekonturako hamabi proposamen aurkeztu zituen EAJk eguazten iluntzean batzokian egindako prentsaurrekoan. EH Bilduren Udal Gobernuaren proposamena jaso, Mikel Lete bozeramaileak azpimarratu zuen ekarpenak egin nahi izan dituztela, bergararren bizi-kalitatea hobetzea helburu. "Ez dira EAJren aurrekontuak; guk beste partida batzuk bideratuko genituzke. Baina, proposamen hauekin, EH Bilduk aurkeztu diguna hobetuko genuke".

"Akordioetara heldu nahi dugu" Aurreko urteetan akordioetara heldu direla ere gogoratu du Letek: "2024ra begira ere gure helburua da ahalik eta adostasun gehien lortzea bergararren bizi-kalitatea hobetzeko. Egia da 2022ko eta 2023ko aurrekontuetarako adostu genituen hainbat puntu EH Bilduren Udal Gobernuak ez dituela bete; espero dugu 2024ra begira akordioetara heldu bagara EH Bilduk hitza beteko duela". Negoziazioak nola doazen galdetuta, honako hau erantzun zuen Letek: "Gaur [eguaztena] bidali dizkiogu gure ekarpenak EH Bilduri, eta ikusketako dago ze iritzi izango duten. Bestalde, esan digutenez, aurreikuspena da urtarrilaren 22an ezohiko bilkura deitzea aurrekontuak onartzeko, baina ez dago gutziz erabakita".

Elementala, "kultura espazio" Jeltzaleek hamabi proposamen aurkeztu dituzte, eta, horietatik, bereziki hiru nabarmendu dituzte. Lehena da Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoa den Elementaleko eraikin zaharra kultura ekipamendu bihurtzea, "kultura talde guztien elkarlanerako topaleku eta sorkuntzarako espazio" moduan. Proiektua idazteko 60.000 euroko partida eskatu



Galarraga, Lete, Etxaniz eta Sebal, eguazten iluntzean, batzokian. JOKIN BEREZIARTUA

EAJ-REN HELBURUA DA "AHALIK ETA ADOSTASUN GEHIEN" LORTZEA EH BILDUREN UDAL GOBERNUAREKIN

dute. Bigarren proposamena da San Joxepe elkarteak bizi duen "espazio faltari" aurre egiteko proiektua idaztea; horretarako, 50.000 euroko partida eskatzen dute: "Nabaria da San Joxepe elkarteak espazio falta handia duela; horixe helarazi izan digute bertakoak behin baino gehiagotan. Uste dugu unea dela, erretiratu elkartearekin elkarlanean, betiere, 2024an proiektua idazteko eta, ahaliko balitz, 2025ean exekutatzeko".

Jeltzaleen hirugarren proposamen garrantzitsua da Agorrosin futbol zelaiko bigarren fasearen proiektua: "2023an idatziko zela esan zuen Udal Gobernuak, baina ez du hitza bete; horregatik, proiektua elkarlanean aurtu idaztea eskatzen dugu. Zelaia aldatu zen, baina instalazioek hobetzeko beharra dute". 50.000 euroko

partida bideratu nahiko lukete bigarren fase hori idazteko.

Beste bederatzi proposamenak Gainerako bederatzi proposamenak honako hauek dira; diotenez, batzuk aurreko urteetako akordioetatik datozenak: Arin eguneko zentroan gaueko zerbitzua ezartzeko beharra aztertze "iazko konpromisoa" betetzea; Martokoa eta Zubiaurre kaleak berriro urbanizatzeko prozesua martxan jartzeko 50.000 euro bideratzea; Simon Arrieta plaza berriro urbanizatzeko "iaz hartutako konpromisoa" bete eta proiektua idazteko 40.000 euro bideratzea; Mugikortasun Plana martxan jartzeko 50.000 euroko partida; ibilgailu elektriko begira bi karga-puntu egokitze 30.000 euro; landa eremuko lursailen geolokalizatorako 60.000 euro; alokairuetarako dirulaguntzen kopurua igo eta 50.000 euro bideratzea; adikzioen partida 10.000 euro jaitzi dela-eta diru hori "beste adikzio batzuetara" bideratzea; eta udal langile asko erretiratu direla-eta egoera berrira moldatzeko azterketa bat egitea, 20.000 euro bideratuta.

Ohorezko kirol abonua jasotzeko proposamenak batu nahi dituzte

Udalak, gehienez, bost kirolari edo eragile sarituko ditu; hautagaiak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 19a da

J.B.L. BERGARA

Udaleko Kirol Zerbitzuak ohorezko abonatu txartelaren sarirako izen-ematea ireki du, urtarrilaren 19a arte. Sari hori antolatu dute 2023an hainbat bergarrek kirolaren alde egin duten edo aurretik egin izan duten lana eskertzeko edota kirol arloan lortutako emaitzak saritzeko helburuarekin.

Edozein herritarrek edo entitatek aurkeztu ahal ditu proposamenak, eta urtarrilaren 19a baino lehen aurkeztu behar dira, honako leku hauetan: BAZen, Agorrosinen edo Udalaren webgunean.

Ekarpenak edo emaitzak saritu Ohorezko txartelaren jabeak banakako abonua osoa doan izango du 2024ko hamabi hilabeteetan. Gehienez, bost txartel-sari banatuko dituzte. Otsailean

erabakiko dute zeintzuk izango diren urteko txartelarekin sarituak, eta horren berri emango dute Udalaren webgunean.

Txartel berezia nori eman zehazteko, baloratuko dute Bergaran kirol arloan egiten den ekarpena: kirolari, entrenatzaile, zuzendaritza-kide, sustatzaile edo epaileari, besteak beste. Honako kide hauek osatuko dute epaimahaia: 2023an ohorezko txartela jaso zuten Aitor Eraña eta Maria Sanchez; Bergarako Udaleko zinegotzi Olatz Manuel eta Kepa Sebal; eta Kirol zerbitzuburu Iñaki Ugarteburu.

2023ko ohorezko abonatu txartela jaso zuten, Erañarekin eta Sanchezekin batera, Pili Arinek, Maddi Barrocalek, Eujen Azpeitiak eta Josean Iñarrak; iaz, hoguei herritarrek eman zuten botoa, eta Asier Muñozek jaso zuen hiru hilabeterako doako abonua.

Umeentzako 'Loti ederrak' obra bihar Seminarixoa (18:00)

Glu-Glu taldearen *Loti ederrak* umeendako antzezlan ikusteko aukera egongo da bihar, hilak 13, Seminarixoa (18:00). Sarre-rak salgai daude *Seminarixoa.eus*-en, lau eurotan. Obraren sortzaileek diote ipuin klasikoa oinarri hartuta gai gatazkatsuek lantzen dituztela; besteak beste, umeen eta nerabeen sare sozialikiko menpekotasuna.



Loti ederrak obraren une bat. GLU-GLU

Xake ikastaroa: hasi eta hobetzeko saioak Zabalotegiko dorrean

Bergarako xake elkarteak ikastaroa antolatu du, herritarrek xakera hurbiltzeko. Hastapen mailako ikastaroa eta maila hobetzeko ikastaroa eskainiko dituzte, martitzen arratsaldeetan, elkarteak Zabalotegi dorreko azpiko lokaletan duen egoitzan. Eskolak doakoak izango dira; 15 euroko matrikula bakarra ordaindu beharra dago hasieran.

Izena emateko, bi telefono-zenbaki daude: 671 84 15 63 (Jon) eta 618 41 76 25 (Javi).

Antolatzaileek xakearen onurak azpimarratu dituzte: "Ondo pasatzeaz gain, gaitasun kognitiboak eta gaitasun psikosozialak garatzen dira. Modu alai, didaktiko eta dibertigarrian irakatsiko ditugu xakearen arauak eta historia, besteak beste. Nahiko genuke neskak ere etortzea, ezin da-eta ahaztu xakean ez dela sexuagatik edo adinagatik inor baztertzeko".

"Finala galdu arren, harro nago egindako lanarekin"

MIREN ELORZA SANZ EUSKAL SELEKZIOKO GAZTE MAILAKO ESKUBALOI JOKALARIA Gazte mailako euskal selekzioarekin joan den debagoiendar bakarra izan da bergararra, eta maila oso ona erakutsi du: "Oparia izan da niretzat, asko ikasi dut"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Euskal selekzioarekin lehen esperientzia bizi izan du Miren Elorzak (Bergara, 2007) Blanesen (Girona, Katalunia) jokatu den selekzio autonomikoen txapelketan, eta nekez ahaztuko du. Gazte mailan lehiatu da Elorza, eta, finalean Andaluziaren aurka 33-29 galdu ostean, zilarrezko dominarekin itzuli da Bergarara. **Nolako bizipena izan da selekzio autonomikoen txapelketa?**

Oparia izan da niretzat. Duela hilabete batzuk esan izan bazen euskal selekzioarekin txapelketa hau jokatu nuela, ez nizukeen sinistuko. Final bat galtzeak sentazio arraroa uzten du, baina, atzera begirata, oso harro eta eskertuta nago han egoteko aukera izateagatik.

Nola joan zen txapelketa?

Sei partidu jokatu genituen eta Andaluziaren aurka bakarrik galdu genuen, lehen partidua eta finala. Katalunia, Madril, Galizia eta Valentzia menderatzea lortu genuen, baina Andaluziak oso talde gogorra da, jokalaria askotxo dituzte Espainiako selekzioan. Sekulako kalitatea dute, eta nabaritu egin zen; hala ere, bereziki finalean, zail jarri genien garaipena.

Finalak irabazteko jokatzen direla esan ohi da...

Halaxe da, bai. Denok joan ginen urrezko domina lortzeko helburuarekin, baina esango nuke txapelketa hasi aurretik selekzioko jokalaria guztiok sinatuko genuela zilarrezko domina. Gure eskuetan zegoena egin genuen finala ere irabazteko, baina ez zen posible izan; hala ere, oso pozik eta harro gaude egindako lanarekin.

Taldea oso ondo, baina baita zu ere, ala? Pozik zeure buruarekin?

Oso pozik nago, bai. Gazte mailako lehen urtekoa naizenez, bazeuden urtebete nagusiagoak; pisu handiena eurek hartu zuten, neurri handi batean, baina



Miren Elorza, gola egitear, Andaluziaren aurkako finalean. LOLA JIMENEZ

"ESKUBALOIAZ HARAGO, SEKULAKO ESPERIENTZIA IZAN DA; EZIN DAITEKE GEHIAGORIK ESKATU"

gustura nago nire lanarekin. Eta, eskubaloiaz harago, sekulako esperientzia izan da. Jen-de berri asko ezagutu dut, harreman berriak egin ditut, kirolaren balioetan sakontzeko aukera izan dut... Ezin daiteke gehiagorik eskatu.

Babesik ere ez zitzaizuen falta izan...

Itzela izan zen. Gurasoak, lagunak... Babes handia sentitu genuen harmailetatik. Egia esateko, animo horiek behar-beharrezkoak izan ziren lorpenerako. **Txapelketa autonomikoa ondo pres-tatu duzue, ezta?**

Maiatzean hasi ginen lehen entrenamenduekin eta udan teknifikazio campus bat izan genuen. Irailetik abendura buru-belarri entrenatu gara txapelketarako. **Bergaran ere ondo doaz gauzak.**

Bai; Gipuzkoako Ligako liderrak gara gazte mailan. Oraindik partidu batzuk falta zaizkigu,

baina espero dugu Euskal Ligara igo ahal izatea; taldea oso motibatuta ikusten dut eta hori oso garrantzitsua izango da gure helburua lortzeko.

Eskubaloian gero eta neska gehi-go zaudete; zer ari da gertatzen?

Sekulako bilakaera nabaritu dut hasi nintzenetik gaur egunera.

Ni hasi nintzanean baino askoz neska gehiago dabil eskubaloian; bereziki, eskubaloi eskolan. Ilusio handiarekin ari dira, taldea sortzeko asmoarekin. Horrez gain, klubak helburu moduan zehaztu du senior mailako nesken taldea sortzea, urte luzez ez da-eta egon.

Lagata zuten jokalaria batzuk konbentzitu ditugu itzultzeko, eta, beraz, espero dugu helburua lortzea. Edozein neskari gomendatuko nioke kirola probatzeko; eta, bereziki, eskubaloia. Niri asko ematen dit; familia bat osatzea, balioak, estresa askatzeko modua...

Eskubaloia, musika, ikasketak... Agenda bete duzu, ala?

Saltsa asko dira eta ezinbestekoa da ondo antolatzea. Baina bai, ez gara aspertzen. **Ezer gaineratu nahiko zenuke?**

Eskerrak klubari eta taldekideei beti eman didaten babesagatik.



NIRE USTEZ

AINHOA PARDINA

Euskararekin abenturak bizi

Urteak abenturak bizitzeko direla esaten dute Pirritx, Porrotx eta Marimototsek. Abenturak bizi. Bizi. Batzuetan, nahikoa lan bizitzen. Nahikoa lan bizitzan. Baina abenturak bizitzen ditugu?

2023. urtea amaitu eta 2024ari ongiatorria egin diogun honetan, atzera begiratzeko gogoia daukat, bizitako abenturen bila eta hurrengo abenturak identifikatu nahian. Lagunekin nahiz bikotearekin bizitako mila abentura ditut gogoan, eta horietako asko euskararekin zuzenean lotuta daude: Lizarrara hainbat bidaia bertako gazteen artean euskarak duen lekua aztertzeko; Gasteizko Hala Bedi irradian euskarari buruzko hainbat elkarrizketa Euskal Herrian ditugun erreferenteetako batzuei; Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen topaketa eta munduan zehar egindako lagunak... Zerrenda amaiezina izan daiteke! Ezin esan euskaltzaletasunari esker abenturak bizi ez ditudanik. Auskalo 2024ak zenbat abentura ekarriko dizkidan, baina ziur inoiz ahazten ez diren horietako asko euskararekin lotuta egongo direla. Badakizu, irakurle! Gure pailazo maiteek esaten duten bezala, urteak bete eta abenturak bizi –euskaraz–!

Euskal Herriko mus txapelketa: Bergarako zita gaur, Artatsen

Euskal Herriko mus txapelketaren 15. edizioaren barruko Bergarako kanporaketa gaur, urtarrilak 12, jokatu da, Artatsen (22:00). Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko du eta Bergarako kanporaketatik sailkatzen diren bikoteak martxoaren 9an jokatuko den Gipuzkoako kanporaketarako sailkatuko dira; gaur-

ko txapelketatik hurrengo kanporaketara sailkatuko diren bikoteen kopurua gaurko parte-hartze kopuruaren arabera izango da. Honako hauek izango dira gaurko kanporaketako sariak: lehen bikoteak, batutako diruaren erdia; bigarren bikoteak, batutako diruaren %30; hirugarren bikoteak, bi txuleta eta sorpresa bat; eta laugarren bikoteak, untxia eta sorpresa.

Euskal Herri mailako finala martxoaren 23an jokatu da, Altzain (Zuberoa).

OHARRAK

Odol Emaileen Elkarte: 2024ko egutegi berria

Eguaztenez, urtarrilak 10, egin zuten urteko lehen odol ateratzea. Hurrengo ateratzea hilaren 24a izango da, San Joxepeko Arin eguneko zentroan, 16:30etik 20:30era.

Bergarako Orfeoien batzar orokorra

Urtarrilaren 25ean, sakristau etxearen egoitzan elkartuko dira. Lehen deialdia 20:00etan izango da eta bigarrena, berriz, 20:30ean.

Musika eskolako fanfarre taldearen entsegua

Hilaren 16an, musika eskolan elkartuko dira, 18:00etatik 19:30era. Parte hartzeko: 943 76 57 89 edo idez@bergarakomusikaeskola.com.

Euskal runba doinuak gaur Arrano tabernan

Raimundo El Canastero talde ezaguneko Txarrok, Caetek eta Senisak kontzertua emango dute gaur Arrano tabernan (22:00).

1956an jaiotako ospakizuna

Urtarrilaren 27an, Zumelagan bazkalduko dute. 12:30ean, Usoa tabernan elkartuko dira; 14:00etan, jatetxe atarian argazkia aterako dute; 14:15ean hasiko da bazkaria; eta ondoren, dantzaldia izango dute. Izena eman behar da hilaren 14rako: 630 62 61 30.



Gabon kantak protagonista izan zituen Bergara Kantuan saioa, abenduaren 27an, Simon Arrieta plazan. J.B.L.

Kalez kale kantuan, hilko ez den herriaren errepika

2023ko maiatzean sortu zuen Jardunek Bergara Kantuan ekimena, kalez kale euskal kantuek abesteko aspaldiko ohiturari eusteko asmoz; Gabonetan egindako saioan 50 bat lagun elkartu ziren, eta hurrengo Santa Ageda bezperarako dute aurreikusita

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Kantatzen duen herria ez dela inoiz hilko dio esakerak, eta Gabonetako egitarauaren barruan antolatu zuten Bergara Kantuan ekimena ikusita esan daiteke Bergaran oraindik badagoela esperantza. Euskal kantak kalez kale abestea da, bi hitzetan esanda, ekimenaren helburua, garai bateko ohiturari eusteko asmoz.

50 bat lagun batu ziren Gabonetako saio berezian, eta hurrengo saioa otsailean egingo dute, Santa Ageda bezpera ospatzeko. Antolatzaileen nahia izango litzateke saio horretara jende gehiago erakartzea.

Edonori zabalik daude

Jardun euskara elkarteak sortu zuen ekimena, 2023ko maiatzean,

Maitane Arizabaletak dioenez: "Jarduneko kide baten proposamena izan zen Kantu Jira antolatzea. Ideia ona iruditu zitzaigun eta Karlosekin [Etxaniz] jarri ginen harremanetan. Hasieratik genuen garbi ekimen herrikoa izatea nahi genuela, edonork parte hartzeko modukoa. Euskal kantutegian oinarritzen ditugu abestiak, transmisioa ere

Jardun euskara elkarteak sortua



MAITANE ARIZABALETA
JARDUN EUSKARA ELKARTEA

"Udaberrian bi saio eta udazkenean beste bi egiten ditugu, eta gero, Gabonetan eta Santa Ageda bezperan saio berezi bana. San Joxepeko entsegetan ez, baina saioetan hainbat elkartzen gara, askok hartu dute ohitura etortzeko; ateak zabalik ditugu... Etorri eta probatu, lasai asko".



KARLOS ETXANIZ BERGARA
KANTUAN EKIMENEN GIDARIA

"Askok gustatzen zaigu kantuan egitea, eta bagabiltza hainbat taldetan, baina halako ekimen bat falta zitzaigun herrian. Eta ederra da Jardun egotea ekimenaren atzetik, ezin dugulako ahaztu euskaraz abesten dugula. Garaiaren arabera, gainera, erreperitorioa egokitu egiten dugu".

bermatzeko eta, batez ere, herriarrek euskal kantuekin gozatu dezaten". Ohiko saioak domeka eguerdian izaten dira, San Martin plazatik abiatuta. "Saiatzen gara auzoetara ere joaten, ez dadin bakarrik erdiguneko jendea animatu. Ateak zabalik ditugu; etorri eta probatu, lasai asko", dio Arizabaletak. Parte hartu nahi duenak Jardun elkartera jo dezake -605 71 24 69 edo jardun@topagunea.com, edo saiora joan.

Abesti herrikoiak eta ezagunak

Kantuan egiten dituzten kalejirak gidatzen aritzen da Karlos Etxaniz; besteak beste, orfeoian ibilbide luzea daraman bergararra: "Aberatsa da euskal kantutegia, eta saioen aurretik aukeraketa bat egiten dugu; saiatzen gara herrikoienak eta ezagunenak diren abestiak aukeratzeko, ia

denok ezagutzen ditugunak. Entseguak ere egiten ditugu, San Joxepe elkartearen; ez dago entseatzeko beharrik, abesteko ditugun kantuen letrak ere eskura banatzen ditugu... Zenbat eta jende gehiago etorri, hobeto".

Gabon kanten saiora lehen aldiz joan zen Maria Jesus Gantxegiren esperientziak argi uzten du gozatzeko zita dela: "Lehen aldia da, eta oso gustura egon naiz; ez da azkena izango. Beti gustatu izan zait kantua eta dantza, baina lehen aldia da lotsak alboratu eta kalera kantuan irten naizena; gomendatuko nuke".

HURRENGOAN PARTE HARTU NAHI DUENAK SAIORA BERTARATU EDO JARDUNEKIN JAR DAITEKE KONTAKTUAN

Iraitz Artola irabazle kartzela zaharreko xake txapelketan

Bost minutuko partida azkarrak jokatu zituzten; 26 xake-zale batu ziren, inoizko partaide kopuru handiena

J.B.L. BERGARA

Arrakastatsua izan zen urtarriaren 7an kartzela zaharrean jokatu zen xake txapelketa; 26 lagunek eman zuten izena, inoizko kopuru handiena. Bergarako, Arrasateko eta Azpeitiko jokalariak aritu ziren lehen, bost minutuko partida azkarretan.

Xakea errotuta dago Bergaran

Iraitz Artola bergararra izan zen irabazlea, finalean Jose Andres Perez azpeitiarrarekin lehia es-

tua izan ostean; puntu erdiko abantailarekin irabazi zuen Artolak txapelketa. Amaieran, pozik zegoen antolakuntzako kide Aritz Arizabaleta: "Partaide gehien egon den urtea izan da, eta esan daiteke indarra hartzen eta errotzen ari dela. Garai batean gazteak ginenok ez gara horren gazteak, baina ikastaro batzuk eman izan ditugu belaunaldi berriak erakartzeko, eta, pixkanaka bada ere, helburua lortzen ari gara. Gaztetxean zein herrian, xakea osasuntsu dago".



Hiru onenak trofeoekin, ezkerretik eskuinera: Perez, Artola irabazlea eta Oxan. A.A.

Lanak amaituta, itxura berria du pilotalekuak


Argiteria berria jarri dute eta irisgarritasuna "hobetu" dute, komunak egokituta eta aldageletara arrapala bat eginda. Kantxa, pasilloa eta aldagelak pintatu dituzte eta, azkenik, garbiketa orokorra egin dute. Kanpoko frontoia ere hizketagai da

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

3.092.298 euroko aurrekontua onartu zuen iaz joan den agintaldiko Antzuolako Udal Gobernuak, eta inbertsioen artean handienetako bat zen Udal Pilotalekua eraldatzeko lanak egitea: zehazki, 110.000 euro zehaztu zituzten horretarako. Bada, urtebeteren ondoren, itxura berria du frontoia, dagoeneko amaitu baitituzte obrak.

Lau izan dira pilotalekuan eginiko aldaketa handienak, Olatz Lezeta Antzuolako alkateak jakinarazi duenez: argiteria berria jarri dute kantxan, pasilloan eta aldageletan, sistema elektriko guztia aldatuta; horrez gain, komun irisgarri bat egin dute, eta, irisgarritasuna hobetze aldera, arrapala bat ere egin dute. Kantxa, pasilloa, aldagelak eta komunak pintatu egin dituzte, eta baita lurreko zein paretetako seinalazioa ere: esaterako, errotulazio berezia egin dutela



Udal Pilotalekuan komunetara eta aldageletara eginiko arrapala. A.R.K.

adierazi du; ikurrina, kasu. Azkenik, behin lan guztiak amaituta, garbiketa orokorra egin dute. Era horretan, Udalak helburu izan du "ekipamenduak irisgarriagoak izatea", Lezetak nabarmendu duenez. Are gehia-

go, baita kontsumo gutxiagokoa izatea ere: LED argiak jarrita, adibidez.

Kanpoko frontoi txikian ere aldaketak egin nahi dituzte, esaltzea baita asmoa, baina prozesua "korapilatsua" izaten ari

dela adierazi du alkateak. Izan ere, joan den agintaldiko udal gobernukideek 90.000 euroko diru partida bat zehaztu zuten lan horiek egiteko, baina korporazio berriak erabaki du gaia "sakonki" aztertzea egun esku artean dituen baliabideekin. Hala, nabarmendu dute diru kantitate hori "ez dela nahikoa" proiektua aurrera eramateko. Beraz, gaur-gaurkoz, ez dago data zehatzik lanak egiteko.

Bestelako inbertsioak

Udal Pilotalekuan lanak egiteaz gain, joan den agintaldiko Udalak xede zituen beste inbertsio batzuk ere, eta horren berri eman du Lezetak. Proiektuetako bat zen, esate baterako, Antzuolako Herri Eskola barruan eta kanpoan megafonia jartzea, 22.000 euroren truke, eta udan egin zituzten lan horiek. Horrez gain, loreontziak eta landareak erosteko asmoa ere bazen, 15.000 euroko diru partidarekin. Azkenean, hamabost erosi zituzten, 6.000 eurotan; hala ere, jarri gabe daude oraindik.

Zehaztutako beste inbertsioei dagokienez, egiteko daude batzuk: Olanan etxeko argiteria berritzeko, adibidez, 22.000 euro zehaztu zituzten 2023rako, baina Udal Gobernuak uste du "motz" gelditu zela, eta 37.000 eurora aldatu dute diru partidaren zenbatekoa, lanak ahalik eta azkarren egin ahal izateko aurten. Horrez gain, 30.000 euro jaso

zituzten Zurrategiko kioskoa egokitzeke, baina, oraingoan, ez da egin, gaia bideratzen ari diren arren.

Errekaldeko urbanizazioari dagokionez, irailaren 15az geroztik martxan dira lanak, 800.000 euroko kostuarekin, eta otsailean amaitzea da aurreikuspena, eguraldiak egoera mugatu dezakeen arren. HAPO Hiri Antolamenduko Plan Orokorra ere aurrekontuetan jasota zegoen, eta prozesua abian da: aurrerapen dokumentua eginda, herritarren iradokizunak jaso dira.

Biltegia, azkenean, ez

2023ko aurrekontuetan zen biltegi berria erostea ere, 210.000 euroko diru partida zehaztuta, baina egungo Udal Gobernuak erabaki horrekin aurrera ez egiteko hautua egin zuen. Izan ere, Lezetak adierazi duenez, dagoen biltegia "txukunduta eta aldaketa batzuk eginda, espazio berri baten beharrik ez dagoela" ondorioztatu zuten, eta hori izan zen erabakiarekin aurrera ez egiteko arrazoi nagusienetako bat. "Aurrerago beharra ikusten bada, berrekingo diogu; oraingoan, gelditu egin da".

2023AN ZURRATEGIKO KIOSKOA EGOKITZEA ZEN ASMOA; EZ EGIN ARREN, GAIA BIDERATZEN DABILTZA

Lauaxeta olerki lehiaketan lehen saria eskuratu du Maite Toledok

Lehenengo aldiz aurkeztu da sariketara antzuolarra, eta "pozarren" jaso du saria; testuak lantzen dihardu

A.R.K. ANTZUOLA

2023ko Lauaxeta olerki lehiaketako lehen saria eskuratu du Maite Toledok. Mungiako Udal (Bizkaia) da antolatzailea, eta Esteban Urkiaga *Lauaxeta*-ren olerkigintzako hitz bat edo olerki bat hautatzen du gaitzat. "Badakit zen aurten. Banuen hitz horrekin ondo egokitzen zen olerki sorta bat edo olerki bilduma handiagoko baten parte bat, eta bidali egin nuen".

Olerkietan azaldu nahi duena aintzat hartuta, nabarmendu du "zaila" iruditzen zaiola: "Beti



Maite Toledo, Bergaran. A.R.K.

dago estetika bat olerkigintzan; saiatzen naiz hitzekin edertasuna sortzen. Eta bada galdera batzuei erantzuna topatu nahia. Batzuetan, galdera existentzialak dira, norbere buruarekin lotuak; beste batzuetan, kolektiboarekin edo inguratzen gaituen kolektibo horrekin lotuak".

Literatura, alboan

Lehen aldiz aurkeztu da Toledo lehiaketara, baina alboan izan du urteetan literatura; olerkiak ez ezik, beste testu mota batzuk ere idatzi ditu: "Beti izaten ditut gauzak esku artean: batzuetan, aparkatuta; beste batzuetan, jardunean. Badut *Hemen* izena duen liburu bat, frantsesera eta ingelesera itzuli dutena. Laster izango da formatu digitalean ere, Etxepare Euskal Institutuak duen plataforma batean".

Nerabeak eta buru osasuna izango dira hizpide astelehenean

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, *Osasun mentala eta nerabeak* hitzaldia antolatu du Antzuolako Udalak, gurasoentzat. Estibaliz Antsoategi izango da hizlaria, eta astelehenean, hilaren 15ean, izango da, 18:30ean, Olango bigarren pisuko areto nagusian.

Psikologian lizentziatua da Antsoategi, eta Ortzadar enpresan dihardu lanean 2002az geroztik osasunaren prebentzio eta sustapenerako proiektuetan hezitzaile eta koordinatzaile. Irakasleei, familiei eta bestelako osasun eragileei ere prestakuntzak ematen dizkie arlo horretan, eta, oraingoan, Antzuolan izango da azalpenak ematen.

OHARRAK

Odol ematea

Odola emateko aukera izango da martitzenean, urtarrilak 16, Torresoroan, 16:30etik 20:30era bitartean.

Inauterietan bazkaria

Otsailaren 10ean ospatuko dira inauteriak, eta Udalak bazkaria antolatu du. Txartelak salgai daude Bibe plataforman: helduak, 22 euro; ikasleak, 18 euro; eta, haurrak, 11 euro.

Dantza entsegu

Oinarin dantza taldeak dantzak egingo ditu inauterietan, otsailaren 10ean. Entseguak eguaztenetan izango dira, 20:00etan, Torresoroan.



Antzuolako Udal Liburutegian dagoen komikien txokoa. A.R.K.

Liburutegira gerturatzea xede, komikien bitartez

Antzuolako Udalak eta Udal Liburutegiak elkarlanean, gaztetxoentzako irakurketa klub bat eratu nahi dute; euskarazko komikiak oinarri, Mari Garcia eta Mattin izango dira gidari egingo diren hiru saioetan. Horrela, irakurzaletasunean eragin nahi dute

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarría ANTZUOLA

8 eta 12 urte arteko gaztetoak liburutegira eta liburutetara gerturatze asmoz, *Ilustrazioz blai* izenpean irakurketa kluba jarri nahi dute martxan Antzuolako Udalak eta Udal Liburutegiak, komikiak bitartekotzat erabiliz. Horretarako, astelehenean, urtarrilak 15, irekiko da izen-emaitea, hilaren 27ra arte.

Komikia edo eleberri grafikoa adin tarte horretan asko irakurtzen den genero narratiboa dela adierazi du Ane Leturia Antzuolako liburuzainak. "Uste askoren aurka, komikiak irakurtzea irakurtzea da. Istorioak kontatzen dituzte, eleberriek bezalaxe; gehienetan, hitzak irudien bidez osatzen dira, irudiz bakarrik osatutako komikiak ere badauden arren". Haren arabera, komikia "geroz eta indar handiagoa" ari da izaten adin tarte horretan, eta irakurketa ohitura ere "nahiko errotuta" dago, baina uste du "beheranzko joera" hartu

duela. "Irakurzaletasuna sustatzea laguntzeko asmoa du ekin-tza horrek".

Komikiak, gainera, euskarazkoak izango dira. "Agian, adin tarte horretarako eskaintza ez da oso zabal euskarazkoetan. Ez da gazteleraizkoaren adinakoa, eta, irakurketaz gain, hizkuntzan ere eragin nahi da ekimen horrekin". Horretarako, Leturiak gaineratu du badela gaztetxoentzako komikiz osatutako txoko bat liburutegian, "urtez urte hazten" doana, eta erabiltzaileen proposamenak ere jasotzen dituztela. Ekimen horrekin, ordea, beste urrats bat egin nahi dute: "Eurek ere eskaintzan aukera izatea, liburutegitik antolatzen diren ekintza gehienak ez bai-

UDAL LIBURUTEGIAN BADA KOMIKIZ OSATUTAKO TXOKO BAT, URTEZ URTE "HAZTEN" DOANA

taude adin tarte horretara zuzenduta".

Guztira, hiru saio

Hiru saio zehaztu dituzte klubean, eta Mari Garcia eta Iñaki Martiarena *Mattin* izango dira dinamizatzailerak: otsailaren 29an, apirilaren 18an eta maiatzaren 16an. Liburutegian izango dira hitzorduak, 17:00etatik 18:00etara, eta lehenengo bietan Garcia izango da dinamizatzailera. Aurrez hautatutako komikiak landuko dituzte, parte hartzaileei ale bana emanda. Hirugarren saioan, berriz, Mattin izango da gidari, ilustrazio tailer batean.

Hala, asmoa da hamar laguneko taldea osatzea, eta, beraz, antolatzaileek ohartarazi dute plazak mugatuak direla. Izen emate ordena errespetatuko da, eta interesa duen orok liburutegian eman dezake izena. Baita liburutegia@antzuola.eus helbidean, mezu bat bidalita, edo 673 90 53 28 telefono-zenbakira deituta.



Joan den abenduaren 31n Irimon eginiko mobilizazioa. MEAKA-IRIMO HERRI PLATAFORMA

Trekutz parke eolikoari eginiko alegazio teknikoak hizketagai

Udalak, Ibarraren azalpenekin, landu duen txostenaren berri emango du eguenean, Torresoroan, 18:00etan

A.R.K. ANTZUOLA

Antzuolako Udalak, Urretxuko Udalarekin elkarlanean, Valentin Ibarra geologoa kontratatu du Trekutz parke eoliko proiektuari alegazio teknikoak jartzeko, eta azalpenak emango ditu urtarrilaren 18an, eguena, 18:00etan, Torresoroan. Alegazioen txostena aurkeztuko du, eta, horretarako, alboan izango du Javier Alday industria-ingeniarri elektrikoa ere, euskarazko azalpenak ematen.

Hain justu, urtarrilaren 30ean, martitzena, izango da Cilda Energy SLU enpresaren proiektuari alegazioak aurkezteko azken eguna.

Plataforma ere martxan

Udala ez ezik, Meaka-Irimo herri plataforma ere martxan da parke eolikoaren aurka. Abenduaren 31n, esate baterako, *Irimon eolikorik ez* lelopean, dozenaka herritar batu ziren Irimon. Horrez gain, alegazioak batzen eta txosten bat ontzen aritu da, eta herritarrek ere izan dute sinatzeko aukera; are gehiago, datozen egunetan ere kalean izango dira zeregin horretan eta informazioa banatzen.

GORA ETA BEHERA



Irimoegigoena auzoan zikinkeria

Iralatorre baserriaren azpian dagoen bankuaren inguruan zikinkeriaz beteta aurkitu zuen herritar batek; litxarrerien poltsak jaso gabe, lurrean botata. Ez da lehen aldia izan.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Otsailaren 3an esnatuko da aurten Hartza Elgetan

Kokoak hasita daude baserriz baserriko ibilbidea prestatzen. Egun osoko festa iragarri dute; Goimendi, Arantzeta eta Larrabilzearra auzoetako ateak joko dituzte. Parte hartu nahi dutenek zabalik dute izen-ematea, buztin gelako erakusketan

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

"Batzuekin izan gara egunotan, eta kokoen bisita gustura hartuko dutela adierazi digute hainbat baserritan", azaldu dute orain dela hiru urte koko-batzea antolatzeari ekin zion Goibeko Euskaltzaleen Topagunetik. "Ideia da aurreko urteetan konpartsa heldu ez den baserrietara heltzea aurten".

San Blas egunarekin, otsailaren 3an, esnatuko da Hartza Elgetan. Ospakizun eguna izan ohi da Arantzeta auzoko ermitan, eta are bereziagoa izango da aurten; izan ere, kokoen konpartsa eguerdian bertaratuko da. Gainerakoan, egun osoko festa izango da. 08:00etan, gosaria Ozkarbin; 09:00etan, koko-batzea Goimendi eta Arantzeta auzoetan; 14:00etan, bazkaria Ozkarbin; eta arratsaldean, koko-eskea Larrabilzearra auzoan. 18:00etan, Ustekabe txarangarekin elkartu eta erdigunean amaituko da festa.

Izen-ematea zabalik da

Aurreko urteetan 60 bat laguneko taldea elkartu da. Jan-edanak ondo kalkulatzeko garrantzitsua da izen-ematea aurretik egitea. Horretarako aukera dago buztin gelan zabalik den erakusketan. Prezioak dira: 12 euro



Koko-batzea Larrabil baserri atarian. L.Z.L.

16 URTETIK GORAKO HERRITAR OROK HAR DEZAKE PARTE BASERRIZ BASERRIKO KOKO-BATZEAN

20 urtera artekoendako eta 20 euro 20 urtetik gorakoendako. Prezio horretan sartzen dira eguneko jan-edanak, garraioa eta antolaketa. Informazioa zabalitzeko eta antolaketa egokirako Telegram taldea sortu zuen

orain bi urte Goibekok. Telefono-zenbakia ematea nahikoa da talde horretara gehitua izateko.

Pertsonaia ugari aukeran

Kokoen konpartsa pertsonaia multzo batek osatzen du. Gorriak edo masustak dira kopuruz nagusienak, baina badaude bestelakoak ere: mamarruak, burburixuak, sasi-kartia, abadea, emaztegaia... "Jantzi horiek prest daude. Inork janzteko kapritxoia balu, esan besterik ez du. Etorri lehenbailehen erakusketara eta aukeratu zurea".



Aritz Otxandiano, Roberto Sanz eta Maialen Garate. FAGOR-IXOTZEN

Fagor Taldeak, 50.000 euroko ekarpena Ixotzen komunitateari

Hitzarmen bat sinatu dute alde biek; kooperatiba energia-komunitatearen bazkide laguntzailea da orain

L.Z.L. ELGETA

Ixotzen energia-komunitateko Roberto Sanz eta Maialen Garate martitzenean elkartu ziren Fagor Taldeko Iraunkortasun arduradun Aritz Otxandianorekin. Sinatutako hitzarmenaren bitartez, Fagor Taldeak 50.000 euroko ekarpena egingo dio Elgetako energia-komunitateari, eta, horrekin batera, bazkide laguntzaile izaera hartu du.

Gaur-gaurkoz, bi dira kooperatiba taldearen babesa duten Debagoieneko energia-komunitateak: Ekiola eta Ixotzen. "Energia berriztagarrietan sakondu

beharra dago. Horiei ekarpena egiteko konpromisoz dihardu Fagor Taldeak", azaldu du Otxandianok.

Elgetako komunitatearen lehen urratsa frontoiko teilatuan 45 kilowatteko instalazio fotovoltaikoa egitea izango da. "Interesa adierazi dute dozenaka familiak eta hainbat elkartek eta negoziok. Autokontsumo partekatuko instalazioa izango da", gogoratu du Roberto Sanz presidentek.

Laster jarriko dute martxan bazkidetza-kanpaina. Argibideetarako: ixotzen@gmail.com.

Korrika batzordeak martitzenean egingo du bigarren bilera

2015a ezker Korrika Elgetatik pasa barik dago, baina oraingoan bai: martxoaren 20an helduko da, 08:34an, Bergaratik. Ondoren, Zaldibarrerako noranzkoa hartuko du Aixolako bidetik. Hori horrela, Elgetako Korrika batzordea martxan da. Martitzenean egin zuten lehen batzarra eta hilaren 16an egingo dute bigarrena, 18:30ean, udaletxean. Gari Andueza da Debagoieneko Korrika koordinatzailea. Batzordearen lehen egitekoak dira Korrika laguntzaile eta Korrika lagun kanpainak bultzatzea. Arropa salmenta ere egingo dute. Urtarrilaren 19an eta 20an, Korrikako arropa erosteko aukera izango da herrian.

OHARRAK

Neguko bolak

Jaurtialdi irekia, gaur, 22:00etan, bolatokian.

Manifestazioa Bilbon

Autobusa 14:45ean irtengo da. Izen-ematea, Haizea tabernan.

Mendi taldea

Urtarrileko martitzenetan bazkide egiteko zein federatzeko aukera, 19:00etan, kultura etxean.

Frontenis eguna

Hilaren 20rako antolatuta dute. Afarirako izen-ematea zabalik da, bolatokian.

Xalbadorpek batzarra

Martitzenean dute urteko batzarra, 17:00etan, Ozkarbin.

Erakusketa zabalik da buztin gelan

Aurreko urteetan moduan, koko-batzea zer den ondo islatzen duen erakusketa dago zabalik buztin gelan. Hartza da pertsonaia nagusia, baina zerrenda luzea da: gorriak, mamarruak, burburixuak, sasi-kartia, masustak, emaztegaia...

Erakusketa aste bukaeretan egongo da zabalik, eta han egin behar dira koko-batzerako izen-ematea eta ordainketa.



Buztin gelako erakusketan ikusgai dauden pertsonaiaetako batzuk. L.Z.L.

KONTU KONTARI

Iñigo Barrena Kortabarria ELGETA

Nerea Arantzeta Ulazia 1943an jaio zen, Elgetan. Ikasketak Donostian eta Eibarren egin ostean, 20 urterekin Cambridgera abiatu zen, ingelesa ikastera, bi urtez. Itzuleran, lehenik, Arrasaten euskara irakasle eta, ondoren, urte luzez Elgetako Ikastolan ingeleseko irakasle aritu zen. Bien bitartean, herrian hain ezaguna zen Martintxo tabernan hainbat bizipen izandakoa ere bai, herriko jaiak, uda sasoi etortzen ziren "beraneanteak"... Garai haietan Elgetan "jende asko" egoten zelan aitortze du. Bizitzako pasarte horiei guztiei buruz patxadaz aritu da *Kontu kontari* saioan, Onditz Villa albarekin batera.

Ikasketa garaiak

10 urtera arte Elgetako mojetan egon ostean, Donostiako Tere-siarretara joan zen, eta han bizi izan zen, baina oroitzapen onik gabe: "Oso gaizki egon nintzen han. Lehenik, ingreso egin behar zen, eta ondoren, batxilergoa. Baina batxilergo sasoiaren joatea erabaki nuen. Aste osoa eskola barruan egiten genuen, eta igandeetan soilik ateratzen ginen paseora, uniformearekin eta binaka hondarretaraino, eta buelta. Batzuetan, aitaren lehen-gusina bat etortzen zen bisitan, eta hori zerua izaten zen, baina amaitutakoan, buelta. Etxe-premia nuen, eta Eibarrera joan nintzen orduan".

Industriari zegokionez, toki garrantzitsua zen Eibar, eta izeba-osaben etxean egon zen, ikasketak Aldatze eskolan egiten zituen bitartean; orduko oso bestelako oroitzapenak ditu. Aste osoa egiten zuen Eibarren, eta eguenetako hitzordua Astelena pilotalekukoa izaten zen; pilotari ezagunak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuen. Zapatu arratsaldeetan itzultzen zen etxera, Elgetara.

Elgetatik Cambridgera

Eskolako garaiak igarota, 20 urte zituela, Bilbotik Londrese-

"ORDUKO GOBERNADORE ZIBILA ASKOTAN ETORTZEN ZEN GURE ETXERA BAZKALTZERA"

"Gaur egungo Elgetak ez du lehengoarekin zerikusirik"

NEREA ARANTZETA ULAZIA

Cambridgen ingelesa ikasita, irakasle lanetan aritu zen urte luzez ondoren Elgetan; orduko anekdota eta kontuak ekarri ditu gogora Goienako 'Kontu kontari' saioan



Nerea Arantzeta Ulazia, Elgetako eskolan. MARKEL ARRAYAGO

ra hegazkinez eta Londrestik Cambridgera trenez iritsi zen, ingelesa ikasteko asmotan. Unibertsitateko irakasle zen gizon baten familiaren etxean egon zen bizitzen bi urtez; Gabonetan eta ikasturte amaieran itzultzen zen etxera: "Hainbat lekutatik joandako zortzi pertsona elkar-tu ginen han; tartean, gainera, gaur egun Norvegiako erregina denaren iloba ere bai. Oso jatorrak ziren. Gabonetan eta ikasturte amaitez etxera itzultzen nintzen, eta gogoan dut jertse mordoia ekartzen nituela opari".

Irakasle urte luzez

Ingalaterratik bueltan, urtebete egin zuen Donostian erresidentzia batean, eta gero, Arrasate-

ko ikastolan, gaur egun Kulturate dagoen tokian hasi zen irakasle lanetan. "Eraikin zaharra zen eta arratoiz beteta zegoen, gainera. Paperak kaxoietan utzi eta hurrengo egunean dena txikituta uzten zuten", dio Arantzetak. Eskolak ematera joateko bidea ere ez du berehalakoan ahaztuko. "Beldurgarria zen Kanpanzartik igarotzea; dena zen kontrola eta Guardia Zibila", dio elgetarrak. Geroago iritsi zen irakasle izatera Elgetara. 80ko hamarkadan ekin zion ingeles eskolak emateari; herrian lehenengoetakoa izan zen ingelesez jakin zuena. Orduko eta oraingo metodoek zerikusirik ez dutela aitortu du: "Ez genuen libururik, dena entzunez ikasten genuen. Ezin da gaur egungo liburuekin eta metodoekin konparatu".

Martintxo taberna

Elgetan aski ezaguna izan den taberna, jatetxe edo ostatu moduan ezagutu izan zuten herri-tarrek Martintxo. Garai haietan Elgetak oraingoarekin "zerikusirik" ez duela aitortu du Nerea Arantzetak, eta mugimendu "handia" egoten zela euren etxean; tartean, kooperatibetako bilerak, txirrindulariak eta uda sasoiaren "beraneanteak" ere bai. Goi karguek ere bisitatzen zuten Martintxo: "Orduko gobernadore zibila ere askotan etortzen zen. Lehendabizi, etxe aurrean egin zuten etxeen giltza ematera etorri zen, eta, harrezkero, domeka askotan etortzen zen familia guztiarekin bazkaltzera".

Urte osoan egoten zen jendea, eta herriak ere beste bizitasun zuen, taberna, denda eta jatetxe ugari egon baitziren sasoi batean. Mendira joateko ohitura ere "domekaro" zegoela aitortzen du, eta, nola ez, jaietan giro aparta egoten zela: "Andramai-xetan jende asko etortzen zen. Lehen egunean Eibarko bandak jotzen zuen eta bigarrean, Bergarakoak. Hirugarren egunean, Zezen Txiki Egunean, sokamuturra egoten zen. Beti izaten zuen zezenak gure etxera sartzeko saiakera bat, baina ez zuen lortzen".

"Ikasteko esango nieke gazteei"

Elgetako etorkizunari "brillantezik" ez diola ikusten dio Arantzetak, eta bertako gazteei "ikasteko eta ikasteko" gomendioa ematen die. Gainera, haren ustez, jendea hona etorri da eta gazteek, berriz, lan bila "kanpora" joan beharko dute.



Elkarrizketa bideoan ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.



Bi emakume oinez Oñatiko plazan. O.E.G.

Jabetze Eskolak prest dauka eskaintza berria

Iraupen eta gai ezberdinak dituzten bederlatzi ikastaroz gain, Selma Huxley Barkham bekari esker sortutako 'Oñatiko emakume mojen izaera, bizimodua eta ekarpena ikuspegi feministatik' lana aurkeztuko dute eta erakusketa egongo da, besteak beste

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Hilaren amaieratik maiatzera bitartean iraungo du da Jabetze Eskolaren urteko bigarren denboraldiak. Ikastaroak ez ezik, *Oñatiko emakume mojen izaera, bizimodua eta ekarpena ikuspegi feministatik* lana aurkeztuko da eta horren inguruko erakusketa egingo da; Selma Huxley Barkham ikerketa bekarekin egindako lana. Depresioari buruzko solasaldia ere antolatuta dute.

Talde zehatzetarako

Ikastaroen artean, bi berri daude talde zehatzetara bideratuta: banandutako emakumeendako osatze eta ahalduzko tailerra da bat eta migrazio doluari buruzkoa bestea. Launa saio egongo dira, zapatu goizetan denak. Dorleta Kortazar eskoriatzarrak, bestalde, ipuinak hartuko ditu ahalduzko tresna moduan eta plazeraren eta autoestimuairen tailer bana ere egongo da. Arrazakeriaren aurkako genealogia feministak ere aztertuko dituz-

te; Angela Davis-en pentsamendua, zehazki. Horrez gain, amatasuna eta menopausia ardatz hartuko dituzten tailerrak ere egingo dira. Eskaintza osoa eta ikastaroen egutegia udal webgunean dago ikusgai, eta bertatik eman daiteke izena. Azken eguna hilaren 21a da.

Harrera ona

Berdintasun teknikari Jone Arriolabengoaren esanetan, emakumeendako Jabetze Eskolak harrera eta erantzun ona izaten du herritarren artean. "Batzuek euren egoera batetik abiatuta ematen dute izena, eta gai hori landuta ematen dute izena beste ikastaro batzuetan ere. Beste batzuk, aldiz, saio ezberdinetara

UDAL WEBGUNEAN DAGO EGUTEGI OSOA IKUSGAI, ETA IZEN EMATEA ZABALIK HILAREN 21ERA ARTE

joaten dira hasieratik. Arrazoiak ezberdinak izaten dira, baina bai, ikusi duguna da, hainbat urtetako datuak begiratuta, askok ikastaro bat baino gehiago egiten dituztela".

Zerbitzu juridikoa

Bestalde, emakumeen zerbitzu juridikoa eskainiko du Berdintasun Sailak aurrerantzean. Orain arte ere egon da, kasu puntualetan eskaini dena, baina, eskaera handituz doala ikusita, zerbitzua egonkortzea erabaki du Udaleko Berdintasun Sailak. Horrela, hilean behin joango da abokatua Ramon Irizar plaza-txoko udal bulegoetara, eta aholkularitza eta orientabide berezia emango du arlo juridikoan, genero ikuspegitik, emakumeen diskriminazio, babesgabatasun eta indarkeria egoeren inguruan laguntzeko. Zerbitzua erabiltzeko, aurrez hartu behar da txanda, mezua helbide elektronikoa honetara bidalita: berdintasuna@oinati.eus.

Proposamenak aurkez daitezke Araozko ostatuta ustiatzeko

Prozesua martxan dagoen artean ez da itxita egongo; apirilaren amaierara arte zabalik jarraituko du

O.E.G. OÑATI

Abian da Araozko ostatutaren ustiapena esleitzeko prozesua. Hartuko duen enpresak gutxienez bi laguneko lantaldea aurkeztu beharko du, jangela zerbitzari bat eta sukalde arduradun bat, elikagaien manipulatuzaile titulua duena. Erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko, beharrezkoa izango da bezeroekin harreman zuzena izango dutenek euskaraz ulertu eta berba egitea; B2 gaitasun maila eskatuko dute. Kontratua lau urtekoa izango da, beste bost urtez luzatu daitekeena. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua lehen urterako 25.000 eurotan finkatu du Udalak.

Abenduko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, aho batez, prozesu berria abiaraztea, egungo kudeatzaileak 2022ko kontratua bertan behera uztea



Araozko ostatua. GOIENA

eskatuta. Zerbitzua, baina, apirilaren amaierara arte zabalik mantenduko da, jarraikotasuna emateko. Proposamenak aurkezteko epea otsailaren 29an amaituko da eta esleipen prozedura bi hilabete osatzea espero dute udal arduradunek.

Klimari eta osasunari buruzko hitzaldiak, Goienagusik ekarrita

Goienagusik aurreratu ditu dagoeneko urtarrilean Oñatiko Esperientzia Gelaren barruan egingo diren ekitaldiak: bi hitzaldi eta irteera bat.

Hitzaldietako lehena klimari buruzkoa izango da. Klima aldaketaren gaineko argibideak emango ditu Fisikan doktore eta EHU ikertzaile eta irakasle Jon Saenz Agirrek. Urtarri-

laren 17an izango da. Hileko azken egunean, 31n, berriz, Silvia Zuluaga mediku eta nutrizionistak osasuntsu jateari buruz berba egingo du. Hitzaldi biak, betiko moduan, Santa Anan izango dira, 10:00etan.

Urtarrilaren 18an, berriz, Goienagusiko bazkideentzako Arantzazura irteera antolatuta dute: 10:00etan, Gomiztegiko Artzain Eskolara joango dira bisitan; eta 12:00etan, Santutegia ezagutuko dute. Izena hilaren 15a aurretik eman behar da.

Korrikako herri batzordea eratzeko bilera astelehenean

Datorren astelehenean, urtarriak 15, egingo dute Korrikako herri batzordea osatzeko lehen bilera. Herritar guztiak daude deituta bilerara, inolako konpromisorik gabe. Korrika martxoaren 23ko gauean pasako da Oñatitik, Udanan gora, eta zer egin eta nola lagundu ikusteko lehen bilera izango da. Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.

'Mindfulness'-aren praktikak ezagutzeko saio irekia egongo da

Elkar Hezik antolatuta, "mindfulness-aren praktikaren onurak" ezagutzeko saio irekia egongo da datorren astean; baita haurdun dauden emakumeendako ere. Euren esanetan, *mindfulness-aren* eguneroko praktikak familian ekar ditzakeen onurak handiak izan daitezke, eta saioan teknika errazak erakutsiko dituzte. Martitzenean da, 18:00etan.

Larrañan egingo dute pumptrack eremua

Eltzia atzeko espazioan eraikiko dute askotariko zailtasunak izango dituen zirkuitua, bizikletekin, patineteekin eta patinekin trebeziak erakusteko eta ikasteko. Esleipen prozesua zabalik dago eta udarako erabilgarri egotea da Udalaren asmoa

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Pumptrack-gunea egongo da Oñatin udatik aurrera. Larrañan kokatuko da eta Udalak dagoeneko abiatu du esleipen prozesua.

Lanak, martxotik aurrera

Larrañan, Eltzia atzean dagoen espazioan egongo da bizikletekin eta patineteekin trebeziak erakusteko eta lantzeko espazioa, futbol zelaiaren ondoan.

Bi gune nagusi izango ditu: 150 metro inguruko luzera izango duen zirkuitua, batetik, eta erradioak hamar metro neurtuko dituen eta asfaltatuta egongo den gunea, bestetik. Espazio nagusian, zirkuituan, zailtasun maila askotariko guneak egongo dira eta gune asfaltatuan, berriz, atsedentekua izango da, non pumptrack-gunerako sarbidea egokituko den.

Aldapak eta bihurguneak izango dituen pumptrack-eremuan bost peralte eta askotariko erabileretarako 24 modulu egongo dira, guztira. Horretarako, elkarririk loturik egongo diren bi zirkuitu independente egongo dira, 86 metro luzerakoa bat eta 64 metrokoa bestea. Horrela, 37 erabiltzailek erabili ahal izango dute, aldi berean, bizikletekin, patineteekin zein patinekin.



Pumptrack-gunea egongo den tokia, Eltzia atzean. O.E.G.

Pistaren diseinua Oreinbike Bike Park & Pump Track enpresak egin du, eta lanak egiteko esleipen prozesua jarri du martxan orain Udalak. Otsailaren 2ra arte dago epea proposamenak aurkezteko, eta, prozesuak ohiko bidea jarraitzen badu, martxoan hasiko dituzte lanak; hiru hilabete iraungo dute lanek. Aurrekontua 100.000 eurokoa da, BEZa barne.

Zailtasun maila ezberdinak

Saioa Arkonada Kirol batzordeburuaren esanetan, "kirolerako

ekipamendu egokiak eskaintzea da helburua", eta horri eutsiz egongo da pumptrackaren proiektua. "Era berean, kirolak inklusiboa behar du izan, eta, hori erdigunean izanik, zailtasun maila askotariko espazioak eskainiko ditu, herritar guztiek izan dezaten azpiegitura erabiltzeko aukera".

Debagoienean, Arrasaten maiztean inauguratu zuten hango pumptrack-gunea; Elgetan orain ari dira lanak egiten; eta Antzuolan ere badago erabilgarri horrelako eremu bat.

Azken egunak kirol txarteleko abonuetan aldaketak egiteko

Urtarrilaren 15a aurretik egin behar dira aldaketak abonuan eta 20a da hobariak eskatzeko azken eguna

O.E.G. OÑATI

Urte berriko lehen egunetan berritu behar izaten da kirol txartela, eta epea zabalik dago horretarako. Halaber, urtarrilaren 15a baino lehen egin behar dira aldaketak abonuan. Txartelaren kobrantzak, bestalde, 20an egingo dituzte. Abonua eskuz kiroldegian ordainduz gero, dagoeneko egin daiteke ordainketa, kiroldegira joanda; abonua ordaindu arte, baja eman go zaio. Bestalde, hobariak hilaren 20a aurretik eskatu behar dira, kiroldegian zein HAZ bulegoan eskuragarri dauden inprimakiak beteta. Joan den urtean hobaria jaso duenak ere eskaera egin behar du 2024an jasotzeko.

Pilates ikastaroa otsailean

Erantzun ona izan du urtarrilean hasiko den hastapeneko pilates



Zubikoa kiroldegiko sarrera. O.E.G.

ikastaroak. Plaza guztiak bete dira, eta, harrera hori ikusita, beste bat antolatuko dute otsailerako. Kiroldegiko sarreran eman daiteke izena; lau lagunek emana dute dagoeneko. Prezioa da: 20 euro bazkideek eta 27,05 euro ez direnek.

Toloño mendilerroa izango da urteko lehen mendi irteera

Hilero mendi irteera bat antolatuko du aurten ere Aloña Mendiko mendi sailak, eta lehendabizikoa Araba aldera egingo du: Toloño mendilerroa, hain zuzen ere. Herrera mendatetik abiatuta, Araba eta Errioxa lotzen dituen mendikatea zeharkatuko dute gailurretik. Bastidara jaitsiko dira gero, eta han bazkalduko dute. Hamazazpi kilometroko

irteera da, "sei bat orduan egiteko modukoa". Urtarrilaren 21ean izango da irteera, 07:00etan postetxetik irtenda, eta izena hilaren 18a aurretik eman behar da, Aloña tabernan edo mezua hona bidalita: alonamendi.mendi@gmail.com.

Mendi irteeraz gain, zeharkako eskia egitera joatekoak antolatzeko asmoa ere badu mendi sailak, urtarrilean bat eta martxoan beste bat. Irteera guztietara joateko derrigorrezkoa da federatuta egotea.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com



Txuletons taldeak diskoa estreinatzen duen kontzertua. AITZIBER ARANBURUZABALA

Disko berria, baina betiko esentziarekin

Txuletons taldeak abenduaren 28an estreinatu zuen bederatzi kantuz osatutako 'Encuentros' izeneko lana, gaztetxean. Duela 22 urte sartu ziren lehenengoz estudio batean eta orduan grabatu zuten orain arte kaleratu duten disko bakarra

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
"Txalo artean" eta gaztetxera bertaratutakoek kantu "gehiago" eskatzen amaitu zutela dio Karmelo Alberdi Txuletons taldeko kideak. *Encuentros* izeneko diskoa kaleratu berri dute eta abenduaren 28an egin zuten estreinako kontzertua, Antixena gaztetxean. Bederatzi kantuk osatzen dute lana, hiru euskaraz dira eta gainontzeko seiak gaztelaz, baina guztiak Txuletons ohikoak diren rock-and-roll doinuez osatuta. "Kontzertua oso ondo joan zen, jende dezentete batu zen eta ia bi orduko emanaldia eman genuen, oso gustura amaitu genuen", dio Alberdik.

Estudioa, 22 urteren ostean
Ia hiru hamarkada daramatzate taldekide berek, eta duela hogeita bi grabatu zuten euren lehenengo lana, eta orain artean bakarra dena. Bi hamarkadaren ostean, berriz ere estudioa sartu, eta orain arte entsegu gela-

sortutako doinuak disko batean biltzea erabaki dute. "Kantu dezentete genituen eta momentua zen horiek grabatzeko. Datekin ados jarri, eta estudioa sartzea erabaki genuen. Oso gustura gaude emaitzarekin", dio taldeko gitarrak-joleak. Estilo aldetik aldaketa "gutxi" izan dutela azpimarratzen du, baina badirela "lasaiagoak" diren kantu batzuk; gainera, kolaborazioak ere izan dituzte oraingo honetan.

Bederatzi izan dira diskoan batu dituztenak, baina beste hainbat ere grabatu dituzte sartu gabe gelditu direnak. "Beste dozena erdi bat kantu ere grabatu ditugu estudioan, baina horiek moldaketa batzuen beharra dute, eta laguntza gehia-

DISKOKO BEDERATZI KANTUEZ GAIN, BESTE DOZENA ERDI BAT ERE GRABATU DITUZTE ESTUDIOAN

go dugunean ateratzea espero dugu", dio Alberdik. Gainera, hainbat plataformatan lan berria sareratzeko asmoa dutela adierazi du.

Etorbizuna, patxadaz

Alberdik dio ez direla izan inoiz "bira" eta "parafernalia" zaleak, eta oraingoan ere, nahiz eta diskoa atera, ez dutela momentuz, bestelako kontzerturik lotuta. "Orain arte moduan, entseatzeko jarraituko dugu, eta joango gara ikusten zer gertatzen den. Egia da urtean kontzertu pare bat ematea ere gustatzen zaigula. Ikusiko dugu zer gertatzen den", aitortu du Karmelo Alberdik.

Txuletons-zaleek itxaron egin beharko dute, horrenbestez, berriro taldearekin zuzenean gozatzeko, baina, bien bitartean, plataforma digitaletan gozatzeko aukera dute. Oñatiko Akerren, Bogan, Arranon eta Eltzian ere eskuratu daiteke, 10 euroren truke.

Nakar eta Txopet taldeen kontzertuak gauean gaztetxean

Gaueko hamarretan hasiko dira kontzertuak; Burrunda Faktoria ere kontzertu denboraldi berria osatzen ari da

I.B.K. OÑATI

Antixena gaztetxearen urtarri-leko egitarauaren barruan, gaur, Nakar eta Txopet taldeak izango dira oholtza gainean, 22:00etan hasita. Txopetek gitarrak-kolpe zuzenak eta norabide zehatz bat ezartzen duten oinarri erritmiakoak amorrutaz betetako garage-rock zapora printza batekin taularatuko ditu. Nakar taldeak, berriz, post-punketik abiatuta, elektronika, hyperpopa eta bestelako estiloak nahasten ditu. Sarrerak zortzi eta hiru euro balioko dute.

Badator Burrunda

Abenduan amaitu zuten kontzertuen lehenengo denboraldia, eta denboraldi berriko eskaintza prestatzen dihardute azken hilabete honetan. Oraindik ere egitarau guztia itxi gabe dagoen arren, datorren astean ekingo diote bigarren denboraldiari; hilaren 20an, hain zuzen. As-telehen Goizak eta Osaba Kimu taldeak izango dira kontzertuen denboraldi berriari hasiera emango diotenak. Sarrerak, betiko moduan, zortzi eta hiru euro balioko dute.

Kantu eta dantza berriak nobedade aurtengo Inauterietan

Mikel Albistegik egindako kantuari dantza berria egin diote; horixe da aurtengo nobedade nagusia

I.B.K. OÑATI

Hilabete eskas falta da Inauterietarako, eta entseguetan buru-belarri dabilta murgilduta Oñatiko Inauterietan parte hartuko dutenak. Antolakuntzakoek diote entseguak "ondo" doazela eta jendea joaten ari dela; batez ere, "gazteak". Dena dela, dei egiten diete parte hartzaileei falta den hilabetean "konstantziarekin" joateko entseguetara, Inauterietan aurrera eramanez izateko. Izan ere, aurtengo nobedade moduan, kantu eta dantza berri bat izango

dira ikusgai Inauterietan; Mikel Albistegik egin du kantua eta Inauterietako kideek sortu dute dantza. Era berean, Inauterietako kantuak estudio batean grabatu dituzte, kalitate ona bermatzeko, eta Inauterietan txikian erabiliko dituzte.

Gainontzean, nobedade gutxi izango dira. Iaz bezala, parte hartzaileen plaza mugatua izango da, nahiz eta oraindik ez den muga hori bete. Gainera, bazkaltzera kiroldegira joango dira, arratsalderako indarrak hartzeko.

'Arnasaldiak' lana Primeran plataforman dago ikusgai

Iker Martinez eta Zaldi Herrenak musika taldeak *Arnasaldiak* diskoa kaleratu zuen duela hilabete gutxi. Zortzi abesti grabatu zituzten Andoaingo Garaite estudioan, zuzenean aritu ziren musikari guztiak, eta han egindakoak bildu dituzte 44 minutuko dokumental batean. Primeran plataforman ikusi daiteke *Arnasaldiak* lana.

'Loti ederrak' ikuskizunerako sarrerak salgai daude

Loti ederrak ipuin klasikoaren antzerkirako egokitzapena egin du Glu Glu antzerki konpainiak, eta Oñatira iritsiko da urtaririlaren 21ean. Emanaldia arratsaldeko bostetan Santa Ana antzokian izango da, eta bertaratu nahi duenak jada erosi ditzake sarrerak, Oñatiko Udalaren webgunean, 4 euroren truke.



DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

VITALDENT

Arrasate / Otalora lizentziaduna kalea 1 / 943 06 03 22

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11
43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

Xabier Urtzelai ARRASATE

Olatz Korkostegi (Oñati, 1982) eta Eneritz Urrutia (Arrasate, 1990) Zumaian, Añorgan eta Azkoitian jokaturako Gipuzkoako txapelketetan egindako lanagatik saritu ditu Gipuzkoako Federazioak. Eta ez eurak bakarrik, Aloña Mendiko eta Antxintxikako beste atleta kuadrilla polit batek ere jaso du-eta errekonozimendua. Euren kirol jardunaz berba egiteko aitzakia ederra izan dira sariok, halako garaikurren atzean lana egoten da eta; lan handia.

Gipuzkoako txapelketak bereziki dituzue begiz jota? Alegia, errekonozimendu horien bila joan zarete?

Eneritz Urrutia: Nire kasuan, triatloi lizentzia Gipuzkoan ateratzen dut, nahiz eta Nafarroako talde batekin lehiatzen naizen. Gipuzkoan ere ez gara emakumezko asko, eta hor egotea garrantzitsua dela uste dut. Horrekin batera, Zumaiaiko triatloia askotan izaten da Gipuzkoako txapelketarako baliagarria, eta lasterketa hori oso gogoko daukat, nire kuttunetako bat da.

Olatz Korkostegi: Gipuzkoako txapelketa irabaztea ez da helburua izaten, baina, ondoren, egia da gure artean beti izaten dugula piketxoak [Barre] eta saiatzen garelako borroka horretan egoten.

Zuekin batera, hainbat taldekide nabarmendu dira.

E.U.: Bai; egia da duatleta eta triatleta kopurua ez doala gorantz, baina daudenak hor dabilta gogor, eta, bereziki, beterano mailan sari dezente jaso ditugu, bai.

Esprint modalitatean nabarmendu zarete, batez ere. Distantzia egin-garriena da?

O.K.: Emaitzei dagokienez, entrenatzeko denbora aldetik justu samar baldin bazabiltza, seguruenik, distantzia hori prestatzea da errazena. Bereziki bizikletako tartean distantzia luzeagoak egiten baldin badituzu, bolumen handia sartu behar delako. Baina, tira, bestela ere bolumena landu egin behar da... Hala ere, distantzia luzeagoek denbora eskatzen dute, bai.

E.U.: Nire kasuan, iaz, distantzia erdiko lasterketak ere prestatu nituen, eta Bilboko triatloian, esaterako, gustura geratu nintzen. Txirrindularitza talde batean ere banabil [Igamo Pac-

"Lasterketetara hobe da etxeko lanak eginda joatea, bestela..."

OLATZ KORKOSTEGI ETA ENERITZ URRUTIA TRIATLETAK

Gipuzkoa saria jaso berri dute, Zumaiko eta Añorgako lasterketetan egindako lanagatik. Ez dira izan hor nabarmendutako debagoiendar bakarrak



Olatz Korkostegi –ezkerraldean– eta Eneritz Urrutia –eskuinaldean–. X.U.

kaging taldea], eta bizikleta gaineko lanak hortik bideratzen ditut, bereziki. Gainera, moldatau ere bizikleta gainean moldatazen naiz ondoen, tarte handiarekin, gainera, eta beste arloak lantzen izaten ditut lanak; igeriketan, adibidez. Igeriketa gaztetatik ondo ikasi duena bada, igarri egiten da. Nire kasuan, entrenatzailearekin adostuta orain saiatzen naiz igeriketan bolumena sartzen, bizikletan ibiltzeko ez dudalako astirik.

Entrenatzailea aipatu duzu, Eneritz.

Olatz, zuk baduzu entrenatzailerik?

O.K.: Bai; lehenago ere ibili izan naiz entrenatzailearekin, eta orain ere entrenatzaile berri batekin hasiko naiz. Gauzak behar den moduan egiten laguntzen dit, konfiantza ematen dit. Azken batean, lasterketa konkretu batzuk ondo prestatu behar dira, eta, horretarako, entrenatzaile baten laguntza asko eskertzen da. Entrenamenduetan ordena bat behar da, eta, are gehiago, zure bizitza abiadura betean doanean. Etxeko kontuak, lanekoak... Entrenatzaile batek hori guztia antolatzen laguntzen dizu.

Konpromiso maila handiagoarekin egiten da lan, ala?

O.K.: Izan daiteke. Niri gustatzen zait lasterketetara etxeko lanak eginda joatea, eta entrenatzaileak agindutakoak egin baditut beste patxada batekin joaten naiz, konfiantza handiagoz edo...

E.U.: Ni kirolari moduan ere oso zorrotza naiz neure buruarekin, eta gauzak egin behar baditut ondo egiteko da. Alde horretatik, entrenatzailea izatea niretako ezinbestekoa da, euskarri garrantzitsua da.

Ze itxura dauka 2024ak? Hasi zarete egutegia gorri markatzen?

O.K.: Nik ikasi dut gauzak lasai hartzen eta epe motzerako planak egiten. Hasi naizen baikoitzean urte osorako planak egiten... edo erorikoa izan dut edo plan horiek guztiak pikutara joan dira. Nahiago dut egutegian gorri askorik ez markatu eta pausoz pauso joan.

E.U.: Nik Euskal Herriko triatloi zirkuitua egin nahiko nuke, eta, horrekin batera, urtero mimoz prestatzen dut Gipuzkoako erlojupeko txapelketa, eta urtero negargarri egiten dut proba hori [Barre]. Ea, bada, aurtun.

Gipuzkoa saria jaso dutenak:

Esprint duatloian

- 1. Miren Josune Bikuña (maila absolutuan).
- 1. Olatz Korkostegi (beterano mailan).
- 2. Ainhoa Calleja (beterano mailan).

Esprint triatloian

- 1. Eneritz Urrutia (maila absolutuan)
- 3. Ainhize Barrainkua (maila absolutuan).
- 3. Ainhoa Mendia (bet.2).
- 2. Ricardo Degofñi (bet.1)
- 1. Alejandro Altuna (bet.3)

Esprint duatloian

- 1. Miren Josune Bikuña (maila absolutuan).
- 1. Olatz Korkostegi (beterano mailan).
- 2. Ainhoa Calleja (beterano mailan).

Triatloi olimpikoa

- 3. Ricardo Degofñi (bet.1)

Triatloi egokitua

- 1. Josune Odriozola
- 1. Iñaki Igartua
- 2. Joseba Azkarate

Urteetako entrenatzaile lanak saria izan du

ESKUBALOIA Euskadiko Eskubaloi Federazioak Josetxo Muniategik entrenatzaile moduan urteetan egindako lana aitortu du abenduaren 29an egindako galan. "Halakoak ez zaizkit askorik gustatzen, baina poza ematen dute, bai", adierazi du

Xabier Urtzelai Atxa BERGARA

Euskal Eskubaloi Federazioak Josetxo Muniategiandikoetxea (Bergara, 1965) saritu zuen joan den hilaren 29an Zumaian egindako kirol jaialdian. Bergararrak lau hamarkada egin ditu herriko klubaren alde lanean, bai entrenatzaile eta baita zuzendaritzan ere. "Egia da halakoak ez zaizkidala askorik gustatzen, baina, sari bat eman behar badizute, ez duzu ezetzik esaten. Duela urte batzuk, Bergarako Udalaren partetik ere errekonozimendua jaso nuen, eta pozik hartzen dira halakoak, bai", adierazi dio aste barruan GOIENARI. "Gainera, nirekin batera beste entrenatzaile batzuek ere saria jaso zuten; nire bide antzerakoa egin duen jendea, gaztetan jokalaria jardun eta gero aulkietara pasa zirenak. Eta zeintzuk saritu zituzten ikusita, bazuen zentzua ni ere multzo horretan egoteak. Pozgarria da ikustea batzuek baloratzen du-



Josetxo Muniategi, arriboko irudi batean, jokalariei aginduak ematen. GOIENA

tela urteetan gutako bakoitzak gure klubean egin dugun lana".

Bilakaera handiaren testigu

Urte hauetan guztietan eskubaloiak izan duen bilakaera handiaren testigu izan da Muniategi,

eta, bereziki, azken 25 urteetan jarri du arreta. Urte onak bizi izan dituzte eskubaloian, eta baita txarrak ere. Azken denboraldietan bizirik mantentzeko ahaleginean lan handia egiten dihardute. "Esango nuke azken

urteotan neska kopuru polita etorri dela gurera, eta talde berriak sortzen joan gara; alde horretatik, oso pozik gaude. Baina egia da azken 10-15 urteetan gizonen kopurua asko jaitsi dela; taldeei jarraikortasuna emateko zailtasunak izan ditugu".

Errealitatera egokitu behar

Hala, Muniategik onartu du eskubaloiak aurrera egin dezan errealitatera egokitu behar izan dutela; izan ere, gaur egungo gazteendako eskubaloi gutxitan izaten da lehenengo aukera: "Gure kirolera ez dira gazte asko gerturatzen, horren jakitun gara, eta gerturatzen direnekin egiten dugu lan, kanpotik ere ez ditugulako jokalariek ekartzen. Hori horrela, horrenbeste urte igaro eta gero egia da ez dugula etorkizuna ziurtatuta".

Zuzendaritzako lana aitortuta

Abenduaren 29an Zumaian egindako galan bailarako beste bi ordezkari saritu zituzten. Biak ala biak euren klubetako zuzendaritzetan egindako lanarengatik. Eurak dira Arrasate Eskubaloi taldeko Ines Azpiazua eta Aloña Mendiko Carlos Ugarte.

Beñat Larrea, Espainiako selekzioaren deialdian

FUTBOLA 18 urtez azpiko taldeak lagunartekoa jokatu du urtarrilaren 17an, Italiaren kontra

X.U. ANTZUOLA

Espainiako futbol selekzioko hautatzaile David Gordok eman du aditza urtarrilaren 17an Italiaren kontrako lagunartekora begira eskura izango dituen jokalarien zerrenda, eta tartean dago Beñat Larrea (2006) futbol jokalaria. Antzuolako atzelariak GOIENARI adierazi dio pozik hartu duela albiste. Hautatzaileak guztira, hoguei jokalariz osatutako zerrenda osatu du, eta datorren astelehenean egonaldia hasiko dute denek, Las Rozasen bertan –urtarrilaren 17ko partidua ere han jokatu dute (18:00)–.

Athleticek iaz fitxatu zuen atzelari antzuolarra, Bergarako Euskal Ligako gazte mailako taldean jokatzeko zebilela. Deialdiaren berri izateaz batera, Larreak jokatu izan duen Antzuolako eta Bergarako futbol klubek harrobiko mutila izandakoa zoriondu dute.



Realaren eta Rayo Vallecanoren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala- Rayo Vallecanoren norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskuraz eta zuzen ikusteko aukera beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partida urtarrilaren 27an, 14:00etan, izango da

Parte hartzeko azken eguna: urtarrilak 22



Egin Goienakide eta Real ikusteko aukera izango duzu!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



"Oroitzapenak onak dira, baita sutearena ere"

IÑAKI BENGEOA SHOT! MUSIKA ESTUDIOA

30 urtean Shot! estudioaren arduraduna izan ondoren, aurreko astean iragarri zuen lanbidea utziko duela; Hodei Vicario 'Denso'-k hartuko dio estudioan lekukoa

Aitziber Aranburuzabala Juldain

ARRASATE

"Kostata hartutako erabakia" izan da, baina etapa berriarekin "ilusionatuta" dago orain; gauza asko egin dituen sentsazioarekin utzi ditu Shot!-eko ateak.

Gau batzuetako loa kenduko zizun erabakia hartzeak.

Bai, hala da, baina ez da egunotako kontua; erabaki hau orain dela urtebetetik dator. Nekatuta nengoen, eta aldatzeko gogoz; galdera eta zalantza asko etxekoei, baina lasai nago orain.

Zerk bultzatu zaitu Shot! uztera?

Bereziki, nekeak; 30 urte edozein ogibidetan edo ekimenetan urte asko dira, eta 30 urte musikagintzan konplikatua da. Rockeko izarra izan behar duzu bertan mantentzeko. Eta bestetik, garaiak asko aldatu direla musikagintzan eta orokorrean; ilusioa galdu dut, eta grabaketa estudio baten ezin da ilusiorik falta. Beraz, uztea, onena.

Instagramen bidez iragarri zenuen.

Ez nekien nola egin [Barre]. Gertukoak jakinaren gainean zeuden, eta iruditu zitzaidan zabalkundea egiteko modurik onena zela.

Eta nolakoa izan da erantzuna?

Oso ona. Gogoratzen ez nituen lagun asko bertan daude, eta animoak bidali dizkidate, eta



Iñaki Bengoa, Shot! estudioko jabea, Goienaren egoitzan astelehenean. A.A.

asko eskertzen dut, jende askok, helduak gehienak, idatzi didalako. Baina ez dut uste animo kontua denik, nik erabaki dut eta; eta ez inork bultzatuta.

Eta lana eskaintzeko idatzi dizute?

[Barre] Ba, ez; hurrengo Instagram mezuan jarriko dut.

Ze asmo duzu?

Ez dut ezer garbirik zehaztuta. Bizitzarekin gozatzeko aprobeztatuko dut, eta, ondoren, zuzeneko teknikari izaten jarraitu nahi dut. Egun, bereziki, Nerearekin [La Furia] ibiltzen naiz, eta Assatarekin ere bai; lagun

taldeak. Baina, aurrerago, gus-tatuko litzaidake beste talderen baten teknikaria izatea, garai batean RIP, La Polla, Gatillazo, SA, Betagarri, Sagarroi... taldeekin ibiltzen nintzen moduan.

Musikagintzan jarraituko duzu, hortaz.

Bai, ez dakit besterik egiten eta. Zein arlotan ez dut erabakita. **30 urte egin dituzu Shot!-en; zein oroitzapenekin zoaz?**

Onak, denak onak; sutea ere ona izan zela pentsatzen duen horietakoa naiz, gauza pila bat garbitu zituen... Momentu tris-

tea izan zen, noski, baina, denbora pasatu ahala, beste modu batera ikusten nuen. Hastapenetan, 1993an, argi nuen estudiantik pasatuko zen proiektu bakoitzetik zerbait ikasi behar nuela, ona edo txarra, baina irakaspen bat, eta lortu dut.

Atzera egingo duzu; hastapenera.

Idea zoro bat izan zen. Bartzelonatik etorri nintzen; ikasten eta lanean egon nintzen han. Olinpiadak hasi ziren, eta haiekin nekatuta Arrasatera itzuli nintzen. Han egiten nuena herrian egin ahal nuela konturatu nintzen. Gipuzkoan apenas zegoen estudiantik; bizpahiru, asko jota. Bada, garai hartako lagun on bat, Pello Aldabe, eta biok marroian sartu ginen.

Marroia deitu diozu.

Bai; hala zen-eta garai hartan. Pentsa, hogeita urte gutxiarekin, hipoteka batean sartu, obra bat aurrera eramane, estudio bat muntatu... Baina oso musikazaleak ginen eta poliki-poliki aurrera egin genuen. Hamar urte ondoren, Pello joan zen eta ni geratu nintzen.

Izan duzu beste lankiderik geroago?

Kolaboratzaileak izan ditut; esaterako, azkeneko urteetan Ander Barriuso izan da, baina ardura-dun moduan ni beti.

Eta zaila da estudio bateko arduraduna izatea, ezta?

Bai; hori da erretzea ekartzen dizuna. Lanaren zatirik politena grabatzea eta horren bueltan dagoena egitea da, baina administrazio edo paper lanak eta halakoak ere badaude; garai baten, Amaia Apaolazak egiten zituen lan horiek, eta sekulako galera izan zen haren heriotza. Sutea baino gogorragoa izan zen Amaiaaren heriotza.

425 disko grabatu dituzu ibilbidean zehar; gustura?

Zenbaki bat da. Niretzako garrantzitsuena da zelan aldatu den guztia. Kaseteen grabatzen hasi ginen, biniloan gero, CDan ondoren, eta gaur egun ez dago formaturik; bada, hori guztia ikasi dugu bidean. Grabatzen hasi nintzenean, zintak artaziekin moztzen nituen; pentsa!

Hodei Vicario Landaluze Denso-k hartuko du estudioan lekukoa, zure lehengusuak; hori da arrazoi?

Hori da arrazoi garrantzitsuenetako bat eta beste bat da oso interesgarria iruditzen zaidala egiten duena. Hastapenetako ni gogora ekartzen dit.

Zergatik diozu hori?

Arrazoi askorengatik: duen adinarekin hasi nintzelako estudioarekin, duen ilusioagatik, egiten dituen gauzak ezberdinak direlako eta, ni bezala, musika-ria ere badelako.

Gaztea, arrasatearra eta beste musika estilo batean kokatuta.

Bai; hala behar du, garai bakoitzak bere musika estiloa.

Zein izango da Denso-rekin izango duzun rola?

Estudio baterako lokala uztea zen nire asmoa, baina behar nauenean gertu izango nau.

Nor agurtu gura duzu?

Estudiantik pasatu diren guztiak; denak izan dira garrantzitsuak.

Nori eman gura dizkiozu eskerrak?

Familiari eta lagunei eta dagoeneko gurekin ez daudenei: Amaia Apaolazari, Jonan Ordorikari, Eresi denda zuen Javi Bizzi, Ripekoi... Zorte handia izan dut eurak ondoan izateagatik.

"HASTAPENETAKO NI EKARTZEN DIT GOGORA ESTUDIOAN LEKUKOA HARTUKO DIDAN 'DENSO'-K"

BELAKO

GOIENA TELEBISTA, KONTZERTUA

URTARRILAREN 12AN, EGUBAKOITZA, 19:30, 21:30 ETA 23:30

KOOLTUR OSTEGUNAK EKIMENAK ANTOLATUTAKO KONTZERTUA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.





Maitane Suinaga, Unai Urretxo, Beñat Askargorta eta Lander Mujika, EGOn neguko topaketan. BEÑAT ASKARGORTA

Profesionalen jakintza eta gazteen ilusioa

Euskal Herriko Gazte Orkestrak (EGO) Gabonetan egin dituen topaketetan izan dira Bergarako Musika Eskolako Maitane Suinaga, Beñat Askargorta eta Lander Mujika biolin-joleak; Unai Urretxo arrasatearraren zuzendaritzapean, lau kontzertu egin dituzte

Aitziber Aranburuzabala Juldain BERGARA

Tolosan egin zuen, abenduaren 30ean, Neguko Topaketaren baitan, Euskal Herriko Gazte Orkestrak lehen kontzertua, eta segidan gero beste hiru, Donostian, Gasteizen eta Bilbon, hurrenez hurren. Rossini konpositore italiarraren *Obertura La gazza ladra* eta Brahms musikari alemaniarraren *4. Sinfonia* interpretatu zituzten.

Bergarako Musika Eskolako Beñat Askargorta, Maitane Suinaga eta Lander Mujika izan ziren EGOn formazio berrian, eta, aurrez EGOn ekimenetan parte hartutakoak badira ere, hirurek diote "beste behin ere esperientzia aberasgarria" izan dela. "Udako topaketan ez moduan, lehenengo biolin moduan jotzea proposatu zidaten, eta asko aldatu du nire bizipena horrek", dio Askargortak. Eta zera gaineratu du Mujikak: "Oparia izan da; ikaragarria da EGOk duen maila, eta oso eskertuta nago

emandako aukeragatik. Programa paregabea izan dugu". Eta bide beretik erantzun du Suinagak: "Zaletasun bera duten gazteekin lan egitea izugarria da eta asko ikasten dugu elkarrekin".

Unai Urretxoren gidaritzapean Hego Koreako Suwon Unibertsitateko orkestrako zuzendaria da Unai Urretxo arrasatearra gaur egun, baina ondo gogoratzen ditu EGOn hastapenetan, 1997an, gazte orkestrarekin bizitakoak; hala, "pozik" hartu zuen neguko topaketetan zuzendari lanak egiteko gonbidapena. "Kontzertuetan erakutsitako emaitzarekin gustura nago, baina garrantzitsuagoa da, nire ustez, halako ekimenetatik ge-

DEBAGOIENEN LAU MUSIKARI IZAN DIRA EGOREN NEGUKO TOPAKETETAN PARTE HARTZEN

ratzen diren bizipenak; izan ere, poztekoa izan da taldean Bergarako hiru musikari izatea. Oso ondo moldatu gara elkarrekin, jatorrak eta langileak dira".

Musikariek ere estimu handian dute Urretxo, eta eskertuta daude EGOk eman dien elkar eza-gutzeko aukeragatik. "Plazera izan da harekin lan egitea. Oso alaia eta gertuko da, eta zuzendari moduan, hamarrekoa. Betirako gogoan izango dugun orkestra zuzendaria da, duda barik", dio Askargortak. "Asko daki, izugarri maite du musika, eta haren pasioa guri transmititzea lortu du. Harekin lan egitea oso erraza izan da", dio Suinagak. Eta zera Mujikak: "Oso berezia izan da, ondoko herrikoa izanda ere, Hego Korean duen bizimodua eta anekdota pila bat kontatu dizkigulako. Garrantzitsuena transmititzen zigun poza dela iruditzen zait, eta haren zuzentzeko modua ere oso berezia da. Eskerrik asko EGOr, Unai eza-gutzeko aukera emateagatik".

Goienakideen txokoa

URTARRILEKO SARIAK

Liburu-irakurgailua
SPC e-booka

Parte hartzeko sariaren izena: ebook

EROSKI
ARRASATE



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
OSTALDIA

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen LOTO 15/1000 legeraren arabera jokatzen den zozketa da. Goiena Formakuzko Zerbitzuen Itxeragiz automatikoki batera sartuko dira. Datu bilaketaren helburu bakarra da indarrez dagoen zuzendariaren zuzendaritzaren bitarteko datu bilaketa. Hasi zozketaren datuak: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Tartean Teatroa elkarteari esker

"Kortxoaren dilema" ikuskizunerako sarrerak ditugu.

Aretxabaleta | Zarala aretoa | Urtarrilak 20 | 19:00

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "musikari"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa.

Indarrez dagoen LOTO 15/1000 legeraren arabera jokatzen den zozketa da. Goiena Formakuzko Zerbitzuen Itxeragiz automatikoki batera sartuko dira. Datu bilaketaren helburu bakarra da indarrez dagoen zuzendariaren zuzendaritzaren bitarteko datu bilaketa. Hasi zozketaren datuak: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

MAIULANDA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: urtarrilak 16.

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.

📱 GOIENAKIDE Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65 €
Deitur: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Etxebizitza salgai Donostian. Etxebizitza salgai Donostiako Zubiaurre pasealekuan, Grosetik oso hurbil. 310.000 euro. 65 m², 4. pisua, parking-a. 3 logela eta 2 balkoi dauzka eta eguzkia egun osoan. Etxea ekipatua dago. Autobus, tren geltokiak eta autopista bertatik bertara. Hondartza eta mendia 5 minutura. 617 24 97 99

102. EROSI

Bergara. Bergarako poligono inguruan 3 logeladun etxea erosiko nuke. 673 35 95 98

104. ERRENTAN HARTU

Arrasaten etxea errentan hartu. 3 logeladun pisua errentan hartuko genuke. Ez zaigu inporta zein auzotan dagoen. Lan kontratua daukagu eta oso arduratsua den familia bat gara. Telefonoa: 643 48 56 55

Arrasaten pisu bila. Arrasaten pisu bila dabilen hiru kideko familia gara. Bi edo hiru logeladun etxea errentan hartuko genuke. Lan kontratua daukagu. Deitu 680 87 38 66 edo 603 45 04 13 telefono zenbakietara

Debagoienean pisu edo logela bila. Pisu edo logela baten bila nabil, Bergaran edota inguruko herrietan. 613 88 98 48

Etxea errentan hartu Arrasaten. Pisua errentan hartuko genuke Arrasateko edozein auzotan. 3 logela izatea gustatuko litzaizuke. Lan kontratua daukagu eta oso arduratsua gara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 59 81 22

Oñati. Hiru logela dituen etxea errentan hartuko genuke bi hilabeterako. 677 98 43 58

Pisu bila Arrasate edo Bergaran. Arrasate edo Bergaran 2 logeladun pisua errentan hartuko nuke. Lanpostu finkoa dut. 645 72 92 87

2. GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garaje itxia salgai Arrasateko Udalpe kalean. 676 32 23 88

3. LOKALAK

301. SALDU

Trastelekua salgai Bergaran. Trastelekua salgai Bergarako Zubiaurre 3an, behe solairuan. Tamaina: 3,5 x 1 x 3,5 metro. Deitu 605 72 38 97 telefono zenbakira

4. LANA

402. ESKAERA

Arrasate eta Oñati. Pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Soziosanitario ikasketak ditut eta astelehentik ostiralera bitartean lanaldi osoa lan egingo nuke. Telefonoa: 603 51 80 00 edo 631 70 57 63

Arrasate. Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke; orduka zein etxean bertan bizi izateko gertu. Telefonoa: 602 16 00 89

Arrasate. Ekipo arinen mekaniko bezala lan egingo nuke. Esperientzia duen gizon zintzo eta langilea naiz. Telefonoa: 632 41 21 47

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsua eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatze-lagundu edota konpainia egiteko gertu. Telefonoa: 695 73 87 95

Arrasate. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Soziosanitario ikasketak ditut. Orduka lan egingo nuke. 696 84 19 51

Debagoiena. Asteburuetan eta astean zehar orduka lan egiteko prest dagoen neska. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Telefonoa: 632 63 77 38

Debagoiena. Garbiketak eta pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Deitu 602 44 48 98 telefono zenbakira.

Debagoiena. Atari, lokal, taberna, enpresa eta baserrien garbiketarako egingo nituzke, baita banatzaile lanak ere. Kotxea dut. Deitu 645 72 92 87 telefonoz zenbakira

Debagoiena. Egunean zehar eta gauetan lan egingo nuke, baita asteburuetan eta jaiegunetan ere. Soziosanitario eta geriatría ikasketak ditut. 602 82 14 83

Debagoiena. Eraikuntza lanetan esperientzia duen mutila naiz. Malgutasun osoa. 613 88 98 48

Debagoiena. Esperientziadun emakumea orduka eta gauetan lan egiteko prest. Soziosanitario ikasketak ditut, baita legezko agiriak egunera ere. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Telefonoa: 691 28 53 25

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest nago. 613 49 33 46

Debagoiena. Garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. 614 14 83 47

Debagoiena. Garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. 603 13 18 44

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Soziosanitario titulua dut. Telefonoa: 747 40 53 01

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke goiz, arratsalde eta gauetan, etxean zein ospitalean. Astean zehar, asteburuetan eta jaiegunetan lan egiteko prest. Esperientziadun emakumea naiz eta soziosanitario ikasketak ditut. Herrian bertan zein baserrietan lan egin dezaket. Kotxea dut. Telefonoa: 631 98 15 50

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka lan egingo nuke. Geriatría ikasketak ditut. 650 34 17 54

Debagoiena. Neska esperientziaduna zaintza edo garbiketa lanetarako prest, orduka edo bertan bizi. Titulu soziosanitarioa eta legezko agiriak ditut. 677 146 429

Debagoiena. Orduka lan zehar eta gauetan lan egingo nuke, baita asteburuetan eta jaiegunetan ere. Malgutasun osoa. Esperientzia duen erizain laguntzaile lanetan. Soziosanitario eta erizain laguntzaile titulua ditut. 672 96 37 99

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Soziosanitario ikasketak ditut. Asteburuetan eta astean zehar orduka egin dezaket lan. 612 56 12 39

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo arropa-garbitzietan lan egiteko prest dagoen emakumea. Malgutasun osoa dut. 644 47 06 49 edo 688 71 08 09

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Soziosanitario ikasketak ditut. Malgutasun osoa ordutegi aldetik, bai astean zehar baita asteburuetan ere. 602 64 68 17

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. 642 49 94 09

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo asteburuetan lan egiteko prest nago. Magutasun osoa. 613 11 92 98

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke, orduka. Astean zehar zein asteburuetan lan egiteko prest. Legezko agiriak eta soziosanitario ziurtagiria ditut. Deitu 678 12 28 56 zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako eta erizaintzako laguntzaile bezala lan egingo nuke. Asteburuetan eta astean zehar orduka egin dezaket lan. 612 56 12 39

Debagoiena. Soziosanitario ikasketak dituen gizona lan bila. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Sukaldari laguntzaile bezala lan egiteko prest. 602 87 65 07

Debagoiena. Soziosanitario ikasketak egiten dabilen neska euskalduna lan bila. Pertsona nagusiak zaintzen edo tabernan lan egingo nuke, batez ere aste bukaeretan. Deitu 656 79 28 37 telefonora.

Debagoiena. Sukaldean laguntzaile gisa, arropa-garbitzietan, edozein motatako garbiketarako egiten edo zerbitzari bezala lan egiteko prest dagoen emakumea. Lan-tegietan langile bezala aritu izan naiz. Euskara oinarriko maila. Telefonoa: 688 71 08 09

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Soziosanitario ikasketak ditut. 677 00 90 26

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Eskola partikularrak Arrasaten. DBH 2-ko ikasle batek ingeleseko eta matematikako eskola partikularrak behar ditu Arrasaten. 669 11 28 94

6. MOTORRA

602. EROSI

Mercedes G-klasea erosi nuke. Mercedes-Benz G-klasea erosi nuke. Lur orotako ibilgailua da (4x4 autoa). 656 75 76 98

8. DENETARIK

801. SALDU

Egurra salgai. Sutarako egurra salgai. Deitu 688 69 73 14 zenbakira.

URTEURRENA



Pedro Lete Ezkurra

2023ko urtarrilaren 2an hil zen, 64 urte zituela.



Vicente Lete Jausoro

2023ko urtarrilaren 10ean hil zen, 82 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 14an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2024ko urtarrilaren 12an.

URTEURRENA



Ariane Liberal Gonzalez

2023ko urtarrilaren 2an hil zen, 39 urte zituela.

*Zure lagun arrainek be igarri dabe
arnasia falta jakuela,
badakixe holako pertsonak galtzia
min handixa dala,
badakixe izar berri bat
euren zain dagoa,
badakixe betiko danon bihotzetan
geldituko zala...*

Zure Bergarako kuadrillia. Bergaran, 2024ko urtarrilaren 12an.

URTEURRENA



Sotero Olave Uribarren

2023ko urtarrilaren 4an hil zen, 77 urte zituela.

Geure artien jarraitetan dozu, aitteitte.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 7an, 12:30etan, Aretxabaletako Jasokundeko Amaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Aretxabaletan, 2024ko urtarrilaren 12an.

MEZA



Pedro Barrena Otxoa

2024ko urtarrilaren 3an hil zen, 92 urte zituela.

Bere aldeko onra meza larunbatean izango da, urtarrilaren 13an, 19:30etan, Oñatiako Agustinoen elizan.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Oñatin, 2024ko urtarrilaren 12an.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goienakideko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

Korosti Inmobiliaria

Bergara:
Bidekurutzeta,
55m², erabilgarri,
logela 1, igogailua
eta garaje itxia
aukeran. **187.000€**

Bergara:
Masterreka,
75m², 3 logela,
67m² eta egungo
dekorazioarekin.
135.000€

Bergara: San Pedro,
67m² erabilgarri, 2
logela, 67m²-ko
ganbara etxebizitzatik
sarbidearekin
120.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehiago:

ZORION AGURRAK



ONATI
Nahia Etxaniz Gabiria
Urtarrilaren 17an, 12 urte. Zorionak, bihotza! 12 urte iada...ondo ondo pasa zure eguna, asko maite zaitugu!



ESKORIATZA
Amalur Karpio Azpitarte
Urtarrilaren 16an, 9 urte. Zorion berobot gure neskatilla politenari. Zure amama,aitita ,osaba Gorka eta Ion txakurtxue.



ONATI
Elene Gorosabel Urrutia
15an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasau zure eguna, familia danan partetik. Jarraitu holakua izaten, patxo haundi bat!



ARETXABALETA
Lara Da Costa
Urtarrilaren 13an, 4 urte. Zorionak, printzesa, gozatu zure egunaz. Ez galdu inoiz zure bizipoza. Maite zaitugu!



BERGARA
June Gabilondo Kapelastegi
Urtarrilaren 13an, 11 urte. Zorionak, June! Primeran pasa zure eguna. Asko maite zaitugu.



ARRASATE
Hegoa Zugasti Larrañaga
Urtarrilaren 13an, urtebete. Zorionak, poxpolin! Gozatu zure lehenengo urtebetezue eguna familiaren berotasunean. Muxu potolo bat etxekoan partetik.



BERGARA
Ibon Lete Cobo
Urtarrilaren 12an, 8 urte. Zorionak mutil haundi! 8 urte ia... Segi beti bezelako sinpatiko izaten. Danon partetik muxu potolo bat zuretako.



ARRASATE
Unai Maiz Mora
Urtarrilaren 12an, 7 urte. Zorionak, Unai! Oso ondo ospatu eguna eta segi beti bezain alai! Muxu haundi bat etxeko guztien partetik!



ARRASATE
Ramon Ramila
Urtarrilaren 10an, 72 urte. Zorionak Goienako lankide guztien partetik. Eskerrik asko pastel goxoengatik, ederrak zeuden. Urte askotarako.



ANTZUOLA
Ekain eta Gaizka Niño Fernández
Urtarrilaren 10an, 8 urte. Zorionak, bikote!! Iada 8 urte betetzen dituzue! Muxu asko etxekoan partetik!



ARRASATE
Iker Del Palacio Orellana
Urtarrilaren 10an, 11 urte. Zorionak, Iker! Primeran pasa eguna familia eta lagunekin! Laztan haundi bat!



BERGARA
Xabat Ernabide Sebal
Urtarrilaren 9an, 7 urte. Zorionak, Pitxin! Iada 7 urte! Bia dan moduan ospatukou!



ARRASATE
Ane Rueda Calleja
Urtarrilaren 8an, 11 urte. Zorionak, bihotza! Ondo pasau zure urtebetezue eguna eta gozatu 11 urtetxo horietaz. Infinitu ta buelta maite zaitugu!



ANTZUOLA
Pello Gabilondo Olaortua
Urtarrilaren 7an, 12 urte. Zorionak, Pello! Muxu haundi bat etxeko danon partetik.



BERGARA
Naia Badiola Unzurrunzaga
Urtarrilaren 7an, 10 urte. Zorionak, Naia, etxeko guztion partetik. Musu handi bat



ONATI
Ibai Arregui Ladino
Urtarrilaren 7an, 3 urte. Zorionak, Ibai! Za ondo! Pasau egun oso polita eta patxo handi bat familiaren partetik.



ESKORIATZA
Irati Etxebarrieta Altuna
5an, 23 urte. Zorionak Guapetona! Pasatzen den egun bakoitzean, askoz be politago zaz. Moxu mordo bat familia osoaren partetik.



BERGARA
Oihan Zubiaga Iarduia
Urtarrilaren 5an, 16 urte. Bazoiaz aurrera, mutikote. Ondo-ondo pasau zure egunean eta jaso muxu bana etxekoan partetik.



ARETXABALETA
Lia Anduaga Cortes
5an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Ze haundi zazen ta ze azkar pasau dien urte honeik. Ondo pasau eguna preioxia! Patxo haundi bat bereziki Axelen partetik.




ONATI
Ibai Zumalde Olariaga
5an, 6 urte. Zorionak, polittori! Ondo Ondo ospatu zure eguna eta patxo haundi haundi bat zure familiaren partetik. Asko Maite zaitugu.



ARRASATE
Garazi Nin Ugalde
5an, 12 urte. Zenbat aldiz esango nizuke besterik gabe maite zaitudala, egunak hobeak baitira zurekin batera. Zorionak, Garazi! Patxo handi bat etxekoan partetik!



ONATI
Nahikari eta Julene Garay
Urtarrilaren 4an, 4 urte. Zorionak eta urte askotako maitiak. Oso gustora ospatuko dugu bixon eguna. Jarraitu bihotz onekuak eta alaiak izaten. Asko maite zaituztegu.



ONATI
Aiur Beitia Igartua
Urtarrilaren 4an, urtebete. Zorionak, bihotza! Asko maite zaitugu! Alaitasun haundia ekarri duzu gure etxera. Patxo haundi bat etxekoan partetik!



ARRASATE
Maddi Añibarro Usobiaga
Urtarrilaren 3an, 3 urte. Zorionak, maitia! Konturatu orduko 3 urte! Etxeko danon partetik, ondo ondo pasau zure egunian eta patxo haundi bat!!

ZORIONTEZKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta Goiena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
- Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetezue-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



ARRASATE
Elene Zubizarreta Gorosabel
2an, 7 urte. Zorionak! Jarraitu gure bizitzak alaitzen eta hain jatorra izaten. Izugarri maitxe zaitxugu! Muxu erraldoi bat familiaren partetik.



ONATI
Ilargi Markuleta Kortajarena
Urtarrilaren 2an, 10 urte. Zorionak etxeko danon partetik. Asko maite zaitugu.



ARAMAIO
Javitxu Aramaio
Urtarrilaren 2an, 39 urte. Zorionak, oso ondo ondo pasau! Desterrados.



ONATI
Maddi Dorado Hernández
1an, 8 urte. Zorionak, Madditxo! Ze azkar pasatu den. Egund polita pasa eta segi irrifarre polit horrekin. Maite zaitugu. Muxu erraldoia



ESKORIATZA
Itziar Garaiurrebaso Etxebarria
Abenduaren 29an, 65 urte. Zorionak! Mila muxu familia osoaren partetik eta bereziki Intza, Aimar eta Noraren partetik. Asko Maite zaitugu!



BERGARA
Nora eta Paule Amasorrain Macho
Abenduaren 29an, 5 urte. Norak abenduaren 29an, 5 urte beteko ditu eta Paulek urtarrilaren 5an, 2 urte! Zorionak gure etxeko neskatillei!! Besarkada handi bat familia guztian partetik!



BERGARA
Maia Barrenetxea Gandra
Abenduaren 27an, 6 urte. Zorionak, pitxin! Azkenian heldu da ba eguna, e? Ondo ondo pasau ta diafrutau asko! Patxo bat danon partetik.


BERRI-ZAKUA



Aitortzak
Iñigo Ugartek, Goizalde Beitiak eta Esteban Arriaranek 25 urte bete dituzte Oñatiko Musika Bandako kide moduan.

**Begarako tailla taldekoak**

Haien lanak ipini dituzte ikusgai Bergarako Aroztegin. Askotariko lanak bildu dituzte, eta domekara arte, etzira arte, ikusi ahal izango dira.



Jon eta Igone
"Zorionak! Gora ezkonberriak! Espero dugu etapa zoragarri bat hastea! Gozatu, talde osoaren partetik. Frakas ala hii!".

ESKER ONA

Serapia Aranzabal Ascasibar




Vicente Garitano Astigarragaren alarguna
2023ko abenduaren 21ean hil zen, 93 urte zituela.


Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2024ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA



Juan Zabaleta Barrutia



'Galarra'
2024ko urtarrilaren 5ean hil zen, 80 urte zituela.

Milesker danagaittik, aitaita!

Eskerrik asko momentu latz hauetan eta beste batzuetan gurekin egon zareten guztioi.

Bergaran, 2024ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA



Miren Etxebarriarteun Arenaza



2023ko abenduaren 27an hil zen, 63 urte zituela.


Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2024ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA



Asier Arana Beitia




2024ko urtarrilaren 6an hil zen, 57 urte zituela.

Eskerrik asko momentu latz hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bereziki ekitaldia antolatzen aritu zaretenoi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana.

Arrasaten, 2024ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA

Miguel Arenaza Urrutia




2023ko abenduaren 31n hil zen, 96 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2024ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA

Julian Leceta Unzueta



2023ko abenduaren 31n hil zen, 87 urte zituela.

*Domeketako bazkarirako
Sua gertu berotzeko
Olamendin janari goxoa
Familiari bazkaltzeko*

*Orain iritsi zaigu ordua
Aittaita/aitxixa zu agurtzeko
Bost Lezetatar biloben partez
Dena zuri eskertzeko*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana.

Familiaren partetik.
Antzuolan, 2024ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA

Jose Mari Ezkurra Larrañaga



2024ko urtarrilaren 3an hil zen, 79 urte zituela.

*Beti umoretsu, beti alai
bizitakoagatik eta
izan zaren modukoa
izateagatik,
eskerrik asko ASKO,
asko maite zaitugu.*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2024ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA



Jesusa Olasolo Eizaguirre



2024ko urtarrilaren 8an hil zen, 86 urte zituela.

Mila esker, familia osoaren partetik, dulinak helarazi dizkiguzuen guztioi.

Bergaran, 2024ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA

Juan Mari Aranzeta Egizabal



2024ko urtarrilaren 9an hil zen, 75 urte zituela.

Ein Hegan, Txantxangorri

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Elgetan, 2024ko urtarrilaren 12an.


ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoienan.

ESKER ONA

Sebastiana Balanzategui Unzueta




Gerardo Salaberriren alarguna
2023ko abenduaren 25ean hil zen, 94 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aramaion, 2024ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA

Julian Elkoroberezibar Odriozola



2023ko abenduaren 26an hil zen, 85 urte zituela.

Familiaren izenean, eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2024ko urtarrilaren 12an.

OROIGARRIA

Miren Etxebarriarteun Arenaza 

2023ko abenduaren 27an hil zen, 63 urte zituela.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

Atxabaltako zure lagunek.
Aretxabaletan, 2024ko urtarrilaren 12an.

OROIGARRIA

 **Miren Etxebarriarteun Arenaza** 

2023ko abenduaren 27an hil zen, 63 urte zituela.

Zuregandik jasotako maitasuna, xamurtasuna, beti eskaini izan diguzun goxotasuna eta umore ona, lagun izango ditugu une zail hauetan. Maite zaitugu, Tia Miren.

Zure ilobak: Alix eta Irene; Julen, Nerea; Aritz eta Oihana, Amaia eta Aimar; Aitor eta Lidia, Gotzone eta Txiki; Itsasne eta Jamal, Garikoitz.

Oñatin, 2024ko urtarrilaren 12an.

OROIGARRIA


 **Mariasun Zubimendi Zabala** 

2024ko urtarrilaren 9an hil zen, 81 urte zituela.

Zu ze ziiñen guria? Dana. Eskerrik asko danagaitxik, Mariasun!

Anabel eta Boli, Maite eta Jokin, Ander eta Garbiñe, Peio, Jone. Bergaran, 2024ko urtarrilaren 12an.

OROIGARRIA

Jesus Mari Ganboa Idigoras 


2023ko abenduaren 28an hil zen, 64 urte zituela.

Mila esker emandako guztiagatik.

Beti gure bihotzean.

Bere kuadrilaren partetik.
Aretxabaletan, 2024ko urtarrilaren 12an.

OROIGARRIA



Jesus Mari Ganboa Idigoras 

2023ko abenduaren 28an hil zen, 64 urte zituela.

Egin ditugun barreak eta erakutsi diguzun guztia ez dugu inoiz ahaztuko.

Errotakuek.
Aretxabaletan, 2024ko urtarrilaren 12an.

OROIGARRIA

 **Isabel Uribarri Jausoro** 

Maximo Iñurrategiren alarguna

2023ko abenduaren 25ean hil zen, 78 urte zituela.

Oin arte geuaz, aurrerantzien geugan.

Jausoroko zure familiexiek
Eskoriatzan, 2024ko urtarrilaren 12an.

OROIGARRIA

Juan Mari Aranzeta 

*Aldean umore fin,
Gogoratuko gara zurekin
Maitasunez zin
Hurrengorarte "kapullin"*

Urrejaleiko lobak.
Elgetan, 2024ko urtarrilaren 12an.

OROIGARRIA

Jose Mari Larrañaga Bolinaga 


2023ko abenduaren 23an hil zen, 82 urte zituela.

Jose Mari, zuk ereindako elkartasun haziak loratu daitezen lanean jarraituko dugu.



Arrasaten, 2024ko urtarrilaren 12an.

OROIGARRIA


Nikolas Segurola Etxaniz 

2023ko abenduaren 30ean hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko, maisu Nikolas, betirako gure bihotzetan.

Gomiztegi-Artzain Eskolako lagunak.
Oñatin, 2024ko urtarrilaren 12an.

OROIGARRIA

Julian Elkoroberezibar Odriozola 

2023ko abenduaren 26an hil zen, 85 urte zituela.

*Aitxita,
eskerrik asko eman diguzun maitasunagatik.
Zuk esaten zenigun moduan: aurrera egin!*

Jon, Maria, Beñat, Aitzol (+) eta Mikel.
Bergaran, 2024ko urtarrilaren 12an.

ESKELA

 **Maria Herrarte Ercilla** 

Heriberto Mendizabalen alarguna

2024ko urtarrilaren 11n hil zen, 95 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna San Juan Bataiatzailea parrokiaren izango da, urtarrilak 12, ostirala, 19:00etan.

Familiak San Felipe beilatokian (Ignacio Zuloaga, 2) hartuko zaituzte, OSTIRALEAN, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30era bitartean.

Bertaratuko zaretenoi aldezk aurretik eskerrik asko.
Arrasaten, 2024ko urtarrilaren 12an.

Oroilore BABESLEA
Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agarnitako guztiak esan bidea osatzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beronenak guzun izan dituzten konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Mario, Iban, Mariñe eta Cristian

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI



ASTEAGOIENA TELEBISTAN

**BELAKO TALDEAREN ZUZENEKOA**

Mungiako laukoteak Kooltur Ostegunetan egindako emanaldia osorik ikusteko aukera.

'Kooltur Ostegunak' Egubakoitza, 19:30, 21:30 eta 23:30

**ANE ELORDIRI ELKARRIZKETA**

Korrikako koordinatzaileari elkarrizketa, 23. Korrikaren harira. Bi aldiz pasako da Debagoienetik: martxoaren 20an eta 23an.

'Hemen Debagoiena' Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00

**FUTBOLA ETA SASKIBALOIA**

Biotz Aloñaren saskibaloia partiduaren eta UDaren futbol partiduaren laburpenak emango dituzte.

'Harmailatik' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**URTXAKURRAK BERBAGAI**

Julen Murua kazetariak Nerea Pagaldai biologoarekin egingo du berba igarabei buruz.

'Landara' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**INGALATERRARA BIDAIA**

Ingalaterran bizi den Jone Ojanguren elgetarrarekin egingo du berba Eneko Azurmendik; hango ohiturei buruz galdetuko dio.

'Debagoiendarrak mundutik' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 12**ARAMAIO Bertxoko sariketako lehen kanporaketa**

Bikoteka lehiatuko dira: Iraide Onaindia eta Xabi Antia, Ane Arexolaleiba eta Paula Amilburu, eta Gari Arexolaleiba eta Martin Abarrategi.

Zabola elkartean, 18:30etan.

LEINTZ GATZAGA Korrika batzordea

Korrikari begirako lehen batzarra egingo dute. Irekia.

Leintz Gatzagan, 19:00etan.

ARAMAIO Urte berriko bertso-saioa

Jone Uria, Joanes Illarregi, Unai Iturriaga eta Sabin Abarrategi bertsolariekin. Sarrerak, bost euro.

Kultura etxean, 22:00etan.

ELGETA Neguko bolak

Martxan da Neguko Bolak txapelketa. Bi saio jokatu dira abenduan, eta Elgetan jokatu da hirugarrena, urtarrilaren 12an, 22:00etan. Izen-ematea: bost euro.

Bolatokian, 22:00etan.

OÑATI Txopet eta Nakar taldeak

Sarrerak: zortzi euro arrunta eta hiru murriztua.

Gaztetxean, 22:00etan.

BERGARA Txarro, Caete & Senisa kontzertuan

Raimundo El Canasteroko kideen kontzertua.

Arrano tabernan, 22:00etan.

ZAPATUA 13**ELGETA 'Konponbiderako giltzak': autobusa**

14:45ean abiatuko da.

Mendizaleen plazan.

ARRASATE 'Andereño' ikuskizuna umeentzat

Haurrentzako eta familientzako txotxongilo-ikuskizunean, irakasle baten eta bere eskola txikiaren istorioa kontatzen du Anita Maravillas taldeak.

Sarrerak, bost euro.

Amaia antzokian, 17:00etan.

BERGARA 'Loti ederrak' haur antzerkia

Ipuin klasikoaren antzerkirako egokitzapena egin du Glu Glu taldeak. Andrea Covadonga, Jon Casamayor, Sara Barroeta eta Itxaso Quinata oholitza gainean.

Sarrerak, lau euro.

Seminarioan, 18:00etan.

ARRASATE Kustomizazio tailerra

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan,

18:00etan.

ARRASATE Iskanbila, Hankaz Gora eta Sindy Berbenas taldeak

Arrasateko Iskanbila taldeak Bizimodu baten historia diskoa aurkeztuko du. Beste bi taldeek gaztetxea girotuko dute. Sarrerak, zazpi euro.

Gaztetxean, 22:00etan.

ESKORATZA Kaparrak taldearen kontzertua

Runba estiloko kantuak eskainiko dituzte, gitarra erdigunean, kaxa, baxua, turutak eta marakak ere joz.

Urrestilla tabernan, 22:00etan.

DOMEKA 14**BERGARA Tailla erakusketa**

Gaur da ikusi ahal izateko azken eguna.

Aroztegin, 12:00etan.

BERGARA Txistulari Bandaren emanaldia

Danborradako doinuak izeneko emanaldia egingo dute.

Osoko bilkura aretoan, 13:00etan.

ARRASATE Familia Jolasean

0-8 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako. Orduetgia: 17:30-19:30.

Okendoko ludotekan.

ASTELEHENA 15**ARRASATE 'Gaza y Cisjordania: Comprendiendo el conflicto en términos humanos' hitzaldia**

Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko

ikertzaile Susana Manganak egingo du berba, Goienagustik gonbidatuta.

Kulturaten, 10:00etan.

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatuko dituzte Oñatin, Antzuolan, Arrasaten eta Bergaran.

Herri horietan, 12:00etan.

OÑATI Korrikako herri batzordea eratzeko deialdia

Interesa duten herritar guztiendako.

Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.

ESKORATZA Korrika batzordea

Interesa duten herritar guztiendako.

Kultura etxean, 18:00etan.

ANTZUOLA 'Osasun mentala eta nerabeak' hitzaldia

Estibaliz Ansotegik egingo du berba. Bereziki, gurasoendako hitzaldia da.

Olaran etxean, 18:30etan.

MARTITZENA 16**ANTZUOLA Odol ematea**

Urteko lehen ateratzea egingo dute, herritar guztiendako.

Torresoroan, 16:30etan.

ELGETA Xalbadorpe elkartearen urteko batzarra

Bazkide guztiak daude parte hartzera gonbidatuta.

Ozkarbi elkartean, 17:00etan.

ARRASATE 'Zu zeu zaintzeko unea da' hitzaldia

Amaia Diaz de Monasteriogurenek egingo du berba, Arrasateko Nagusien Kontseiluak gonbidatuta.

Kulturaten, 17:30etan.

OÑATI 'Mindfulness'-a ezagutzeko saio irekia

Barakako Danel Iñurritegik gidatuko du Ongizate emozionala familian: Mindfulness praktikaren onurak, haurdunaldian hasita izeneko saioa.

Elkar Hezin, 18:00etan.

ELGETA Mendiko bazkidetza eta federazio txartela

Urtarrileko martitzenetan egiteko aukera, Kantsatzeke mendi taldekoen laguntzarekin.

Kultura etxea, 19:00etan.



ANITA MARAVILLAS

EGUAZTENA 17

OÑATI 'Klima aldaketa. Badakigu ez dela naturala. Zergatik?' hitzaldia

Jon Saez Agirrek egingo du berba, Esperientzia Gelak gonbidatuta. *Santa Ana antzokian, 10:00etan.*

ARETXABALETA 'Sexu-hezkuntza feminisotik' hitzaldia

Larraitz Arando psikologo eta sexologoak egingo du berba, 0-6 urteko haurrak abiapuntu hartuta. Debalde. *Kuku Mikuren egoitzan, 18:00etan.*

BERGARA Eguaztenetako azoka Herriko baserriarren garaiko produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 18:00etan.*

BERGARA 'Anatomie d'un chute' filma

Zineklubean, jatorrizko bertsoian eta azpitoluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoa, 20:00etan.*

EGUENA 18

ARRASATE Sasoibide

Arrazolako ibilbide berdean ibiliko dira gaur. Autobusa hartuko dute Zalduspen 09:30ean. *Zalduspen.*

OÑATI Gomiztegi eta Arantzazura bisita

Goienagusiko kideek Gomiztegioko Artzain Eskolako jarduna ezagutuko dute eta bisita gidatua egingo dute santutegian. *Arantzazun, 10:00etan.*

ARRASATE 'Tarrapata' ipuin kontaketa

Lide Ansoategik egingo du emanaldia, 5 urteko gorako neska-mutikoendako. Gonbidapena beharrezkoa da. *Kulturaten, 18:00etan.*

ANTZUOLA Trekutz parke eolikoa: batzar irekia

Valentin Ibarra geologoak proiektuari aurkeztutako alegazioen txostena aurkeztuko du, euskaraz.

ARRASATE 'Andereño' ikuskizuna

Haurrentzako eta familientzako txobxongilo-ikuskizunean, irakasle baten eta bere eskola txikiaren istorioa kontatzen du Anita Maravillas taldeak. Sarrerak, bost euro. *Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.*

Javier Alday industria-ingenieri elektrikoa izango du mahaikide. *Torresoroan, 18:00etan.*

BERGARA Kartzela zaharreko irakurketa taldea

Berriz zentauro liburuaren gaineko saioa egingo dute, egikerarekin, Katixa Agirrerekin. *Kartzela zaharrean, 18:30ean.*

OÑATI 'Fallen leaves' filma zineklubean

Zineklubean, jatorrizko bertsoian eta azpitoluekin. Sarrerak, bost euro. *Zinema aretoan, 20:00etan.*

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Ezpalak

Eskarmentu handiko musikariek 2019an Zestoan sortutako rock taldeak girotuko du gaztetxea. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

EGUBAKOITZA 19

OÑATI Odol ematea

Urteko lehena. Aurrez eman behar da izena: 943-00 78 84 zenbakian. *Enpresagintzan, 16:30ean.*

ARETXABALETA Demode Quartet taldea

A kupela emanaldia egingo dute, kantu ezagunen euskarazko bertsiopropioekin eta, ohi legez, umoreak eta musikak bat eginda. Sarrerak, bost euro. *Arkupen, 20:00etan.*

ARRASATE 'Antologia de la zarzuela' ikuskizuna

Izaskun Murgia elkarte lirikoaren eskutik. Sarrerak, hoge euro. *Amaia antzokian, 20:00etan.*

BERGARA Sarrabete folk taldea

Txori arraina diskoa aurkeztuko dute. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoa, 20:00etan.*

ANTZUOLA Santa Barbara eta Korda Rota taldeak

Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

BERGARA Golden Blend eta Dukkha taldeak

Egubakoitzak Berreskuratzen egitasmoa. Sarrerak, bost euro. *Kartzela zaharrean, 22:30ean.*

ZAPATUA 20

ARETXABALETA 'Kortxoaren dilema' ikuskizuna

Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreekin. Sarrerak, bost euro. *Zaraia aretoan, 19:00etan.*

OÑATI Osaba Kimu eta Astelehen Goizak taldeak

Burrunda Faktoriak antolatuta. Sarrerak, zortzi eta hiru euro. *Gaztetxean, 19:00etan.*

ARRASATE 'Antologia de la zarzuela' ikuskizuna

Izaskun Murgia elkarte lirikoaren eskutik. Sarrerak, hoge euro. *Amaia antzokian, 19:30etan.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Anatomia de una caída

Domeka: 19:30.

Wish, el poder de los deseos

Domeka: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Saben aquel

Domeka eta astelehena: 19:30.

Digimon adventure

Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Anatomia de una caída

Egubakoitza eta zapatua: 22:00.

Domeka: 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:30.

Teddy y la magia de la Navidad

Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Ocho apellidos marroquis

Egubakoitza: 22:00.

Zapatua eta domeka: 19:30.

Astelehena: 16:00.

Wonka

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

El maestro que prometió el mar

Egubakoitzetik domeka: 21:30.

Astelehenetik eguenera: 19:30.

Anatomia de una caída

Egubakoitzetik domeka: 18:30, 21:00.

Astelehenetik eguenera: 16:45, 19:00.

Astelehena: 19:30.

El rapto

Egubakoitzetik domeka: 16:45, 19:00.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

La Navidad en sus manos

Zapatua eta domeka: 12:00.

Robot dreams

Zapatua eta domeka: 12:00.

Wish: el poder de los deseos

EZapatua eta domeka: 12:00.

Wonka

Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:00.

Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.

Aquaman y el reino perdido

Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 19:30.

Zapatua eta domeka: 16:45, 21:30.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

Fallen leaves

Egubakoitza: 16:45, 22:15.

Zapatua eta domeka: 16:45, 21:30.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

Los que quedan

Egubakoitza: 16:45, 22:15.

Zapatua eta domeka: 16:45, 21:30.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

La memoria infinita

Egubakoitzetik domeka: 19:30.

Astelehena: 17:30, 19:45.

Eguena: 17:30.

Trolls 3

Zapatua eta domeka: 12:00.

Perfect days

Egubakoitzetik domeka: 16:45, 19:15, 21:45.

Astelehenetik eguenera: 16:45, 19:15.

Valle de sombras

Egubakoitza: 16:30, 19:05, 21:30.

Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 19:00, 21:30.

Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30.

Yo, capitán

Egubakoitzetik domeka: 16:30, 21:45.

Astelehenetik eguenera: 19:45.

Honeymoon

Egubakoitzetik domeka: 19:00, 21:45.

Astelehenetik eguenera: 19:45.

Trolls 3

Zapatua eta domeka: 12:00.

KRITIKA

Fallen leaves

★★★★★

Zuz.: Aki Kaurismäki. **Herr.:** Finlandia (2023). **Aktoreak:** Alma Pöysti, Jussi Vatanen, Janne Hyytiäinen. **Iraupena:** 81 minutu.

Zakartasunetik samurtasunera

ANTONIO ZABALA

Kaurismäkiren filmek badute kutsu erromantikoa. Haren zineman, adiskidetasun, elkartasun eta amodio sentimenduek gure gizarte kradelaren eragin itogarria gainditzea lortzen dute. Orokorrean, haren istorioen protagonistak ekonomikoki oso justu bizi dira eta lan-baldintza oso txarrak dituzte. Gainera, *Fallen Leaves*-en, sarritan, komunikabideen bitartez, Ukraina jasaten ari den egoera zapaltzailea agertzen da, munduan daukagun egoera kezagarria azaltzeko. Amodioak elkartzen ditu bakarti eta ia babesik gabe bizitzan noraezean dabilzan pertsonaiak. Zinemak garrantzi handia du bikotearen harremanetan. Hori irakurrita, Kaurismäkiren filmik

ikusi ez duenak pentsa dezake film *panfletario* edo gozoegi baten aurrean gaudela, baina ez da horrela.

Zuzendariaren estiloa oso pertsonala da. Aktoreen interpretazioa oso soila da: pertsonaiak, hitz gutxikoak eta zorrotzak. Eta Kaurismäki ere zorrotz eta neurritsu azaltzen da kamera mugitzerakoan. Alde horretatik, pentsa daiteke film hotz baten aurrean gaudela, baina musikaren bidez, koloreen bidez eta elkarriketetan eta egoeretan absurdoa erabiliz, badaki eustek eta neurrigabekeriak bat egiten. Hala, pertsonaien itxurazko zakartasunetik samurtasuna ateratzea lortzen du; film ederra, argitsua eta hunkigarria egin du.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Egutegiak

Uste dut jaso nuen lehena Goienarena izan zela, azaroan. Orditik, egutegiak ikusi ditut han eta hemen. Ez dakit aurreko urteetan hainbesteko presentzia izan duten. Garai batean, gure mendizaleak lehen zortzimilakoak egiten ari zirenean, oso preziatuak ziren hango argazkiez osatutakoak. Aurten, iruditzen zait hainbat erakunde pribatu zein publikok arreta berezia jarri duela bere egutegia nabarmentzeko.

Komertzio batean erosketak egin ondoren, saltzaileak esan zigun, arduraz: "Aaaa, ez ahaztu hauxe". Eta egutegi preziatua eman zigun... gaztelera hutsekoa. Aupa txabal! Bailarako udal batzuek ateratzen dute berea. Oraingoan, Arrasatekoa ere batu da. Webgunean dioenez, epaimahai batek aukeratu ditu argazkiak; ez du azaltzen, ordea, zeinek aurkeztu ahal zituen.

Deigarriena, azkenerako: Gipuzkoako Foru Aldundiaren egutegia. Harrigarria da Aldundiak eman dion garrantzia. Hedabide honetan –eta beste batzuetan ere bai, seguruenik–, abenduko zenbaki batean, propio babestutako bi orritan egutegia aurkeztu du. 2024ari begira ez da egongo Diputazioak herritarro jakinarazi nahi digun ezer inportanteagorik!

BUKATZEKO

Baserrien arkitektura batzen duen bilduma

Luis Alberdi Sudupe azkoitiarrak Gipuzkoako baserrien arkitekturaren eboluzioa aztertzen duen liburua kaleratu du. XVI. mendeko eta barroko estiloa duen Bergarako Elkorobarrutia da liburuko adibideetako bat; bailaran, ordea, badira adibide gehiago

Iñigo Barrena BERGARA

Arquitectura del Caserío en Gipuzkoa du izena azkoitiarrak kaleratu duen liburua, baserriaren eboluzioari buruzko historia lantzen duena. Gipuzkoako baserri ugari batzen ditu liburuan eboluzio horren adibide gisa, eta, tartean, Bergaran kokatuta Elkorobarrutia baserria ageri da. "Baserria XVI. mendekoa da, seguruenik, baina, dokumentuetan ageri denez, 1657 eta 1659 urteen bitartean, orduan Bergarako alkatea zen Martin Perez Elkorobarrutia bizi izan zen han", dio Alberdik. Baserriek jasan zuten aldaketa nabarmen ageri da Bergarakoan; egiturari erreparatu gero, azkoitiarrak dio gaur egun duen harrizko aurrealdea "XVII. mendekoa" dela eta, ziur asko, aurretik aurrealdea "zurezkoa" izango zela.

Baserriaren arkitekturari erreparatuta, beste gauza esanguratsu bat ere badu: aurrealdean dituen arkuak. "Orduko alkateak baserria berri, eta barroko estiloko hiru arku horiek jarri zizkion. Horrez gainera, aurrealdean duen armaria eta baserriaren parean dagoen ermita ere hark egin zituen. Zenbat eta diru gehiago



Bergarako Elkorobarrutia baserria. ENEKO AZKARATE



Aurrealdeko armaria. BUA (JUAN IDIGORAS)



Baserri aurreko San Esteban ermita. E.A.

eduki, orduan eta arku gehiago eta armari handiagoak izaten zituzten baserriek". Bergarako da liburuan jasotzen den adibide bakarra, baina, Luis Alberdik dioenez, Debagoienan mota horretako asko daude; besteak beste, Bergaran bertan Eduegi baserria eta Antzuolako Lapatza aipatu ditu azkoitiarrak. Gainera, azpimarratu du baserriaren aurrealdean arkuak duten baserri "gehienak" Debagoienan daudela kokatuta, eta, batez ere, Bergara inguruetan daudela horietako asko.

Bizitza osoko lana

Alberdik urte luzez egindako lana batzen du liburua. "Ia bizitza osoko lana da. Baserri zaharrek atentzioa ematen zidaten eta haiek marrazten hasi nintzen, Azkoitikoak. Ondoren, Arkitektura ikasketak egin nituen eta metodologia batekin Gipuzkoa osoko baserriak aztertzen aritu nintzen. Esku artean nuen informazio guztia laburbiltzeko modua izan da liburu hau", dio azkoitiarrak.

Ikertzailearen esanetan, XIII. mendekoak dira baserriei buruzko "lehen dokumentuak", baina *baserri* bezala XV. mendetik aurrera ezagutzen direla azpimarratu du. Lehengo baserri ia guztiak "egurrezkoak" zirela aitortu du Alberdik, egitura zein aurrealdea zurezkoak ziren, eta, barruko egiturari erreparatu, "baserri guztia" okupatzen zuen dolarea edukitzen zutela dio. XVI. mendetik aurrera, berriz, harriak egurra ordezkatu zuen, eta hura izan zen baserriek izan zuten aldaketarik nabarmenena.

ANE ELORDI

KORRIKAREN KOORDINATZAILEA

GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA'

URTARRILAREN 12AN, EGUBAKOITZA, 18:00, 20:00 ETA 22:00



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

